


# JAKIN

USKAL-GAZTEDIA KULTURA BIDEETAN



# AURKIBIDEA

Elkarrizketa .....	J. M. Torrealday .....	1
Personaren aukeramena ta Pacem in terris ...	J. F. Sotien .....	3
Tokio-tik oihu .....	E. Saiaberry .....	9
Gotzala kristau erritik urrun? .....	A. Oiarzabal .....	11
Baiona-koBiltzarraren erabakiak .....	.....	20
Oreina .....	D. Peillen .....	29
Utilitarismua .....	P. M. Zabaleta .....	33
Ebanjelioen egiaz .....	D. Baztarrika .....	42
Automazioaren bentajak .....	I. Behengoak .....	52
Idazki ezkutua .....	Zubiartea .....	57
Erantzuna .....	Aldapeko .....	63
Amaya... nobela ixtorlko? .....	Osiñeta .....	65
Lutero ta Morala .....	X. Garmendia .....	71
Pekatua Graham Greene-n idazlanetan .....	J. M. Agirre .....	74
Fisikaz eta... ..	Osiranzu .....	78
Dominiko Theotokopuli; Grekoa... ..	Tx. Izagirre .....	83
Autokritika .....	.....	89

## SAL-NEURRIA

urtekoa:	Españi-an	60 pta.
	Atzerrian	80 pta.
alea:	Españi-an	20 pta.
	Atzerrian	27 pta.

Argazkia: San Martin. — BAIONA-ko Katedrala.

# Jakin

18'gna Arantzazu'n

Ibeltza

1965

## ELKARRIZKETA

Baiona-n elkarrizketa bat izan da. Euskal-literaturaren batasunerako elkarrizketa bat, ain zuzen.

Dialogoa dela bide komunikatzen gera, elkar lagundu ta elkar serbitzen dugu, eta elkarrizketatik sortu da, askotan, argia. Baita ere, elkarrizketa egiati ta eramangarri batek posible egiten du elkar bizitza, baiña ez ditu noski antagonismuak eta kontraesanak deusezten. Adimen soillekin eta ideiekin ez geraldako ari, giza-pertsonekin baiño.

Ez da iñorentzat berri egundo ez dela indarkeririk maite artuemanetan. Modu xuabeegoekin konpondu nai ditugu auziak eta orregatik eltzen diogu elkarrizketari. Elkarrizketa da, izan ere, zibilizazio kutsua garbien duen erakundea, ta falta zaigu. Enseiu bat egin da, alare, Baiona-n. Eta Baiona-koa, jrraipena eskatzen duen asiera bat dela pentsatu nai dut. Askotan, lenengo pausoa ez al da, ba. izaten zaillena elkarrizketa baten?

Moda bedeinkatu bat bezala zertu du Paulo VI-garrenak elkarrizketa. Ta bai. Gaiñera, uste dut, gure garaia-

ren seifiale bezala igaroko dela kondairara. Nundik sortu da, ordea, gurari au, "maitasunaren indar barrutiko" au? Gizakumeak bere gizatasuna, alde batetik, ta bere mugatasuna, bestetik, ulertzean etorri dela moda au esango nuke. Ara:

Leendabizi, gizonak bere dñatasunaren konzientzia artu du. Gaur, ifioiz baiño obeto, Jainkoaren seme dela konturatu da gizona, semetasun onek dakartzkian ondore guztiekin batean. Joandako gizaldietako klase-konzientzia aazturik, guztion berdintasuna onartu du.

Eta bere mugatasuna ere ulertu du gizonak. Leen, batek —nagusiak— zitekean guzia, ta beste denak "obedentzi itsuan" jarraitzen zioten atzetik. Ta olaxe gertatu ziran gertatutakoak. Ordea, Jainkoak ala naita, gizona mugatsu jaio da. Ezin ditu berak, bere kontura ta bere indar soillez, jakintza-adar guztiak jakin eta konprobatu, esate baterako. Ez da alleatzen danera. Gaiñerako beste gizonengana jo bear du. Geiago oraindik: Edozeifiek, bere jakintza gienak gizarte-jakintzatik jaso ditu. Eta jakintza soziala, mundua mundu danetik gizonak lortu dituzten ezagutzen ondore ta frutua da. Au ukatzea, aurrerapenbidea ukatzea litzake noski.

Arrazoi auek, eta beste millak, egin dute gure barnean azpi-lana, eta ia konturatu, geranerako elkarrizketarako bidean abiatuak gaude. Baiña ez dezagun uste gero elkarrizketan iraun aal izatea erreza denik!

\* \* \*

Platon-en garaitik ari zaizkigu esaten arimak bere buruarekin duen elkarrizketa dela pentsamentua. Ta go-goeta orren frutuak elduak ideiak direla. Ideiak gizonari dagozki, ez beste ifiori. Eta orregatik ideieri buruzko elkarrizketa izan bear luke gurea (batez ere), JAKIN-eko orrialdeetan zear ere. Daukanari garrantzia emanik, alegia: "barreneko mamiari", "azala ta lorea" bigarren mailan utzita, arbuiatu gabe. Kultura euskeratzeko auxe delakoan, gaiñera, jokabiderik aproposenetakoa, ta egokiena (eskolarik ez dugun artean, beintzat).

J. M. T.

# Personaren aukeramena ta

## "Pacem in terris"

"Pacem in terris" dalako Enziklika ontan esaten zaiguna da: Oso osoko pakea gizartean ezagutu nai bada lau gauza auetan oñarritu bear dala: egia, zuzentasuna, maitasuna ta askatasunean.

—Egia, alkarren eskubide ta bearkizunak ezagutu bear diralako.

—Zuzentasuna, besteren eskubi-deak errespetatu eta gure bearkizunak beteaz.

—Maitasuna, alkarren bearrak ikusiaz bata besteari laguntzeko.

—Askatasuna, gizaki dana arrazoidun izakia dalako-ekintza bidez-gizartean erantzukitu dediñ.

Joan XXIII'nak benetako pakea jasotzeko bear dirala dion lau kondizioetatik bat, askatasuna aukeratu dut nere lana edo lantxoaren maimizat.

**Askatasuna.** Erri aldeeri buruz aztertu ziteken askatasuna. Enziklikak dio, erri aldeak baita beste zenbait alkarte ere bear dituztela

ta auek ere ez dira oinperatu bear, askatasun giro ederrean azi ditezela euren egitekoa bete dezaten. Baña, ez noa ortara ere.

Langaitzat askatasuna artu dut. Ez ordea, edozein askatasun; personari buruz beroni dagokiona. Ain zuzen ortara natorkizute.

**Persona ta aukeramena.** Lurbira osoan barna ba-da bizidun bat aragiz eta espirituz osaturik dagona. Beste izakien gañetik arkitzen da: gizona. Zentzuduna ta almenez jantzia dalako nortasun bereziaren jabe dala aitortzen degu. Orregatik, "Persona" deitzen diogu. "*Edozein gizaki ba da "nor", auda adimen eta naimen 'librez jantzitako izamena'* (Pacem in terris).

Ortaz gain, gizartearen oñarri da, ots, gizakien pamili nagusi au personak egiten dute. Aldi berean gizarteak egiten du persona ere. Gizona gizarterako dala diogu, gizar-

tea gizonarentzako berriz. Au da, bakarti ez-bafia, gizarteko.

Egilleak gizona bere antz-irudiko josi dunean, egia ta onaren arras-totik sartu-arazi du. Adimen eta naimen, bi almen auekin jantzirik gertatu da gizona. Adimena egia eza-gutzeko ta naimena ona billatzeko.

Adimenak "ezagugarri" dana du zergai. Naimenak, berriz, maitagarri, deseagarri dana. "Zerbait ezagugarri" dalako orri "egia" deitzen diogu, ta deseagarri danari, "ona". Ens verum et bonum. Adimenak ezagutu duna naimenari luzatzen dio ta onek deseagarri bada ontzat ematen du. Orixen da, ta ez besterik, aukeramena. Personak bada, naimenaren bidez, aukeratzen du. Baietza eman ta erabakiak artu.

Au orrela izanik, badegu zertxobait une ontan galdetu bearra. Orduan, aukeramena naimenagandik berezi bear dan almena da edota biak almen beraren osakiak. Bat dirala esan bear. Santo Tomasen itzak dira: "Naimena ta aukeramena ez dira bi almen, bakarrena baizik". S. Theol. I, 83, 4.

Almen bakarra: naimena. Ala ere, bi zeregin, joera ditu. Bata, **berezko** duan joera-ezin beteko zorion naia-maitagarri dana nai izatea. Bestea, bide ortatik joaz au edo ura (konkretoak) ontzat artzea, aukera egitea. Orregatik, bigarren zeregin oni aukeramena deitzen zaio. Ona, personari buruz bere gaitasun-osin sakonegan billatu bear dan pitxi dizdiratsua.

Emen arkitzen geranok, ezagueran apur baten jabe gerala uste dut. Giza-bidean zertxobait sartuak ere, bai noski. Personaren aunditasuna onartzen degunak ta persona gizar-teari begira jarrita ikustea nai degunak. Urratu dezagun askatasunaren azala, bertan bera barruratze-ko; barru-barruan frutu mamitsu ta azi aberatsa arkitu aalko badegu.

**Aukeramena nortasunaren azalgarri.** Nunbait irakurria dut ta benetan gogoan gelditu zitzaidan; alegia, geiena pentsatzen duana osokiena bizi dala. Nere ustez esaldi onek azaltzea merezi du. Beste itz batzuetan onela esango genduke: Norbait izatea lortu nai duanak, bere buruaren jabe izatea lortu bear. Ta ain zuzen gizonak ortarako, ikusten jakitea bearreko du. Gauzen berri jakin edo gertakizunetara, naiz arazoetara, ikuspegi bereziz urreratu. Leenik, ikusi. Baña, ez ikusi bakarrik; ondoren artaz pentzatzen ikasi, gero iritzi jatorra osatu aal izateko. Areago, ez da aski au ere, naimenaren bidez erabaki ta aukera egin bear du, egiteak askatasunez aurrera ateratzeko. Ortaz, bere buruaren jabe izateak auxe eskatzen du: nor bere kontura, pentsakera ta jokabidea, irizita erabakiak moldatzea. Ta olakoak nortasuna, persona izatea baduala diogu. "Norbait" badala esaten degu. Olakoa bere almenak osatzen ari da ta nortasunaren jabe "nor" dalako; bai pentsabide, bai jokaera, askatasunez irabaziak di-

tulako. Olakoak-ez degu aaztu bear-egiteen erantzuna berekin du. Erantzukidun da.

**Askatasuna ta jakintza.** Emen, jakintza, kultura itzaren izenidetzat artzen dut. Kultura berriz, berez duan esanai zabal ta jatorrean, ots, ez lau gauza buruz jakitea, baizik danean askatasunez jokatzeara.

Ontan, aipamen berezi bat zor diegu jakintza-gizon askori. Oker aundi batean ezi gaituztelako. Orre-la, Jakintza-gizona, kultura-gizona zerbaiz ta adierazten dakianari deitu oi zaio. Ta auek, Augusto Adam'ek dio, jende ikasia egin dute. Gezurra usai gozoz eta estali biguñez ematen ikasi duan jendea. Ordutik, egia argi ta garbi azaltzea astakeritzat ezagutu da ta ezi gabe-ko jendearen kontutzat. Alkarizketaren jatortasuna azaleko itz, modu kunplitu batzuetan jarri da; ez benetaako pentsabidearen adieragarrri. Goikoekin itz egitean aski da kontra ez egitea edo uts egin gabe aiekikoa egitea. Aundikieri begira nola koipetu ta zurikatu; jende xearekiko tratu bidea, berritsukeri askoren ondoan ezer esan gabe defenditzea. Gertakizun onen zergatiak atertzen ditu, baña nastuxeak diralako ez ditugu zeazten.

Augusto Adam'ek Alemanira begira dion okerra gure artean ere ez dugunik ezin ukatu. Giro ortan azi ta eziak izan bai gera. "Ikasi zazute... Prestatu zaitetze gerorako...", milla bider esan zaigu. Ta urteetan zear, or jardun gera adi-

mena osotu, burua argitu naian. Baña, benetako kulturaren bidetik Aurrera egiten etzaigula lagundu esango nuke. Benetako kultura, len aipatu dugunez, giza osoaren ezike-ta bai-ta.

**Askatasuna ta gaztedia.** Eziketa lana lan gaitza dala gaur egunean garbi dagoalakoan nago ni. Arrapalada batean lengo askoren pentsakera ofnarri gabe ikustatu dugu; ta areago, gu baño gazteago dana, aixago oartuko dala ontaz derizkiot. Zer gertatu da, beraz? —Gaztea bultzaka dator beti atzetik. Gaurko munduan ifioiz baño bizi-zikiago. Ez dago zear-begiratu bat eman besterik gure famili ta errietan gertatu danari: Zar eta gazteak, talde bi ta ongi banaturik bitan. Ez dute berdin pentsatzen. Pentsabide berri bat sortu da ta lena kolokan jarria zaigu zenbait puntutan. Oraingo berriak asiera beetik du. Beetik gora jasotzen ari dala ikusten degu. Persona du ofnarri ta nor-izatearen askatasuna. Bestalde, lena goitik bera josia zegoen. Ez dut ago betean esan nai —nabarmenegia deritzait eta—, baña aski susmo badugu persona bezain garrantzitsu zirela ainbat egitura, adibidez, Estadua ta Eleiza.

Fameli ta errirako esan duguna, eramanez dezagun ikastetxeetara; naiz arrunten naiz lekaide edo apaizgai artera. Ta esandakoa, aietan egiztatuko dugu benetan. Ixillago bederen zalaparta gabeko irakasle-

ikasle arterik bai alda? Len ere izaten zala? —Ez dakit. Gaur bada-lakoaz, ziur gaude. Zergatiak? —Goikoen jokaerak aztertzeak eman-go dizkigu. Esaterako:

—Sendi barruan aitak, “ixo!! Bestela”... Esaten bazun garai batean, semeak beste gabe ixillik jardungo zun. Bear bada, gaur ere ixilduko zaio semea, bafia ez aitaren arrazoiketaz konporme dagolako. Bere baitan, zer esan du? galdetuko du. Aitak diona ondo dago ala ez?

—Aita nagusiak edo... Obeitzea jotzen du bekoen egiteko. Obeitzen duanak, beti asmatzen dualako aitzaki-aidez inguraturik agindu. Bekoa ere, orde, men egite onek zulo asko dituala oarturik dago.

—Agintariak: Auen ardura guzia, legea betearaztea da; legeak, ifioiz utsunerik ez balu bezela ta aginte zigorra eskuan izateak justizia berekin bailukean.

Adigarri auek ez al dute naiko garbi agertzen atzetik dagon karkoa? Bai orixe. Agintea, legea ta obeitzea bearreko dirala gizartea jasotzeko ezin ukatu; bafia, beste gabe ez ditzagula leen-osakitzat artu. Leen-osakia bakarra dugu: Personaren askatasuna. Guzien gafetik beraz, alde ontatik urratu bear dugu bide berria, gizartearen gaurkotasuna ez badugu bazterreratu nai.

Askatasun miña berekin duan gaztedia dugu gaurkoa, Akats as-

koren jabe dala digu bera. Egia; bafia seguro aski, lenak izan ez duten doai eder bat ere badu: egi zaltetasuna. Ez da itxura zalea. Gauza bakoitzari bere izenez deitzea, gustatzen zaio. Ta zuriketa aundirik gabe, goiko edo kidekoen aurrean azalduko ditu bere pentsakizunak. Au da, gure gaztea. Bidezko zaigu bada, dan bezelakoxea ezagutzen alegintzea; askatasun giroan bere nortasuna geituko dualako uste osoz, onartzea ta ez bestela.

Nornai gerala ere, naiz arrun ta naiz apaiz, bakar batzuen edo geiegi batzuen ezizaille gera; guregan dugu zenbait gizakien egiketa lana. Nundik persona egin, inguruan askatasun giroa sortzeko urduri ez bagaude?

Ontara ezkerro, beste itz erdiko bat luza dezaiogun gai oni. Zenbat mintza izan da legetaz edo obeitzeari buruz? Legepean nunai eta beti burua makurtzearen bearra sarritan erakutsi zaigu. “Itxu-obeitzea” zer dan ere kaskoan ondo sartu digute. Bafia... “epikeia”, zugurtasunaren adarra danik, bein bafio askoz geiagotan ez dugu entzun noski. Ta zer dan, gutxi gora bera bakarrik.

Bestalde, berriz, askatasunean besteren ezizaille izango bagera “epikeia” zer nola dan jakitea bear-ko. Alegia:

—Jainkoari leenik, obeitu bear zaiola ta ez gizonari.

—Kontzientzi barruan suma oi



dugun Jainkoaren mintzoa, gizale-  
geen letraren gañetik dagola.

—Kontzientziaren aurka dagon  
legea urratzeko eskubidea (ta obli-  
gazioari) deitzen zaio "epikeia".

—Zenbait alditan, dio Augusto  
Adam'ek —norberak askatasunez  
eta kontzientziaren esanera onari  
edo gaitzari buruz erabakitze-  
duan eskubidea da; ez nagusiagan-  
dik at danean bakarrik, bere au-  
rrean ere bai ta une batzuetan bere  
naiaren aurka.

Izkuntza au belarrietan zorrotz  
sartu arren, ez da aztugarria ifun-  
dik ere. Batik bat, diktadurapean  
militar aide astuna astindu ta as-  
katasun giroa presaka sortu bea-  
rren arkitzen geran garai ontan.

**Persona erriari buruz.** Persona  
arkitu nai duana ez bedi billa ibi-  
lli...

—Liburuetan edo atariko aizea-  
ren egatan zintzilik dagoalakoan.

—Ezta gure pentsamentuan ere.  
Persona gizartean arkituko du.  
"Personarik" ez dugu ezagutzen.  
Persona au ta ura baizik. Fameli  
batean jatorria tinkaturik sortu da  
bere izatea; baña, bada personaren  
izateari sortzen **ikutu** berezia eran-  
tsi dion alkarte nagusi bat: erria  
edo errialdea. Berezko alkarteak  
bakoitzak bere ikutua eman diote.  
Alaere, erriak ikuturik nagusia.  
Orrela, esaterako, Txina erriak bere  
barrunbean sorrera artu dutenei  
persona izatea zeaztu, egiztatuara-  
zi die, ango gizakia Txino egifnik.  
Munduko beste erri bakoitzagatik

—Euskalerrigatik berdiñ— gauza  
bera esaten dugu. Onen ondorena,  
benetan interesgarri zaigu, gure bu-  
ruak euren lekuan nai baditugu.  
Nere persona izate konkretoa, eus-  
kaldun izatea, ez dut nere naime-  
nez edo askatasunez aukeratua, ja-  
torriz erriak eman didalako, bai-  
zik. Ez bada gero auxe, kontuan  
eduki bearreko!!!!

**Persona askatasun bidean.** Beste  
gabe, nere lanari azken pausoa  
eman araztea iritxia nauzute.

Persona bere izate, erri baten  
seme dala arixitan esan dugu. Artu-  
eman berezi batzuek badira erri ta  
personaren artean onen sorrera  
egunetik. Bai. Alkarrentzat direla;  
batari bestearen nortasuna orniga-  
rri zaiola.

Erriak baditu zenbait alkarte,  
erakunde edo instituzio personari  
buruz, onen bearrak erantzun bide  
bat izan dezaten. Adibidez:

—Ogi bearrak betetzeko lan-  
alkarteak.

—Atsedean bearrak betetzeko jo-  
las-alkarteak.

—Jakintza bearrak betetzeko ikas-  
tola, kultura-alkarteak.

—Erriaren ona billatzeko politika-  
alkarteak. T. a.

Bestalde, aurren-urteetan azi, lan-  
dare xume, gizako da gizona. Gai-  
tasun guziak berekin ditu ta alaz  
guziz, geroko zugaitz tantaia ez  
badago bada, oraindik urruti!!!  
Erriak osatzen du persona. Bere-  
bat, personak erria ta beronen al-  
karteak.

Au gogoan dualarik Aita Santuak onela dio: "Ontaraifio iristean berriro ere, arrenez, au eskatzen diegu gure seme-alabei **arazo danetan ekintzaz eskuartu** (parte artu) de-zatela". (Pacem in terris).

"Arazo danetan ekintzaz"... Len esandakoa berriro ere. Personak nortasun osoa iritxi al izateko zer-bait **egiteari** eltzea derriorreko du. Bestela ez baiditeke bere pentsa-kerak, iritzi, erabaki ta jokabideen jabe izan. Olakoagan askatasunik ez dago. Ekintzarik gabeko gizo-na, naiz-ta pentsatzen eta irizten jakin, ez da benetako persona. Pus-keta bat palta zaio; pusketa aundia: **e-gi-te-ak**.

Besterik da alaere, egiteak nor-tasunez moldatzen jakitea ta... egi-teak **ekintza-bidez** erriari ta onen erakunde, alkarteeri begira zuzen-tzea. Ain zuzen, kristau danak ifioak baño ardura benetsuagoz **erakun-de bidetik**, au da, instituzioetan parte artuaz, jokatu bear du.

Izaki guziek Goikoaren eskueta-tik atera diranez, badute egiaren, onaren edo justiziaren arrastoa. Ziur gaude ekonomi, sozial, kultura edo politika-alkarteetan arrasto ori

billatuaz dabillen gizona Jainkoak ontzat ikusten duala. Aldi berean, kristauaren ekintza bide ontatik (ez du besterik) zuzendu bearrekoa da, osoki egiztatuko baldin badu ere gizatasuna ta... sinismena ere bai. Garbiro dio au ere: "Kristau-fedea-ren argiz eta karidatea gidaritzat artuaz, alegin osoz saiatu bitez ontan: ekonomi, sozial, kultura edo politika erakundeak —instituzioak—, gizoni lagun dezaioleta obetzen bai jatorrizko bai sortzez gaindiko maillean" (Pacem in terris).

Biziki zirraragarri zaigula izke-ra modu au begien aurrean dago. Zenbat biotz zabaldu ote da kol-kopeetan Joanes XXIII'nak itz auek munduari adierazi zizkion egune-tik!!! Zenbat buru ta pauso zuzen-du! Zenbaten sinismena argipe on-tan ziztatu! Badago alde ederra! Mundu au nardagarri dala ta txokora iges egin "illunbearen semeak" eratzekotan utzi-ta edo... bakoitzak bere erria jasoaz, gora-bidean da-nak, errialde guziak jomuga berdi-fia dutela esatea; alegia, Erri nagu-si zabalean (Jainkoaren Errian) alkartzea. Bai orixe, alde ederra!!!

## Tokio'tik oihu

Mundu guzia, begi eta beharri, edo, hobeki mintzatzeko, mundu guzia, begi eta bihotz, egon da landatua, Tokio-ko jokoeri buruz.

Mundu guzia egon barrandan.

Hola zagon Grezian, diela hogoi eta borz mende, jokolari gazten ingurian sasitua.

Hola dago, Euskal-Herria, oraiko egunetan, aizkolariak, dantzariak, pilotariak, begi-bihotzen lotgarri.

**"Ama begirazazu,  
leihotik plazara.  
Ni bezelakorikan,  
plazan ba ote da"?**

dio galde egiten alabak, irriño batekin, amari. Badaki balio duela hari beha egoitea.

**"Begiak erne ditut,  
bi zangoak arin,  
Hoinberze dohainekin,  
ez nauke mutxurdin".**

Gazteria da herriaren ontasuna. Gazteria da herriaren zoriona. Gazteria da herriaren argia. Gazteria da herriaren geroa. Gazteria, herriaren hego ephel-harroa.

Tokio-n gazteak ari izan dira zoin gehiagoka. Irabazteko ez da aski

ukeitea indar eta zain. Behar dira gogo zorrotz eta nahi bortitz. Nahi duka ahala, utz zak bide zabala.

Zoin eder ez da gaztea, hats hantua, ura bezela izerdi, azken jaurtarian helzen delarik bururat, ooren nagusi.

Hari behatzearekin asmatzen da zergatik, Jaungoikoak kokatu zuen arima bilo gabeko larru legun ihizian, edo gizonen.

Aita Saindu Paulo seigarrenak igorri diozka agur eta benedizione Tokio-n multzokatu, jokolarien biltzarrari.

\* \* \*

Ari ziren gazteak, ari. Eta zer oldarrean!

Horiek hola, lur ikara ilhun batek inharrosi ditu bazterrak.

Duda-muda sartu da bihotzetan.

Arrangurak histu du begietako distira. Mamu bat hasi da karra-karra, sabel barnetik.

Xinak zart-arazi du bonba-atomika.

Xinak badauzka zazpi ehun miliun jende. Xina abiatua da, izigarriko farrastan, miliun jende keta-

ri buruz, harekin kosk egiteko, bi mila urtean.

Jendea, tresnarik gabe, gauza guti.

Baifia emozu jendeari tresna, eta jendea alxaturen zaitzu guziz bel-durgarri. Xina-ko tigre edo kata-motzak badauzka hortz-atomikak.

Rusia-n, ilimili-klik, desegin da, tenor berean, Khrouxtxev jauna. Denen nagusi zena, ez da gehiago jeus, ez. Bazituen Khrouxtxev gizontoak hutsak lodi, baiñan ere ongiak ez guti. Haren mutur biribil, irriak lau alderdietarat hanpatuak, gordetzen zituen zimurdikeria asko. Bizkitartean oartua zen, Khrouxtxev, Xina-ri gogor atxikitxeko, alde betetik, behar zuela, berze aldetik, eztekiago jarri Amerika-rekin. Bakearen adixkidea egina zuen, gerlaren zaukan izialdurak.

Xina-k bonba atomika ukanki, Khrouxtxev erhautsia, norat bagoazi? Gauak jaten ari du Tokio-k zarion gozoa. Gudukan emanak dira Tokio-ko besta arramantza, eta Xina-Rusia-ko kraska itsutsi arrabotsa.

\* \* \*

Aise litake jalgitzea, zintzurra luzatuz, herrak paldu behar duela amodioaren aitzinean; higuigarri dela Xina-Rusia-tik jalgi oiharzuna, eta gure goresmenak zor ditugula Tokio-ko gazteri.

Aise da holako solasen barrea-  
tzea. Baiñan elhea, elhe. Elhea

khea bezain arin, zirimolakor, itsu-  
tzaile. Laket zaikigu gure toki za-  
harretan, gauzez goraki mintzatzea. Alabainan jende ikusi eta ikasiak girela ezin ahants!

Hobe ginuke lotzea lanari. Ba-  
kearen sustatzaleak behar du indar,  
bakearen etsaieri, amor ez emaitte-  
kutz.

Egonez pirripili-parrapala, Euro-  
pa-ko herriak, batzu berzetarik be-  
hexiak, batek "ba" erran orduko,  
berzeak "ezetz", ez dezakegu lan  
handirik egin, bakearen xedetarat.

Tokio-ko gazteak goersten ahal-  
ko ditugu, emeiten bagira, Europa-  
ko herriak, heien itzulian, heien  
zaintzeko ez uzkur; gai heien sal-  
batzeko.

Bat den munduko gazteriak, gal-  
de egiten du gogo onezko gizonen  
mundu, bat egina, eta mundu bat  
eginerat helzeko, haren lehen mai-  
la, Europa, bat moldatua: bat bu-  
rutik buru, ontasunez, arrangurez,  
nahiz eta xedez.

Olinpi; jokoan hiri ohandzea, ikus-  
teko baizik ez da. Harri kankaila,  
murru erhautsi, zabal-zabala dago,  
mendieri botatzen duelarik heiago-  
ra ezin agortua.

Kasailan ari ziren Grezia-ko hi-  
riak. "Elgarrekin koropila gaiten  
Jaungoiko legearen zerbitzari, gaz-  
teak bezela, gazten aita eta ama,  
eta haurrideak, Olinpi dohakabea-  
ren ezinberzea, ez dadin bilhaka  
gurea", dauku oihu egin, besta mi-  
resgarriaren erditik, Tokio-ko hi-  
riak.

# GOTZAIA

## KRISTAU ERRITIK

### URRUN?

**OIARZABAL-DAR ALEJANDRO**

Kontzilioaren irugarren saioan, beste arazoan artean, gotzaiari buruz aritu izan dira. Aita Congar-ek egun batean "Kontzilio onetatik gotzai era berri bat aterako zela" idatzi zuenean egiazko igarle gertatu dela uste dut.

Izan ere, zenbait gotzaiek gotzaia-  
ren ideia eguneko gizonari dagokio-  
nez, erabat berritu bear dela diote.  
Aginte moduan, ez eleizbarrutiko  
buru bezela dauzkan eskubideak  
begiratzuz soilik, gaurko gizarteak  
nai duen serbikuntza edo alkar-la-  
guntza batean baizik. Era honetan  
mintzatu ziren Reconquista-ko  
Mons. Iriarte eta beste zenbait.

Egia esan, eskema ederra antola-  
tu zen irugarren saiorako: "Gotzai-  
en Pastoral eginkizuna Eleizan".  
Gotzaiaren lankideeri buruz ari dela  
batzar bat izendatzen da gotzaiaren  
"Aolku (Kontseillu) Pastoral" de-  
ritzaiona. Batzar hori apaizek, erli-  
jiosoek eta laikoek eratu bear dute.  
Eskema berri hau oraindik apro-

batua izan ezik ere, arrera ona  
izan du oso gotzaiaren artean. Ikus  
ditzagun Eleiz Batzarrean azaldu  
diren iritzi batzuek.

Pablo Barrachina, Orhiuela-ko  
(Españia) gotzaia eta Jose Urta-  
sun Avignon-eko (Frantzia) gotzai-  
burua gauza berdintsuaz mintzo zi-  
ren. Gotzaia eleiz-barrutiko aita da  
eta benetan bear du izan, eleizba-  
rrutia familia bat baita. Eta aita  
bat familiko problema oroetaz kez-  
katzen da. Gotzaiek artu-eman es-  
tuagoak antolatzea komeni da, le-  
henik apaiz eta erlijiosoekin, baita  
erriarekin ere eleizbarrutiaren eta  
Eleizaren onerako.

Itzaldi bikaiña Emilio Guerry,  
Cambrai-ko (Frantzia) gotzaiburua-  
rena. Gotzaiaren eginkizun publi-  
koetzaz mintzatu da. Agiriko ira-  
katsietan gaurreguneko kutsuaz  
ornitu bear da Ebanjelioaren era-  
kutsia, gai zibillak, sozialak eta po-  
litikakoak argi egiñaz, alegia. Nor-  
bere Erriaren prolemei erantzuki.

Ta hala ba-derizkio mintzo liteke katoliko ez diranen aurrean ere bere Errian. Hemen, ordea, Gotzaiak prolema ta egite guztiak zeazki eza-gutzen dituela ematen da. Eta ortarako komeni da Gotzaiarekin laikoek lankidetzaz edo artu-eman bezeziak antolatzea. Guzti honek, gaitzera, eskatzen du zuzentasuna ate raldietan, apaltasuna bai informazioa eskatzean, bai entzun bear denerako, egiazko elkarrizketa, t. a.

Leonidas Proano, Riobamba-ko (Ecuador) gotzaia. Onak zionez eskemak ez omen ditu garbi agertzen Gotzaiak bere ardieri ta hauen premiak ezagutzeko betebearrak. Elkarrizketa biziagoa eskatzen du Gotzaiaren eta sifisleen artean. Gotzaia aita xamur bat bezela zaletu bear litzake bere semeekin. Eta erreztasun eta konfiantza aundia-goak eskeifiri bai apaiz ta bai gaitzera-ko kristaueri hauek beren naiak, arazoak eta iritziak agertu ditzaten.

Gotzai geiago ere berdintsu mintzatu ziren eskema osoroago bat prestatzarren. Beraz, gaurregunarte gotzaia kristau erritik urrunegi edo goraegi ikusi ba-dugu ere, aurrerakosun edo, obeto esateko, poliki poliki geroz ta gurasoago ta maitetsuago nabaituko ditugu gure gotzaiak.

Baño, nire lantxo hau arlo es-tuago bateri lotzeko asmoa dut. Gotzai aukeratzekoan kristau erriak eta kleroak kondaira zear eduki duten eta eduki dezaketen

parteartzeaz mintzatuko naiz. Alere, Eleiz Batzarrean egiten ari dena adieraziko dut, lehenik.

Aipatu bezela, irugarren saioan bi parrafo berri erantsi zaizkio "Gotzaien Pastoral eginkizuna Eleizan" eskemari, aurreko saioan zenbait gotzaiak eskatu zutena gogoan arturik. Onela dio eskemak "Gotzaien izendatzea ta askatasunari buruz".

Lenengo zatian: "Gotzaiak apostoloekiko eginkizunetan, arimak salbatzekoak, alegia, berez berjabetasun eta askatasun osoa daukate edozein aginte zibillengandik. Orre-gatik, ez da bidezkoa eleiz jardunetan zuzenean edo azpi-lanez galaraztea, ezta Erromarekin zuzen-zuzen edo beste eleiz agintekin eta bere sifisleekin artu-emanak edukitzea ere. Alere, Eleizako artzaiek beren sifisleekin jardutean gizar-teko aurrerapenaren alde ari dira, ta egiazko aginte zibillari bidezko aginduak betetzera eragiten die...

Bigarren zatian gotzai izendatze-rako ari da: "Gotzaien apostoloekiko eginkizuna Kristo gure Jeunak eratu izandu zenez eta izpirituzko elburu batera zuzentzen delarik, Batzar nagusiak baieztatzen du gotzaiak izendatu ta eratzeko esku-bidea berez eleiz aginteari dago-kiola eta berari bakar-bakarrik. Beraz, Eleizaren askatasuna bear bezela zaintzarren eta sifisleen onerako gauzak egokitzearen Eleiza-ko gurasoen naia da aurrerakoan gotzaiak aukeratzeko, izendatzeko,

presentatzeko edo apezpikutzarako iflor seifialatzeko laikoeri batere eskubiderik edo pribilejiorik ez ematea eta gaurregunarte eman zaizkien pribilejio haiek berekasa lagatzea”...

Antonio Pildain, Canarias-ko gotzaiak zionez Eleizaren erosotasunerako, honek bere Misioa egoki bete dezan Eleizako aginteak derrigorrez aginte zilletatik erabat libre izendatu bear du gotzaia. Kontzilioak arau hori aprobaturiko duen eguna, egun garrantzitsua izanen da kondaira zear Pio X-gnak, Aita Santua aukeratzera eginte zibilen betoa edo eragozpena kendu zuen egun hura bezela...

Kontzilioko izlaria gai honi dagokionez mintzo zelarik, esan zuen gobernuak eskubide hauek utzita ere eskatu ditzakela berak nai lituzken kandidatuak, lagunarteko artueman onek iflor izendatzean batere eskusartzerik ez edukitzekoan.

Gobernuak hau edo hura eskatu badezake edo bere kandidatuak presentatu, zergatik ez eleizbarrutiak, bere erriak eta bere kleroak? Izan ere, erria ta kleroa zaintzera ta gobernatzera dator gotzaia, eta erri orrekin alkar-bizitza estua bearko du eduki, egun ulertzen den eran agintea ta erriak bat osatu bear dutelarik.

Gai oni buruz, Rafael Gonzalez

Valencia-ko gotzai laguntzaillea mintzatu da guztiz egoki.

Atsegifiaz onartzen du gotzaia izendatzerako eskemak diona. Bidezkoa zen laikoen gaidik askatasun hori irixtea. Alere, zeazki zertu bear litezke gotzaiak izendatzeko erak. Aipa bedi nori dagokion bidezko agintea autapen hortarako, eta gotzaia nola modutan eratu bear den. Entzun bitez gotzai-batzarrrak, eleizbarrutiko apaizen iritzia, baita laikoena ere.

Españiar gotzai pizkor honek urrun eta sakonki ikusten ba-daki. Eleizbarrutia ta gotzaia ongi alkar-turik egoteko ez baida hau baiño bide jatorragorik. Gotzaia aukeratzera kleroa ta erria entzunez eskoz estuagoak izanen dira artzaiaren eta ardien artu-emanak. Izan ere, kleroa eta erriak gotzaiean euren aita ezagutu ezifian etortzen dira gotzaiaren eta kristau erriaren arteko leizeak eta mugarriak.

Honekin ez dut esanai ordea, gotzaiak erri-demokrazien eran autatu bear direnik. Ez da derrigorrezkoa beintzat, geroxo ikusiko dugun bezela. Eleiza Kristo-k eratu bai-zuen eta bide ziur eta garbiak ezarri zizkion. Gotzaiak dira Apostoluen zuzeneko ondorengoak esku-bide beraiekin.

Alere, kondaira zear ikustera goaz erriak eta kleroak gotzaia au-

keratzekoan eduki oi zuten parte-  
artzea. Oartuko al gera onekin go-  
tzai aita eta familia, alkarren eza-  
gun maitetsuan bear dugula bi-  
zi (1).

### *Gotzaien autakundeak kondaira zear*

Eleizako tradiziorik irmoena beti  
saiatu izan da eleiz agintearekin  
(egitura) kristau erriaren bizitza  
ta onetsia alkartu nairik.

Antzifnako apezpikuek nola auta-  
tuak ziren konprenitzeko Cipriano  
Doneak (irugarren mendekoa) aski  
lagundu dezaiguke. Gai honetaz  
kondaira egitea gauza nahasia da,  
eta bazter eta garai bakoitza zeaz-  
ki ikasi bearko litzake. Dena dela,  
egin dira lantxo batzuek, eta hemen  
lortu nai dudana burutzeko naikoa  
izanen dut kondaira laburtu bat  
edo ideia jeneral bat ematea.

Lehen mendean kristau erria ta  
kloroa ikusiko ditugu beti gotzaia  
aukeratzerakoan. Or datza Erroma-  
ko Klemente Donearen idatzia. Go-  
tzaiaren autakundea aseguratze-  
arren bi arau ipintzen ditu: "Lenda-  
bizi, gotzaibatzarra da kandidatoa  
aukeratuko duena, ta hau, egingo  
da kristau erriaren onetsiarekin".

Beraz, kristau erriak bereala ar-  
tzen du parte bere gotzaia auke-  
ratu bear denean. Ta hau izandu  
zen, ifundik ere artzaia ta eleizba-

rrutia alkarmaitasunean antolatze-  
ko biderik zurrrena. Berebat, Hipo-  
lito Doneak digunez gotzaia erriak  
aukeratu bear du edo beintzat be-  
re atsegifiekoa bear du izan, eleiz-  
gizonek eta beste gotzaiek apezpi-  
ku eratzeko. Agiri aski ari dira  
bai Cipriano Donea ta bai sasoi  
haietako eleiz batzarrak. Hauek  
Eleizako legedian iru baldinkizun  
ezartzen dituzte gotzaia aukeratzeko:  
laikoen eskaria, eleizgizonen bo-  
toa, ta auzoko gotzaien baiezkundea.

Apezpikutzara kristaurik balio-  
tsuenak igo zitezten artzen zun par-  
te batez ere erriak lehen mendeetan.  
Erria zen kandidatoen lekuko. Gai-  
fiera, Cipriano Doneak digunez  
(Epistola XIV, 4) erriak bere one-  
ritzia eman bear du gotzaia aukera-  
tzerakoan. Santu honek ez du pau-  
sorik eman nai "eleizgizonen kon-  
tseillu gaberik eta laikoek onartze-  
ke". Onak, alere, ez du esanai egu-  
neko demokrazietan egiten denez  
erri geienaren gogo utsa zela-ta,  
bestetik gabe, gotzaia autatzen ze-  
nik.

Zenbait gotzaiek beren ondoren-  
goa izendatzen bazuten ere erriak  
onartzen zuelarik egiten zen. Ci-  
priano Donearen tradizio horrek  
gizaldietan iraungo zuen. Esate ba-  
terako, Aita S. Agustin-ena aipa  
genezake. Sasoi haretan Valerio  
zen Hipona-ko apezpiku. Bera za-  
hartzen zijoan noski, ta gotzai-la-

(1) Kontzilioko kronikatik jaso ditut gotzaieri buruzko berriak "Ecclesia" al-  
dizkariaren jarraiki. Ikus: agorraren 26-koa, ta Urrillaren 3-koa.



guntzaille bat eratzea pentzatu zuen. Agustin abade jakintsua zuan onek begiko. Ta horrela Kartago-ko Artxapezpikuaren baimena bide apezpikutza irixten du Agustini-entzako. Baiño, guzti hau auzoko gotzaiek, Hipona-ko eleizgizonek eta laikoek onetsirik.

Beste ainbeste egin zuen Agustin Doneak, handik 30 urtetara, 426-gn. urtez. Onek Heraclio autatzen du bere ondorengo eleizbarrutiko elizgizonen eta erriaren aurrean, hauek beren onetsia damaiotelarik.

Sartaldean egokiago artzen zun parte kristau erriak Sortaldean baiño. Gerogo Carlomagno, t. a. Eleizarekin geiegi sartu ziren arteño laburpen bat egiteko iru maillatan zertu ditezke gotzaien autakundeak: Erria. Kleroa. Probintziko gotzai-batzarra.

1) Leon Doneak garbi azaltzen ditu kristau erriaren eskubideak jokatibide hauetarako. Kandidatoa eskatu, lekukoarena egin, eta onartu. Hau, ordea, ez zen zeremonia azalutz batean gelditzen. Guzti hauen aurrez serioago eraman oi ziren autakundeak. Ta bene-benetan izendatzen zen orduan erriaren onerako zena. Begira noraiño allegatu zen Leon Aita Santua: "Ez dago gotzaitzat zergatik arturik erriak eskatu duena eta bertako eleizgizonek autatua ez bada". Erriaren eskubidea-

ri inportantzia emateagatik geiegi ere esaten du itzez.

2) Kleroa. Celestino ta Leon, biok Santu ta biok Aita Santu, Kleroren aldeko autakundeaz ari dira errikoaren ondoren. Egia esan, laikoan artean bezelaxe autakunde hauetan ez zen alderdikierarik edo iskanbillarik faltatu oi.

3) Probintziko gotzai-batzarra. Kandidatoaren autakunde getzai-batzarraren iritzipean zegoen. Horri baizegokion autakunde jokabidea ta aukeratuaren difiatasuna epaitzea. Baldin erriko aginteak indarrik egiten ba-zuen edo alderdi kerriakin edo indar-egiteakin kandidatu zuzengabe bat aukeratzen ba-zen... kideko iskanbillaetan gotzai-batzarrak zuen Azken Itza Eleizako legediari ta Onari zegokionez.

Eleizan ba-da autakunde era bat erri-ospatze edo aklamazioz egiten dena. Erri osoak ao-batez autatzen du holakoetan gotzaia. Au gertatu zan Ambrosio Aundiarekin Millaneko urian (4-gn. mendez). Ambrosio au uriko gobernari zen, kristau jator eta pakegillea, ta artean katekumeno besterik ez zela apezpikutza aulkira jaso zuen erriak.

Kristau antzifiate edo sasoi hori aipako nuke gotzaiaren urrearora bezela. Kristau erriaren atsegifekoa bear zuen izan gotzaiak. Ta parte aundia artzen zuten bai erriak ta bai eleizgizonek. Celestino 1-ngo

Aita Santuaren aburua aprobatu zuten Orleans-ko (549) eta Paris-ko (557) eleizbatzarrek: "Erriari ez ipiñi atsegin ez zaion gotzairik".

Eleizaren oitura eder eta jator hauek, ordea, aski galdu ziren ia VI-gn. menderako. Frantzia-n bereziki kristau barbaroekin, geroz ta areago Carlomagno ta beste buruzagiekin. Hauek Eleiza gaixo ta ta eroriari laguntzeko aitzakiekin, oartu gabe segurutik, geiegi sartu ziren Berari zegozkion arazoetan. Feudo aldian, berriz, jauntxoek aukeratzen zituzten gotzai erdiak baiño ere geiago.

Berrikuntza edo udaberria bat asi Gregorio VII-gn. Aita Santuarekin asi zen, "Guztieri agindu bear dien harek guztiegatik bear du izan autatua", esaera famatu harekin.

Baiño, zoritxarrez, aldi gutxian igaro zuen. Errege-gai ta jauntxoek nai zuten guzia egifnez jarrai ez zezaten eleizgizonen kargu ipiñi ziren autakundeak. Geroztik, Eleizbarrutiko batzarrak gotzaia autatzerakoan baztertu zituen ez baka-rrik erria, baita kleroa bera ere. Bestalde, Erroma-k geroz ta almen geiago jaso zituen eleizbarrutien gaindik, sendotzarako, t. a. XIII-gn. menderako ia Erroma-ren eskuetan zeuden gotzai autatzeko almen guztiak.

Arrazoi hauegatik ta batez ere, Jauntxoek eta agintarien indar-egitetik askatzearren utzi bear izan dira kondaira zear kristau erriak eta kleroak gotzaia aukeratzeko zituen parte jatorrak. Tradizio hura zen, ezpairik gabe, Yves M. Congar teologu ospatsuak dionez kristauen arteko jatorrizko etorria. Eleizako erdikotze edo zentralismu horren aurka jaiki ziren Protestantismua ta beste zenbait mobimendu, baiño, geiegi aurreraturik, Eleizaren apostoloekiko agintea bera ukatzeraiño allegatu ziren. Mobimendu hauek bide Eleiza ez da kuzkurtu baizik egin.

Gaurregun ba-dira oraindik erriaren parteartze honen arrasto batzuek Sortaldean. Leon XIII-gnak eta Pio IX-gnak Armenitarrei apezpikutzarako gogoko dutena eskatzeko baimena emana die, ta gaur oraindik ballatzen dute almen hori.

Dena dela, Eleizako tradizio barnean ez da sekula Eleiza laikoek eratzen dutenik baleztatu. Gaur gaurkoz oraindik ongi eraman ezifikoa da segurutik, erriaren parteartze hori. Esan bezela okerbideek eta eskabide ausartak ez dute moteldu besterik egiten posible litzaiken erriaren parteartzea.

Kondaira zear ondorio garbi bat ateratzen da. Eleiza askatasunean eta bere jatorrizko berezitasunari

dagokionez organizatu denean kristau erriak benetako parteartzea izan du (2).

### *Eleiza, gotzaia ta erria*

Eguneko demokrazi aidean bide eta Eleizaren izakia azalkiro begiratzan delarik Eleizako gauza berezi hauek erabat nahasi arrisku aundia ikusten dut. Horregatik, itz bitan adierazi nai nituzke: Eleiza zer den, Eleizaren eta demokraziaren ezberdintasuna, eleiz agintearen eta kristau erriaren alderdiak, izakia ta bizitza... Jakina! hau guztia eleizbarruti batean gotzaiari ta erriari dagozkien alderdiak argitzeko asmoz.

Eleiza bere aizken elburuan, gizonak Jainkoarekin eta gizonak beren artean Kristo-gan elkartzea da. Areago da Eleiza. Eleiza da baita Batasun hori lortzeko bide-bilduma ere. Beraz, bi alderdi dauzka Eleizak. Alde batetik, Alkartasun bezela Kristo-gan bizi diranen gizartea da, Jainkoaren erria edo Kristo-ren gorputz mistikoa.

Eleizaren beste alderdia, gizonak Alkartasun horretara zuzentzeko Kristo-k eratu zituen bideak dira. Bide hauek Eleizaren muiña berari

dagozkio. Ta hemen datza Eleizaren soziolojiazko erakundea. Mundu honetako edo laterri baten erakundea sustraiz, errotik esan ditekete dela eleiz-agintearen edo eleiz erakundearen ezberdina. Gure gizarteari familietatik datozkio gizonak, alkartasunean ipintzen dituzte hauek beren almenak bakoitzaren eta guziekiko onerako. Aginteari edo politikari dagokionez gizartearen almenak jasotzen ditu berorren ordezkia betetzearren.

Eleiza oso desberdinki eratzen da. Eleizak bere osakideak ez ditu familietatik artzen, ezta parrokien tartetz osatzen ere. Pertsonen gaindik eta aurretik da Eleiza, berak sortzen baiditu kristau gizon sakramentuen bidez eta apostoloekiko agintea bide.

Eleizaren bi alderdi hauek aditzera emateko Aita Congar-ek Eleiza estruktura bezela ta bizitza bezela bereizten du. Estruktura hori edo Eleizaren gorputz-ezurra da Eleizaren izakia, Alegia, fedezko dotriña, sakramentuak eta apostoloekiko aginte berezia gotzaiek bata besteari berraldatzeko karguarekin. Eleiza kondaira zear eratzeko Kristo-k emaniko agindu nagusia estruktura edo izaki horrek, besterik gabe, betetzen du.

---

(2) Ikus gotzaien autakundeari buruz, Election des eveques: —Dictionnaire de Théologie catholique, T. 4B, col. 2256-2281. —Dictionnaire d'Archéologie chretienne et de Liturgie. T. 4. 2-gn. partie, col. 2618-2652.

Eleizaren "bizitza" alderdia kristauen langintzak eratzen du estrukturari dagokion misioa ta elburua mundu honetan betetzera ta mamitzera laguntzen diolarik. Gizadiazkin eta Jainkoak erosi mundu guztiarekin osatzen baita Alkarrekiko Eleiza. Estrukturak munduko bizitza ta errealidadea osatu bear ditu, hortarako sifisleen laguntzarekin mamitu bear derrigorrez. Bi alderdiak osatzen dute, alegia, Eleizaren izatea. Baiño, aipa dudan eran estrukturak zertzen du Eleizaren izakia.

Beraz, Eleizaren izakia goitik bera dator. Ez gizarteko aginte moduak edo erri-demokraziak bezela behetik gora. Laikoez ez daukate, bada, Jerarkia, gotzaiak eratzeko edo kentzeko eskubiderik edo indarrik. Alere, egin dezakete laguntza eder eta bizi askoa. Ez laguntza bakarrik, Eleiza osatzeko derri-gorrezkoak baidira kristau laikoez eta beren langintza. Hau da lan-txo honetan azaldu nai nuena.

"Apostoluen egifnak" liburu santuan, esate baterako, garbiago adierazten zaigu kristauen arteko batasuna ta edozein erabakietarako goikoen eta bekoen alkartasuna, Eleizari goitik edo Apostoluengandik dator-kion erakunde hori baiño.

Protestanteek eta katolikoak konforme gera Antzifnako Eleizaren erakundea iru alderdiak osatua

ikusten dugularik: 1-ngo, monarkia modukoa, gotzaiena, Apostoluen ondorengoan agintea. 2-gna, Aristokratia modukoa, apaizek eta beste kontseilluemailleek osatua. 3-gna, Erriak batzarretan eta artzen zuen parte bizia.

Eleizaren soziolojiazko iru alderdi hauek gelegi alderatzea, edo elkarraren aurka ezartzea edo horietako bat Eleizaren aburu bakarria bezela eratzeta, (ainbeste herejiak egin duten eran) Eleiza osoaren alkartasun edo batasun bizia ezjakitea da.

Eleizako gurasoak ere garbi mintzo dira Eleizaren alderdi bietaz. Eleizaren alderdi hauek bear bezela elkartzen eta osatzen lanak izan ditu Eleizak kondaira zear, kristauen alderdikieriegatik, herejien arriskuegatik, t. a.

Kondaira zear gertatu diren alderdikeri ta zenbait beste arrazoiegatik Eleiza Amak bere izakia ta estruktura salbatu nai izan du gauza guztien gaifetik. Ta segurutik gaurregunerarte kristau erriaren bizitza (langintza ta parteartze bizia, alegia) komeni baiño gelago baztertuki.

Protestantismuaren edo galikanismuaren alderdikieriek Eleizaren estruktura bera ukitu zuen eta bere izakia gaitzotu azpi-lanean. Jerarkiaren edo instituzioaren aldetik ere, ordea, ba-liteke alderdikieriarik

egitea, eta gaur eguneko teologu batzuen iritzian, egin dugu erruz oraiñarterokoan. Alderdikeri honek gutxieztu egiten du kristau erriak estrukturari mamitzen dion bizia. Honek, ordea, hontan datza ezberdintasuna herejiarekin, ez du Eleiza bere izakian ukitzen, bere osotasunean baizik.

Kontzilio nagusi honetan garbi mintzatu dira Eleizako guraso zenbait. Eta Eleiza pauso aundiak ematen ari zaigu ia. Oraiñarterokoan goi-aldetik ba-zen, orain behetik, kristau erriaren aldetik osatuko da, alegia. Erriak parte aundiagoa izanen du Eleizan, Eleiza mundu honetan aragi-egitean.

Hau ikusteko Eleiz Batzar Nagusiko iritzi batzuek entzutea naiko genuke. Behetiko mobimendu hau bizitzearren Eleiz Batzarrak eratu ta agiri egin dituen agerkaiak: "Liturgiaren Kostituzioa", "Komunikatzeko bideak", "Eleiza", "Ekumenismoa", t. a. Oraindik gai bixi-bixiak dira ateratzekoak: "Eleiza ta munda", "Erlijioekiko askatasuna", t. a.

Eleiz Batzar Nagusi honetan parte berezia eman zaie laikoeri. Bai gizonezkoeri ta bai emakumezkoeri. Kontzilio honetan izandu dira gaiñera, parte artzera konbidatuak emakumezkoak, kondaira zear lehen aldiz (3).

---

(3) Lantxoaren luzeran geienik erabilli dudan idaztia: "Jalones para una Teología del Laicado" Yves M. Congar. Prantzesez eratik itzulia.

Baiona-ko Euskal Idazkaritza-k lan handi bat burutu du. Euskal literaturaren batasunerako urrats luzea. Beharrezkoa. Ondo edo gaizki emana? Ez dugu juzgatzen.

Dena dela, JAKIN-ek erabaki hauek guztiak onartu egin ditu, eta bete egingo ditu. Beraz, gaurtik aurrera, datorren alean hasita, JAKIN-en lege hauek obligatu egingo dute.

JAKIN-en nahi duenak idatzi dezake, edozein euskalki ta estiloarekin. Baiña, Euskal Idazkaritzak esana JAKIN-ek bete egingo du. Horregatik, JAKIN-era etorriko diren artikuluak arau horietara lotuko dira. Beraz, JAKIN, gure aldizkarian, idazten duena obligatuta dago lege hoen betetzera.

Hemendik aurrera, nahiz idazleak erabaki hauek gorde ez, eta artikuluak lege hoiek alde batera utzita igorri, JAKIN-eko zuzendaritzak zuzendu egingo ditu.

## BAIONA'KO BILTZARRAREN ERABAKIAK

(1964-eko Agorrillaren 29-30)

*Baiona'ra euskaldun idazleak eta irakasleak bildurik, hona hemen Biltzar-  
rarak ontzat eman dituen puntuak.*

*Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko  
eskatzen diegu; eta bereziki Euskalzaindiari egiten diegu dei bat, bere aipa-  
men guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan.*

IDAZKARITZA'KO HIZKUNTZA SAILLAK.

### IDAZKERA

“X”—goxo, xamur, xede, xekatu eta abar onartzen dira.

“sh”, “ch”, “ss”, “s”, eta abar, baztertzen dira.

“TX”—etxe, atxiki, amatxo, zakurtxo, txiki, eta abar onartzen dira.

“tch”, “ts”, “ch” eta abar baztertzen dira.

“J”—jin, jan, jario, josi, jarri, jauzi, eta abar onartzen dira. — Nahiz eta euskalki guzietan soñu berbera ez izan.

“RR”—elurra, egurra, irri, farre, zoragarri, arrunt eta abar onartzen dira. “r” baztertzen da.

Hitz bukaeran “r” idatziko da beti: haur, ur, ar, zur, elur; nahiz batzutan “rr” eman (egurra, arra, elurra), eta beste zenbait aldiz “r” (nori, ura, ora).

Elurr, atorr, zakurr, eta honelakoak baztertzen dira.

## BUSTIAK.

Palatalizazio edo bustiera deritzan fenomenua, letra bikoiztuz idatziko da.

LL — llabur

DD — Maddalen

TT — ttaka-ttaka, pittarra, aittitta, pottoka.

“l”, “d”, eta “t” baztertzen dira.

## “NB” eta “NP”

Nahiz “mb” eta “mp” esan, “nb” eta “np” idatziko da: enparantza, denbora, enbata, baldinba, eta abar.

## “IN” eta ILL”

Euskalki batean “in” eta “il”, eta beste batean “iñ” eta “ill” esaten diran hitzak, beti aurretikako “i” horrekin idatziko dira:

Baino : baiño (ez “baño”).

Oilo : oillo (ez “ollo”).

Arraina : arraiña (ez “arraña”).

## “H”

Nahiz euskalki batzuetan letra hau ez esan hitzegitean, idazkeran onartu egiten da; “H”-a gorde duten euskalkien forma eredutzat harturik: Hitz, haundi, hodei, hil, hartu eta abar.

Euskaldun askok “H” hori nun dagoen ez dakielako, epeka joatea erabakitzen da.

### 1) Lehenengo epe batean:

a) Bokal berdinen artean “H” dagonean, idatzi egingo da. Nahastu, mihi, eta abar. (Ondoren doa hitz hauetarik erabillien lerroka da bat).

b) Bi adiera nahas ditezkeanean, berealitik idatziko da “H”-kin: Hori-ori; hura-ura; ohol-ola; haur-ahur eta abar.

### 2) Epe baten buruan:

Gainerako "H"-ak idatziko dira. Baina bitarte huntan bi idazkerak onartzen dira: Hartu edo artu; handi-andi; ahizpa-aizpa eta abar.

**"KH", "LH", "NH". "SH", "PH", "RH", "TH"**

K, L, N, Ñ, P, R, eta T idatziko da: Bekatu, alaba, senar, Aifiarbe epe, eri, eta urte idatziko da; nahiz xubereraz, baxenabarreraz edo lapurteraz bekhatu, alhaba, senhar, Aifiharbe, ephe, erhi, eta urthe esan. — Erabaki hau bidea erreztutzearen alde hartzen da, eta irakurtzean zailtzen ez duelako.

**BALDINTZAKO "BA"**

Lotuta idatziko da: Baldin banator, nere amak baleki, ezkontzen bazera, gertatu balitz, baldin esan balute.

**BAIEZTUTZEKO ETA UKATZEKO "BA" eta "EZ"**

Bereiz edo aparte, idatziko dira:

Ba dakit, ba datoz, ba zekien, ba dakartzu, ba daude.

Ez dakit, ez datoz, ez zekien, ez dakartzu, ez daude.

Nahiz hauek esan, itzegiterakoan: "eztakit", "eztatoz", "etzekien", "eztakartzu", "eztaude".

**"BAIT"**

Lotuta idatziko da: Baitakit edo baidakit, baitzekien edo baizekien, baikifian edo baigifian, eta abar.

**DEKLINAZIO**

**A)**

mendi -  
mendi - K  
mendi - rI  
mendi - rEN  
mendi - rEKIN  
mendi - rENTZAT  
mendi - Z

mendi - A  
mendi - AK  
mendi - ARI  
mendi - AREN  
mendi - AREKIN  
mendi - ARENTZAT  
mendi - AZ

mendi - AK  
mendi - EK  
mendi - EI/ERI  
mendi - EN  
mendi - EKIN  
mendi - ENTZAT  
mendi - EZ/ETAZ

mendi - TAN  
mendi - TAKO  
mendi - TARA  
mendi - TATIK

mendi - AN  
mendi - KO  
mendi - RA  
mendi - TIK

mendi - ETAN  
mendi - ETAKO  
mendi - ETARA  
mendi - ETATIK

mendi - rIK  
mendi - TZAT



Hunen arabera: A, E, I, O, eta U-z bukatzen diran hitzak: baratza, zubi, aro, piku

a+a = A

a+e = E

e+e = EE

ONGI: hiru etxetan, zenbait etxeren atzean, baratzean, zubiak.

GAIZKI: hiru etxen, zenbait etxeen atzean, baratzean, zubik.

B)

haran -  
haran - eK  
haran - I  
haran - EN  
haran - EKIN  
haran - ENTZAT  
haran - eZ

haran - eTAN  
haran - eTAKO  
haran - eTARA  
haran - eTATIK

haran - IK  
haran - TZAT

haran - A  
haran - AK  
haran - ARI  
haran - AREN  
haran - AREKIN  
haran - ARENTZAT  
haran - AZ

haran - eAN  
haran - eKO  
haran - eRA  
haran - eTIK

haran - AK  
haran - EK  
haran - EI/ERI  
haran - EN  
haran - EKIN  
haran - ENTZAT  
haran - EZ/ETAZ

haran - ETAN  
haran - ETAKO  
haran - ETRA  
haran - ETATIK

Hunen arabera: a) kontsonantez bukatzen diran hitzak:

ur, zillar, haitz, ots,...

b) diptongoz bukatzen diranak: ai, ei, oi, ui,

au, eu: zelai, hogoi, gau,...

ONGI: hiru haitzetan, zombait egunetan, zelaiean, gaueko,...

GAIZKI: hiru haitzean, zombait egunen, zelaian, gauko,...

## OHAR BATZUK

1) Bizidunak (gizona, abereak, piztiak) berdin deklinatzen dira, II-ekoak ezik.

A')

seme -  
seme - K  
seme - rI  
seme - rEN  
seme - rEKIN  
seme - rENTZAT  
seme - Z

seme - rENGAN  
.....  
seme - rENGANA  
seme - rENGANDIK

seme - rIK  
seme - TZAT

seme - A  
seme - AK  
seme - ARI  
seme - AREN  
seme - AREKIN  
seme - ARENTZAT  
seme - AZ

seme - ARENGAN  
.....  
seme - ARENGANA  
seme - ARENGANDIK

seme - AK  
seme - EK  
seme - EI/ERI  
seme - EN  
seme - EKIN  
seme - ENTZAT  
seme - EZ/ETAZ

seme - ENGAN  
.....  
seme - ENGANA  
seme - ENGANDIK

B')

gizon -  
gizon - eK  
gizon - I  
gizon - EN  
gizon - EKIN  
gizon - ENTZAT  
gizon - Z

gizon - ENGAN  
.....  
gizon - ENGANA  
gizon - ENGANDIK

gizon - IK  
gizon - TZAT

gizon-A  
gizon-AK  
gizon-ARI  
gizon-AREN  
gizon-AREKIN  
gizon-ARENTZAT  
gizon-AZ

gizon-A (REN) GAN  
.....  
gizon-A (REN) GANA  
gizon-A (REN) GANDIK

gizon - AK  
gizon - EK  
gizon - EI/ERI  
gizon - EN  
gizon - EKIN  
gizon - ENTZAT  
gizon - EZ/ETAZ

gizon - ENGAN  
.....  
gizon - ENGANA  
gizon - ENGANDIK

2) **IZEN NAGUSIAK:** Ahazparne, Eibar, Maite, Itziar. II saila aldatzen da; gainerakoak, indefinidoak bezelaxe.

Ahazparne' N  
 Ahazparne' KO  
 Ahazparne'rA  
 Ahazparne' TIK

Eibar'eN  
 Eibar' KO  
 Eibar' A/ERA  
 Eibar' TIK

Maddi'rENGAN

Maddi'rENGANA  
 Maddi'rENGANDIK

Olatz,ENGAN

Olatz'ENGANA  
 Olotz'ENGANDIK

## A D I T Z A

### A) AUXILIAR INTRANSITIVO:

Yo soy

NAIZ  
 HAIZ  
 DA  
 GERA  
 ZERA  
 ZERATE  
 DIRA

Ye era

NINTZAN/NINTZEN  
 HINTZAN/HINTZEN  
 ZAN/ZEN  
 GIÑAN/GINEN  
 ZIÑAN/ZINEN  
 ZIÑATEN/ZINEZTEN  
 ZIRAN/ZIREN

Si yo fuera

BANINTZ  
 BAHINTZ  
 BALITZ  
 BAGIÑA/GINE  
 BAZIÑA/ZINE  
 BAZIÑATE/ZINEZTE  
 BALIRA/BALIRE

Yo sería

NINTZAKE  
 HINTZAKE  
 LITZAKE  
 GIÑAKE/GINTAZKE  
 ZIÑAKE/ZINTAZKE  
 ZIÑAKETE/ZINTAZKETE  
 LIRAKE

## B) AUXILIAR TRANSITIVO

Yo lo he

DUT  
DUK/N  
DU  
DUGU  
DUZU  
DUZUTE/DUZUE  
DUTE

Yo los he

DITUT  
DITUK/N  
DITU  
DITUGU  
DITUZU  
DITUZUTE/DITUZUE  
DITUZTE

Yo le había

NUEN  
HUEN  
ZUEN  
GENUEN  
ZENUEN  
ZENUTEN  
ZUTEN

Yo los había

NITUEN  
HITUEN  
ZITUEN  
GENITUEN  
ZENITUEN  
ZENITUZTEN  
ZITUZTEN

## BOKAL BAKOITZEN ARTEKO "H"

### I

aaide .....	pariente, parent .....	AHAIDE
al izan, aal izan .....	poder, pouvoir .....	AHAL IZAN
alge, aalge .....	vergüenza, honte .....	AHALGE
arra, aarra .....	bronca, querelle .....	AHARRA
ate, aate .....	pato, canard .....	AHATE
aztu, aaztu .....	olvidar, oublier .....	AHANTZI/AHAZTU
ari, aari .....	cornero, mouton .....	AHARI
bi, bii .....	grano, grain .....	BIHI
beeko, beetik .....	de debajo, den bas ....	BEHEKO/BEHETI
intz, iintz .....	rocío, rosée .....	IHINTZ
len, leen .....	antes, antérieur .....	LEHEN (astelehen)
ler egin, leer egin ....	reventar, éclater .....	LEHER EGIN
mai, main .....	mesa, table .....	MAHAIN
mats, maats .....	usa, raisin .....	MAHATS

me, mee	delgado, mince	MEHE
mi, min	lengua, langue	MIHI
naro	abundante, abundant	NAHARO
nasi, naastu	resolver, mélanger	NAHASI
ol, ola, oola	tabla, planche	OHOL
oore	honor, honneur	OHORE
oin, ooin	ladrón, voleur	OHOIN
xe, xee	menudo, menu	XEHE
zar, zaar	viejo, vieux	ZAHAR

## HASIERAKO "H" BATZUK

### II

abailla	honda, fronde	HABAILLA
abarrots, arrabots	ruido, bruit	HABARROTS/ HARRABOTS
abe	viga, poutre	HABE
aga	pértiga, perche	HAGA
agin	muela, molaire	HAGIN
ain	tan, aussi	HAIN (hainbeste)
aize	viento, vent	HAIZE
aizkora	hacha, hache	HAIZKORA
amar	diez, dix	HAMAR
an	allí, là-bas	HAN
andi	grande, grand	HANDI
aragi	carne, chair	HARAGI
aran	valle, vallée	HARAN
aritz	roble, chêne	HARITZ
artu	tomar, prendre	HARTU
arri	piedra, pierre	HARRI
edatu	extender, étendre	HEDATU
egal	ala, aile	HEGAL
egi	borde, bord	HEGI
eldu	llegar, arriver	HELDU
emen	aquí, ici	HEMEN
erbal	débil, faible	HERBAL
erdoil	roña, rouille	HERDOIL
eriotza	muerte, mort	HERIOTZA

<b>ertsi</b> .....	estrecho, étroit .....	<b>HERTSI</b>
<b>erra</b> .....	odio, haine .....	<b>HERRA</b>
<b>erren</b> .....	cojo, boiteux .....	<b>HERREN</b>
<b>errestatu</b> .....	arrastrarse, se traîner ..	<b>HERRESTATU</b>
<b>esi</b> .....	cierre, clôture .....	<b>HESI</b>
<b>ezi</b> .....	domar, dompter .....	<b>HEZI</b>
<b>eze</b> .....	húmedo, humide .....	<b>HEZE</b>
<b>ezur</b> .....	hueso, os .....	<b>HEZUR</b>

<b>i</b> .....	tú, toi .....	<b>HI (hire/heure)</b>
<b>igitu</b> .....	moverse, bouger .....	<b>HIGITU</b>
<b>iguindu</b> .....	repugnar, répugner ..	<b>HIGUINDU</b>
<b>il</b> .....	morir, mourir .....	<b>HIL</b>
<b>illabete</b> .....	mes, mois .....	<b>HILLABETE</b>
<b>iri</b> .....	ciudad, ville .....	<b>HIRI</b>
<b>iru</b> .....	tres, trois .....	<b>HIRU</b>
<b>its</b> .....	tristón, terne .....	<b>HITS</b>
<b>itz (itzegin)</b> .....	palabra, mot .....	<b>HITZ (hitzezin)</b>

<b>obe</b> .....	mejor, melle .....	<b>HOBE</b>
<b>oben</b> .....	falta, faute .....	<b>HOBEN</b>
<b>obi</b> .....	fosa, fosse .....	<b>HOBİ</b>
<b>odei</b> .....	nube, nuage .....	<b>HODEI</b>
<b>ogei</b> .....	veinte, vingt .....	<b>HOGEI</b>
<b>ondatu</b> .....	destruir, détruire .....	<b>HONDATU</b>
<b>ori, or</b> .....	ese, ahí, celui, la .....	<b>HORI/HOR</b>
<b>ortz</b> .....	diente, dent .....	<b>HORTZ</b>
<b>osin</b> .....	abismo, gouffre .....	<b>HOSIN</b>
<b>osto</b> .....	hoja, feuille .....	<b>HOSTO</b>
<b>ots</b> .....	ruido, bruit .....	<b>HOTS</b>
<b>otz</b> .....	frío, froid .....	<b>HOTZ</b>

<b>ura</b> .....	aquel, celui-là .....	<b>HURA</b>
<b>unkitu</b> .....	tocar, toucher .....	<b>HUNKITU</b>
<b>urbil</b> .....	cerca, près .....	<b>HURBIL</b>
<b>urri</b> .....	escaso, insuffisant .....	<b>HURRI</b>
<b>urruptatu</b> .....	dar un trago, prendre une gorgée..	<b>HURRUPATU</b>
<b>uts</b> .....	vacía, vide .....	<b>HUTS</b>

# OREINA

D. PEILLEN.

Europako oihan ta basoetako eize andiena dugu; horregatik **Cervus elaphus** deritzaio latíñez. Handitasun hori haren kaltetan bada, edertasunak ordea basa piztien errege egi-ten du. Betidanik, gizonak oreinari bertute nabarmenak egoitzi dizkio. Haren eriotzak ere, lauzaroan, zerbait unkigarri izan du, oreinak negar egiten omen baitzuen, hiltzean. Egitan piztiak begi zokoan glandula lodi bat dauka, hurrundik ikusi leikena, negartokia deritzaiona ta ixurki usaindun bat dariona.

Beste zer batek ere gizona mi-retsia utzi du, alegia oreinak bio-tzean ezur bat daukala. Haren bi-otz barreneko gogorreri horrek eri-tasun gehienak sendotzen ahal zi-tuen. Eizeären adarrak ere errha-tsetan gaixo asko sendotzeko ahal-mena ta indarra zeuzkan; Asian Rhinozeros-aren sudur gaiñeko ada-rrak ber zerbitzua du. Horrek ez du esan nahi bi eizeen bakantzea, bakarrik hortik dathorrela, bainan kausa bat da.

Oreinaren larruak ere aintzinean

erabilpide ugari zeuzkan. Hirotu ta usteldu ezina zen, da Aitonon Se-meen gorpuak larru horrez estal-tzen ziren edo holako batean erorz-ten.

Basa pizti horrek gizonekin dauz-katzen lotkharri arruntekin buru-ratzeko aipa dezagun gaurko egune-tan oreinak daukan arrakasta; pin-tura merketan haren itxura itsus-tua, urari begira, erakusten da. Gi-zartearen beste buruan zaldilari aberatsek, horak lagun oraino go-torki eizekatzen dakite; uko denean oreinari, zezen bati bezala ohorezko herio bat lama zorrotz batekin em-a-naz.

Oreinak ordea literaturan ta my-thologian leku bereziago bat dau-ka; europar mythu zahar bat da. Noizean pizti sakratua (donsua) da, bestean madarikatua, deabruak hartua (dongea). Sha Nameh, Per-siako Erregeen liburuan, George Vernadsky-ren arauera, irakurri lei-ke: Akwan deabrua, orein izuga-rrri, urrhe koloreko baten itxuran agertu zela, Rustam airez eroaiteko,

itsaso ertzean urean pulunpatzeko. Indiko Buddhatiarren iphuinetan orein handi bat odeiez dabil mendiko arrolla ta osinen gaindi, urrhezko argi bat gorputzetik distiratu. Bi herrialdekin hartu emanak eduki dituen Saka-Samarta jendetar-tean, oreina hain zen sakratua ha-ren hiltzea debekatua baitzen.

Gure herrietan, antzifian, oreinak arima on edo gaizto baten egoitza zirelako sinhistek izan dira. Kelten pagantasunean **Cernunnos** jainkoak piztien jainkoa dela erakusteko bu-ruan orien adar dauzka: hala ikus-ten da Gindestrup Dinamarkan, Frantzia Lutetia-ko nautes-en alta-rean, Reims-en, harri-iruditan egi-na.

Orain eguzkiari buruz bidea har-tuz, Diana-Artemis-aren harri-iru-dia gogoratzen zaigu: esku bataz orein-eme bat hatzemaiten, besteaz gezi bat bere zorrotik atheratzen duela. Eta nork ez du orhoit **Pot-nia theron** basa piztien anderea de-la Greziako Artemisa gurdia urrhe adardun orein-emek erabiltzen dio-tena? Badin Samarta, iranitar jen-dearen sinhestean Sabazioz eize-jainkoaren gurdia oreinek, erama-ten dute.

Mythua, kristotasunaren ta fol-klorearen bidez, gureganaino heldu da, Jon Done Julian-en bizitzan, eizlari errabiatuak goizean hasirik, pizti illedun ta lumadunez sarraski izugarria egin du. Illuntzean Julian zaldunari Orein Beltz handi bat bere kentearekin oihan baten er-

tzean azaltzen zaio. Ehezlarriak urri-xa ta humea erhaiten ditu, bainan orotsa ez da erortzen. Orots Beltz handiak zutik darraikio, nahiz begien artean gezi bat landaturik dau-kan. Piztia gezitariari zuzentzen da, maradikatzen du ta sarraskiaren ordaritan saindugeiari aitamak hil-go dituela hitzemaiten dio ta hil-tzen da. Julian zaldunak geroz-tik, maiz arrama oreinaren orrua entzungo du erotzeraino,, hitzeman itsuskeria asarraldi batean betetze-ko.

Frantses literaturan Flaubert-ek iphuin hau era berritu du ta Euskal Errian antze hortakoak, Jon Done Mikele, Goñiko zalduna ta bes-teen gatik khondatzen dira.

Sant'Huberto-ren bizitzan, oreina pagan zaharrekin bezala jainko-aren mezularia da. Eizlaria pekatu bidetik baztertzeko, adar artean ku-rutze bat daukala, agertzen zaio. Grezian, Agamemnon bere alhaba Iphigenia hiltzera dohalarik, erhain-keta sakratuan ordezkari Artemis-ek orein eme bat bidaltzen dio. Iphigenia altarera eramaten ta orei-na zeruan agertzen Pompei-ko orma pintura batean ikusi liteke.

Alhaba erhainketa horrek kris-tauak harritzen baditu, mythologia hurbilago batean orhoitu ditezela, Abrahan bere semearekin berdin egiter zela, ta egiteko zorian Jain-koak axuri bat ordezkari igorri zio-la. Lamaren pean dagoen eize-ordea ez da berdina, semiten axuria euro-parren oreinaren ondoan.



Oreina jendeen lekuan jartzen den moduan, jendea **oreintzen** da; hortakotz Sako-Samarten artean diote: Sozryko bein, orein zuri baten ondotik abiatu zela eta piztia printzesa ille luze ta urrhezko hegodun bat, bihurtu zitzaiola. Agunda delako printzesa, Atsamazekin ezkondu zenean, ezteietara zazpi oreinek tiratu gurdian ethorri zen. Xubero-errian, Euskal Errian, oraino bizi diren jende batzuek diote gizon bat erbi bihurtzen edo zakur bat jende itxuraldatzen ikusi dutela.

Biblian ordea, oreinak bere lekua dauka; Salomen-en maita eresian poesi irudi bat da:

Iges egik nire maite,  
Basauntz eta orein-ume  
Iduriko izan hadi.

Juan de la Cruz-ek ez ote du geroago idatziko

Como un ciervo huiste  
Habiéndome herido.

Frantzian oreinen zauriari buruz sinheste zahar bat dago —Errolan-en eresian irakurri leikena ta frantses zaharrek zioten: **De sanglier le mierre, de sèr la biere**. Basurdearen zauriak sendagille, oreinaren zauriak hobía.

Hurrunago Juan de La Cruz-ek dio Salomon-en gisara.

Saltando sobre los montes  
Brincando sobre los collados

Mi amante es semejante al gamo  
O al cabrito de los ciervos.

Gure mendietarat itzul gaiten. Robert Burnes-en gisa ote gaude?

Chasing the wild dear  
And following the roe,  
My heart is in the Highlands  
My heart is not here.

Euskalerrian oreinak izan dira; ez asko ordea ez baita pizti menditiarra, bainan gure herritarrek daukaten zintzotasuna gatik, izana galdurik izenak ere nahasten hasiak gira. Oreina emea dela ta orkatza arra diotenak badira. Bainan aintzifian **Cervus elaphus**-ari, oreina, **Capreolus capreolus**-ari orkatza, ta **Rupicapra Pyrenaica**-ri basahuntza, zioten.

Bainan hiltzen, jaten edo saltzen den ber euskaldun aragikariari izena orobat zaio. Frantziko aldeko euskaldun herrietan behintzat mediterranean natura mespretxua (Izaidiaren gorrotoa ez bada), daukate. Usorik ez denean igitzen den edozein lumadunari tiro. Ez du aspaldi auzo-herri Landesetan oreinak ehunka hil dituztela. Frantzia ipharraldean hasarrea pitzuz, bainan euskaldunak ere hegoaldetar aragikari haietarik gira.

Iratiko basoan, Xubero-errian Larraineko lurretan, orein batzu ekharririk dituzte. Herritar "ehizlari" bat hartu dute hamabi multa mereizi zituenak: lizentzia gabe, elur egun

batez, Espainiako lurretan, eize-harotik kanpo, debekatuak ziren kar-tutxekin, oreinaren aragia Frant-zirat sartu, ta Frantzian karreiatu eta eta... Erantzuna: oreina jokatu omen zitzaion. Orain Sant'Huberto-

rik ez dago oreineri pakean apur bat uzteko. Erhainketa horren egi-leak sailduaren bizitza ezagutzen zuena, zen. Etsenplua dathor gai-netik ta orain ez dira, izaki askoren gisa, oreinak gehiago sakratu.

### **DOMINIQUE PEILLEN 1964 URTEKO DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIAREN IRABAZLE**

Aurten Txomin Peillen-i eman zaio Domingo Agirre novela saria, Bizkaiko Ahorro Kaxak Euskal Akademiarekin bat egifik sortua duena. "Gauaz ibiltzen dana" deritza saria irabazi duen obrari. Juradua osatu dutenak Gabriel Aresti, Juan San Martin eta Alfonso Irigoyen izan dira eta ago batez eman dute erabakia.

Txomin Peillen Parisen jaio eta bizi dan gazte bat da, guraso zube-rotarren semea. Euskal izkuntza batua ondo menderatua du bere jatorri-ko izkera bestetatik berezientakoa izanagatik eta gairera kultura zabalaren jabe da.

Datorren urterako Toribio Alzaga teatro-sariari dei egiten da orainar-teko oifiarri berberekin eta lanak bialtzeko epea 1965 uztaillaren 20-an bukatzen da.

# Utilitarismua

PELLO M. ZABALETA

Asma ezifeko inportantzia du gai honek. Izan ere, Utilitarismuak, zerbaitearakotasun honek gure bizitzako egite guztiak, pipiak egurra bezala, jota uzten ditu. Eta ez bakarrik pertsona partikularrenak, zureak eta nereak, baizik eta laterria edo Estaduarenak, baita soziologi askorenak ere. Gaurko mundua Utilitarismo honen atzaparretan erori da, ta naiko lan handik iges egiten.

Bein, Hobbes-ek esan zuen: "Homo homini lupus", gizona gizonarekiko otsoa. Ez dakit egi edo gezur den: dakidana, gaur egun horrelako asko ba dela da. Zoritxarrez. Horregatik, honen atzetik erantsi dezadan Lacordaire handiak esana: "Aberatsaren eta pobrearen artean askatasuna da tirania, eta legea libertadea". Eta arrazoia zuen.

Beraz, ezin uka, gaurko bizi mol-

dean, estrukturatan, utilitarismua dugula nagusi. Mundu honetako gora behera latzetan, guduetan, tiranietan, utilitarismua, harako hartarako nahia dugula errege. Eta askoetan gizonarekiko beste gizona otsoa gertatzen da. Hobbes-ek ba zuen bere arrazoi puska.

Asko jendeei nere lan edo hitz zerrrenda hau petralkeri bat irudituko zaio, hor mendi punta batean illargiari zaunka ari den txakurra- ren eztula. Baiña, nik esango dut: Gaztea naiz, ta nahiz gaztea izan, begiak dauzkat, eta nere aitzinean zer gertatzen den ba dakit, dena ez badakit ere.

Eta ez da utilitarismua soziologiako soroan bakarrik ernetzen: ez, moral eta amaika bestelako gaietan ere ernetzen da, bai. Errusia-n jakintsuekin gertaturikakoa ikusi besterik ez daukagu: denak arau batzuek, trenak karril batetik joaten

diren moduan, jakintsuek ere bide bat bakarra zuten, eta handik ibilli behar. Lotsagarria.

Lan hau egitean eduki dituan liburuen zerrenda oso da luzea. Jarri ditzadan garrantzitsuenak:

LECLERQ, J. Las grandes líneas de la Filosofía Moral.

GARCIA MORENTE, M. y ZARAGÜETA, J. Los fundamentos de la Filosofía.

ENCICLOPEDIA DELLA FILOSOFIA. (Epicuro, Bentham. I. Utilitá. IV).

BALMES, J. Filosofía fundamental.

WOESTYNE, Z. van de. Ontología.

MERCIER, D. Tratado elemental de filosofía.

VILLASANTE, Aita Luis. Kristau fedearen sustraiak: Jainkoa.

HIRSCHBERGER, J. Historia de la Filosofía.

### I.—Kondaira apurrak.

Hasi nadin, bada, ta hasi nadin barkazio eske. Erabilli behar izango ditudan hitzak mingarri gertatuko zaizkie batzuei. Ez daukat beste erremediorik, ez naiz hitz-asmatzaillea, ezta asko irakurria. Ausarta, bai, dextente.

Norma bat badago, arau bat, moral araua. Eta moral arau hori bitakoa izan ditekete. Bata norberak eratua; bestea gauzak eta gizonak eta lege naturala, eta Jainkoa, kontuan edukita, —bakoitza

bere eskariekin—, egíña. Bata subjektibua; bestea objektibua.

Subjektibua bat ona da, bestea berriez, neguko otza baiño okerragoa. Jarri nezake hemen filosofo sail bat, aldrebeskeri majoak bota duen sailla. Luzea, noski. Baiña, besteak beste, to batzuek.

Utilitarismuaren aita bezala Bentham jarri izan oi da. Baiña, utilitarismuaren sustraiak barruagoan itsatsiak daude. Zaharragoak dira. Griegoen artean ba ditugu batzuek. Eman dezadun bat. Denok ezagun dugu, eta asko puntuetan maixu hartu ere bai: Epikuro. Nork ez du ezagutzen? Txerriei ere epikuro deitzen zaie sarritan. Eta txerrien moduan bizi ta jaten dutenei ere berdin.

Baiña etzen horrelakoa izan. Askozaz ere txukunagoa, fiñagoa ta apaiñagoa izan zen. Bai, hori bai, berak dionez, gizonak dena zerbaiteko egiten dute. Eta horretan arrazoia zuen. Zerbaiteko, izan ere xede gaberiko gauzarik ez da egiten; gauza edo egite hoiel alperrikoak deitzen diegu euskeraz. Eriotza ere beste txepelkeri bat: Etorri artean ez da etorri, ta etorritakoan, ez dugu sentituko, une bat baida, eta igarotakoan ia ez gera gu biziko. Beraz, hil, edo ez hil, berdin.

Eta Jainkoa? Obeto, Jainkoak? Erak ere gure moduan dabilta. Hemen kontuan eduki behar dugu griegoan mitolojia: adibidez, Marte ta Venus-en arteko maitekeriak; Jupiter-enak, Helenaren maiteke-

riagatik ahata biur zeneko haretan. Eta amaika horrelako. Ikus honetarako Homeroren Iliada ta Odisea, argi ikusten baidira han jainkoen grifnak. (Au ere utilitarismua zen: herriaren grifnak jainkoei, eredu ziren jainkotxo haiei erantsi. Zeozertarako izango zen).

Hiru motetan banatzen ditu Epikuro-k gizonaren gurariak: 1. Naturalezaren beharrezko gurariak, hala nola, jatea, edatea, lo egitea. 2. Naturalezaren gurariak bai, baiña ez behar-beharrezkoak; adibidez, maitasuna. 3. Gero, ez beharrezko, ta ez naturalezarenak: ondasun nahia, t. a. Lenengoak, ase egin behar dira, beti. Bigarrenak, lanik ematen ez badute, ase hoiak ere. Irugarrenak gaiztakeri bat dira.

Beraz, Epikuro-k nahi zuena ta billatzen zoriona zen, eta zorion hori etzen nunai arkitzen: Nun min gutxien, han zorionsuen.

Jarri ditzadan orain beste batzuek. Hasteko: Tomas Hobbes: "Gizonaren lehen egoeran utilidadea, norberaren gogoa zen legerik nagusiena". Eta aurreragoan: "Latterria da zuzenbidearen iturri bakarra, baita moralarena ta erlijioarena ere" Hemen daukagu totalitarismu guztien zimendua. Bai, Frantzia-ko Luis XIV-garrenak ederki esan zezakean gero "latterria ni naiz", eta orduan nahi zukeana egin. Bere gogoa: ume mixkifnak berea egiten dakien bezelaxe. Honenkin, gizonaren berekoitzasun ab-

solutu honekin konpreni genezak lehen aitaturako "Homo homini lupus" hura. Izango ez da, ba?

Jhon Locke ez duгу hain lardatxa. Honek beintzat gizadiarekin begirune pittin bat ba zuen. Horregatik, ezin esan genezake hau zero utilitarista denik. Bai, utilitarista da, baiña gizadia maite du: "Zertarako? —dio— Ez guretzat bakarrik, gure baietza luzeago baita askotan".

Eta orain utilitarismu honen aita bezala izendatzen dena, ikutu dezagun. Apurtxo bat eta llabur.

Jeremies Bentham. Morala matematikas, zenbakiztia (hau hitza, demontre!) bat da. Gaitza uxatu eta plazerra (Axular-ek ere ba dakar hitz hau) ugaritu. Moral gaitan arau bakarra norberaren ona edo gizartearen etekifia da. Eta zer da gizartearen protxu hau? Norbera askoen suma luze bat besterik ez; ur tanto askoek pitxar bat ur egiten duten bezala, notin edo pertsona partikular askoen utilidadeak gizartearen etekin orokorra osatzen dute. Izan ere, gizon baikoitza askoek egiten dute gizartea.

Kontaduria bat da morala: "Ona sartzen dena da, ta gastatzen dena, txarra". Beraz, zorion atsegin geiago eta orduan eta zorionsuago. Jhon S. Mill-ek berriz, hau ez dagoe la ondo, dio, ez zeinbat begiratu behar da, baizik eta zelako.

Utilitarismuaren kondaira zehar, puntu pare bat besterik ez ditugu ikutu. Oraindik luze jardun behar-

ko genuke, ez baidira sistema asko utilitarismu hutsa baizik. Zer dira, izan, Komunismua, Kapitalismua, Nazismua, Faszismua, ta antzera.ko ismu guztiak? Utilitarismuaren semeak. Eta majo gizenduak, alajai-fietan.

Berdin da norberaren edo gutxi batzuen ona legetzat hartzea, eta beste gizakide guztiei ezartzea. Hortik gutxi batzuen proxua dator bakarrik. Beste denak haien menpean, haien sabelen mantengatzaille, esne beiak gobernatzan diran moduan, betere lanik egin gabe biziaz. Beti esango dute: Gu herriaren izenean ari gera, eta gure nahia herriarena da. Irakurri honetarako George Paloczi-Horvath-en Mao Tse-tung, eta entzun haren hitzak. Argi ikusten da han nor den herria, eta herria nola ezi behar den. Ikus eta ikas. (Oraingo onetan zer ez den egin behar).

## II.—Egi ta On

Orain metafisikarekin jardungo dugu apur batean. Llabur, hain zuzen. Metafisika gai eta errealdadea batzuentzat tximifilko kea bezala da: kanpora ez badoa, min ematen du. Beraz, llabur. Eta sartu nadin Egiarekin, eta Onarekin. Gero, hemendik errezago eta garbiago ikusi ahal izango dugu Utilitarismuaren faltsokeria, ta guzurra-ta.

To, bada, Metafisikaren harri koskorra.

Egia bat da, bakarra. Beraz, egia bat izaki, ezin gai baten gainean iritzi ezberdin guztiak egi izan. Horregatik, bat izango da egia, ta beste guztiak izango dute beharbada egi puskaren bat; baiña, egi puska horren gainean edo azpian zabarkeri asko. Baiña —hau inportantea da— bat izango da han egi puska, eta egi puska hori billatu eta onartu egin behar dugu.

“Conformistas rei et intellectus”, dio Z. van de Woestyne-k bere liburuan. Bai, horixe da. Guk gauza ikusi behar dugu; eta nola den, hala. Ez da, hain zuzen ere, guk gauza gaizki ikusiarren gauza aldatuko. Gure begiradak zuzena eta gauza hari dagokiona izan behar du. Bestela, kale egingo dugu, ta egia beharrean gezurra arkituko. Baiña, egi horren ikustea guk egiten dugu, pertsona libreak, eta adimen exkaxez jantziak geranok. Beraz, ifiolaz ere ezin genezake egi osoa konpreni eta hartu, egi mutur bat baizik, eta egi mutur horrekin jakatu. Batzuek, egi osoaren mutur hori bera ere gaizki hartzen dute, eta gaizki konprenitzen.

Gaifera, egia guk hartzen dugularik, gure moduan hartzen dugu: “Quidquid recipitur, ad modum recipientis recipitur”. “Kanpotik jasotzen den guztia jasotzen duenaren modura jasotzen da”. Beraz, baikoitzasun bat du egiak. Baiña gauzatasun, objetibutasun hori billa-

tzen badugu, eta noizbait lortzen badugu, eta gauzak diren moduan ikusten baditugu, orduan izango gera bat, eta orduan jokatuko dugu behar den modu zuzenean.

Ta Ona? (Onatasuna jarriko dut). Ba, ona guztiak nahi duten hura da: "Bonum est id quod omnia appetunt". Guztiok zoriona nahi eta billatzen dugu. Zorion-egarri. Baiña, onatasun honetan bi mailla berezi genitzake: bata subjelibua, eta objetibua bestea. Gauza guztiak dute beren Onatasun zatia. Denak dira onak, denak bat, eta denak egizko diren modu berean. "Ens et bonum convertuntur" —dio metafisikak: "Izatea (dena) eta ona itzuli edo bat eta bestea berdina dira". Horregatik, gauza guztiak dira onak.

Baiña, ona hori aparentea, azalekoa izan ditek. Gaitza "Privatio boni" zertu izan oi da, Onatasunaren palta izatea, behar lukean onatasunaren palta izatea. Horregatik, asko gauzak hori daukate: behar luketena ez eukitzea. Ta hori da gaitza edo txarkeria. Ez eukitze hori gauzak ikusi eta erabiltzen dituanagan gertatu ditek, eta gauza beragan. Hain zuzen, gauza guztiak dira mugatuak, baiña hori, mugatuak izate hori dagokie, eta beren esentzian edo izate moduan etzaie ezertxo ere palta. Edo, pertsona batek ez dauka gauza bat ikusteko almen osoa, edo gaizki ikusten du. Hau bere erruz delarik, hor, pekatua: Gauza mugatuak, muga gabe-

kotzat hartzea, ta hori norberaren kulpaz. Izan ere, gizonari egia dago, eta gauzak gaizki ikustean, berari tokatzen zitzaiona, palta zaio: egiaren palta, gauza onak txar biurtzen ditu, hau da, dagoien onatasuna kentzen die.

Esaten ari naizenez, denak nahi dute eta behar zoriona. Ta zorion hori bitakoa izan ditek: mugatua, ta orduan ez du ifioiz gizona aseko; edo muga gabea, ta orduan aseta geratuko da gizona. Ba dakigu Jainkoak bakarrik ase dezakeala gizonaren egarria.

Beno, ba. Orain hasi gindezke utilitarismuaren arauak aztertzen. Ta horretarako, bereiz dezagun atal hau beste soro batzuetan.

### III.—Xede ta xedeak

Mundu honetan gauza guztiak dute beren xedea, zeozterako egiñak dira. Horregatik, bi xede dituzte gutxienez. Metafisikarekin hasten bagera, han hiru ikusten ditugu. Baiña, utzi dezagun metafisika alde batera, lehen ere aspertu baigaitu galanki. Halare, utzi aurretik hartu dezagun handik definizio hau: Xedea da: "Id cujus gratia aliquid fit". Hau da: Zer bat egitera bultzatzen duen hura da xedea (1).

(1) Oso da zailla horren hitz gutxitan ematen den definizioa euskeraz jartzea. Horregatik, nire itzulpena ez dela zeatza esan behar dut.

Ta hemen ondo kontuan jaso behar dugu hauxe: Xede horietan bi hartu genitzake: Azkena, denetan azkena, guretzat eta egitan, Jaungoikoa da; ta erlatibua: hau da, beste xede batekin kidesasunen bat duena.

Utilitarismuak zer egiten du?

Utilitarismuak norberaren nahia, beharra, guraria xede bakar bezala jarriaz; edo norberaren etekiña, protxua ta ona legetzat ezarriaz; edo, talde baten nahi, burua ta iritzia erabaki bakartzat onartuaz, xede hauek guztiak azken xedetzat ematen ditu, egiazko azken xedea —Jaungoikoa— handik kenduaz. Eta ez bakarrik azken xedea, baizik eta ondoan bizi direnen xede edo jomuga guztiak ere ankarzgora botatzen ditu. "Latterria ni naiz", ta besteak bijoaz nahi edo ahal duten lekura. Ta orduan gertatuko da: Ez dakit nungo kondeak Luis XIV-garrenari galtzak ekartzen zizkiola; ta beste batek, auskalo zer.

Azken xedea bat da. Ta bakarra. Beraz, utilitarismuak azken xede norbera jartzen du, ta norbera asko izaki, hortik jaioko zaizkigu mundu honetan ikusten ditugun hainbeste petralkeri.

Geroago ikusiko ditugu kaso batzuek, eta han argi azalduko da zer ta nola diardun utilitarismuak. Nola Nietzsche-k esana ondo betetzen den: "Hasieran indartsuak ziren jabe; geroago, etorri zen Kristo ta biak parean jarri zituen, txi-

kia, behekoa, argala, indargabekoa aipatu zuan; hau da kristautasunaren pekatuarik handiena".

Utilitarismuak bidea etxe egiten du, eta erdiko xedea azken jomuga.

Gauza guztien eta gizon guztien xedeak: Ona ta egia dira. Ona ta egia objetibuak, alegia. Ta esan dugunez, ona ta egi hoiak bakoitzak neurri batean jasotzen ditu, eta bera dagoen tokitik ikusten eta maitatzen eta ulertzen ditu. Baiña, ba dakigu baita, guk bakoitza bat geranok ez daukagula egi osoa, ez gerala egi ta onaren jaun eta jabe bakar. Beraz, besteak ere ba daukatela beren zatia.

Utilitarismuan, ordea, ona ta egia, subjektibu moduan jasotzen ditugun ona ta egi objektibu hoiak, zerao objektibutzat hartzen dira, norberak egi ta on oso ta egiazkoak baltu bezela. Edo bestela, eszeptizismo handi batekin, egi ta on hoiak guretzat soro itxiak balira bezala.

Orduan gertatzen da ifoiz ere gertatu behar ez litzakena: Mao Tse-tung jaunari gertatua: Nik dut arrazoia, eta zuek, nerekin lanean ari zeratenok, ez dakizute ezer. Mao Tse-tung-ek beretzat hartu behar litzuzke hitz hauek: "Herria ni naiz". Ta hauxe egiten du.

Honi esaten zaio subjektibuen objektibatzea. (Hau hitz pare! Barkatu, bai. Nik pekatari honek...!) Norberak somatzen duena besteak somatu eta ikusi behar duela ustea, eta gaifera nik ikusten dedan moduan dela ustea. Hegel-en hura:



“Mundua nik esaten dedan bezala ez bada, izurra dedilla” Jainkoa ote zen?

Denok zoriona nahi dugu. Lehen, gurea, ta gizarterako izaki, gero besteena. Baiña, zorion hau nola ta nundik lortu? Plazerretan dagoela uste izaten dugu sarritan, eta handik joaten gera. Baiña, zorionez, ez dute mundu honetako gauzek ez gizadiaren ez gizonaren bihotza hasetzen: mugatuak dira, eta gizonak neurri gabeko zerbaiten beharra nabari du barnean. Agustín daunarena “Urduri dago ene bihotza, zuga atsedan hartu dezan arte”. Izan ere, neurririk ez duenik bat bakarra dago: Jaungoikoa. Hortik joan behar dugu. Hau ikusteko irakurri A. L. Villasante-ren “Kristau Fedearen sustraiak: Jainkoa”.

Halabearrez, gure zorion-egarriaren iturriak ere derrior jarri behar zituan zorion hori irixteko arauak, legeak eta bide zuzena. Ta ez du hori gizonaren eskuetan utzi, gizona aldakorra baita, ta gainera ez baiditu gizonak gauzak beren osotasunean ikusten. Horregatik, bera dugu moral-legearen egille, asmatzaille ta xede.

#### IV.—Bide zuzena.

Moral gaietan bide zuzena zein den ia onezkero asmatu dugu: Jaungoikoaren izate modua bera. Aldaezifia, infinitua, alguztiduna, guztiz jakintsua, ta beste Jainkozko tasun guztien jabea...

Honi buruz, Duns Escoto-k galde-

ra hau egiten du: Ta Jainkoak eman duen legea, alda ote dezake? Korapillo hau askatzen ez naiz geratuko, izan ere lehendik aski nabillu, aski astun. Baiña, hau esan gabe ez naiz ixilduko: Nik ematen dedan asmazioa da, Escoto berak eman zuena ere ez dut ezagutzen. Jainkoak ezin du oraingo araudi edo moral-lege talde hau aldatu: Bere izatetik, bere esentziatik datorren ura da, ta hau dena aldatzeko Berak ere aldatu beharra izango luke; orduan ez litzake Jainkoa izango, aldakorra litzake-ta.

Hemen beste korapillo bat topatzen dugu: Ta nola izan diteke, ba, Eleiza katolikuan bertan ere legeak eta moral pontuen soluzioak aldatzea? Honela: Jainkoa erabat da jakintsua, ta bere jakiturian gizonaren kontzientziari eboluzio bat ezarri dio. Horrela, gaur ikusten ez duguna, bihar ikus genezake. Bestela, lehen esan dugunagatik, gauza eta kaso guztien esentziak ezagutzea eskatuko liguke. Ta hori, Jainkoak bakarrik lezakeana da. Hemendik: Ezin duena, ezin dezaioke Jainkoak ifiori eskatu: Hortaz, ez digu guri ere guzti-guztia jakitea eskatuko. Hemen, bada, Moral-gaietan Eleizaren aurrera bidearren arrazoia.

Garai batean esklaboak ondo zue dela uste zen. Orain ez horrelakorik: Horregatik India'n gertatzen dena gaizki dagoela diogu. Baita langileen arteko zerak daudenean uztea ere.

Garai batean, kolonialismua ondo zegoela eta beharrezkoa zela esaten zen. Gaur ia ez du ifortxok ere horrelakorik uste, zenbait nazioetan hori egiten bada ere, hala nola: USA, Ingalterra, Frantzia, t. a.

Moral gaietan bide zuzena egiten duten bi elementuak ia jarri ditut: Jainkoa, ta norberaren konzientzia. Jainkoa mintza zaigu: "Sarri ta era askoetan mintza zitzaizen gure asabei profetaen bidez: Oraintsu, egun hauetan bere Semearen bidez hitzegin digu guri" (Hbr. I, 1-2). Baiña Jainkoa ez da ixldu: Oraindik ere entzuten dugu bere abotsa, bere deia: Eleizak ematen digu Haren hitzaren berri.

Baiña, gutariko bakoitzarekin hartu -emanak izateko, lege-morala aditzera emateko Jainkoak gizon bakoitzaren barnean kontzientzia jarri zuen. Ta noiz zer egin, ta noiz ta nola jokatu kontzientzia honek esaten digu. Norbaitek esana dakit: Kontzientzia Jainkoaren altaboza omen da. Ez dut esango ejemplo hau ondo jarria dagoenik, baiña, tira, hainbestean dago: Hain zuzen, kontzientzuak, Jainkoak erabakia, agertzen digu.

Ditekeana da kontzientzia hori gaizki formatutakoa izatea edo hondo eratua ez egotea. Orduan ere, kontzientziak digunari jarraitu behar diogu, baiña beti, gauzak ixturriatuaz, eta kontzientzia oker hori zuzenduaz.

Izan ere, ezin diteke lege moralaren oifarrria gizonagan ezarri, aldakorra baita gizona, ta gaur bai ta bihar ez. Horregatik, zimentarri horrek aldaezifiekkoa, izan behar du. Ta aldaezifia, bakarra, Jainkoa da. Gaiñera, Onatasuna ta egia biltzen ditu gizonak: Bi hоек lortzeko bide egoki bat arkitu behar du. Ta bide hori Jainkoa bera da, ta bere legea: noski, Jainkoa bera da Ona ta egi osoa.

Hemen datza lege moral zuzenaren oifarrria.

\* \* \*

Halare, mundu honetan horrela eratuak ez dauden milla gauza ikusten ditugu. Tirania, adibidez. Ikus dezagun Hitler. Gizon handia, azkarra, boteretsua. Baiña, begira zer egin zuen: Bere partidua, nazismua, ezarri zuen, eta etzion beste ifortxori ere entzuten; eta norbaitek bere kontra hitz erdi bat esaten bazuen, edo bere ustean gauza desagoki bat aitatzen bazuen bereala zen kartzeletako illunbetan, trapu zaharrak koarto illunera botatzen diran gisan. Zer esan nahi du honek? Lege morala berak egin zuela, ta ona berari zegokiona zela, eta beste dena ez. Nietzsche-k esana betetzen zen: "Handiak ahal duena, huraxe da ona". Ta horixe bera agindu zuen eta horixe bera baita bete.

Bi hitzetan, hona Irlanda-n gertatua: Sartu ziren inglesak, eta in-

darrez hartu. Gero, haren gainean irauteko, jenezidio ikaragarri bat: Herriaren hizkuntza baztertu, hil zedin. Dena, beren interesak aurrera eramatearren. Ni jabe, ta hi gabe: Nik derizkiotena ondo dago, eta horretarako bide okerrak ere zuzenak dira. Aurten irakurri dut "Il Principe" Maquiavelo-k egiña: Honek bai egin zuela Utilitarismua: "Elburua lortzeko, bide guztiak onak". Ta Napoleon-ek oraindik: "Moralista sartu haiz, Maquiavelo" —dio nota batean. Txikitxo utzi zuen Maquiavelo. Gaurko politikaren enblema.

Ta amaika horrelako. Ez dezadan izenik eman, bestela gaurko politiku geientsuak jarri beharko ni-

tuzke, ta ez gaurkoak bakarrik: betikoak, kondaira osoa, saillean.

Hainbeste ta hainbeste eriotz eta gudu, jenezidio: Dena hemendik. Ta gaur ere berdin: Indartsua jabe.

Hemendik sortzen da "Gizarte pekatua" deitu izan den errealidadea: Hainbeste pekatu jeneralek pekatuzko egoera bat sortzen dute, batez ere pekatu hoiek herrien eta erresumen jaun direnak egiten ditzutenean. Totalitarismuak: Norberaren burua besteen aburutzat ezartzea: Gauzak anakaz gora uztea, bide okerretik moskorren moduan ibiltzea. Utilitarismua: Nere gogoa errege; ta, bideak, okerrenak, oberenak.

*Quarentem nemo reprehendit iuste, si tamen in fide firmissimus quaerat. S. AGUSTIN'ek: De Trinitate I, XV, 28, 51.*

*Egibilla ari danari iñork elioke errietarik egin bear siñesmen sendukoa ba'da.*

Idazteunerako Aita Santuaren Batzordeak, orain illabete batzuk (1), argitaratu zun idazti bat Ebanjelioen isturitasunaz. Aldi bertan Frantzi'n Aita Xavier Leon Dufour s.i.'k azaldu zun beste liburu bat gai bera erabilliaz. Eta banaka banaka artikulu ta idazti asko gai berari buruz. Oso gaurkoa degu, bada, atzalgai au. Eta garrantzi aundikoa, jakifia.

\* \* \*

Ez dut uste<sup>1</sup> gauza berririk esango dutanik, baña, bear bada, bai bateratu or ta emen arki ditutan siñespide edo argumentu batzuk. Ez takit ere nolako indarra dutenik. Obeto esan: badakit danak indar berdifeko siñespideak ez dirala, baña ez diot oraindik antzik ematen nolako ezperdintasuna dutenik. Orregatik siñespide bakoitzaren indarra bakoitzak pentsa ta bereizi beza.

Beste oartxo bi oraindik: lenena, ezarkifian azalduko detala laburki badare, nola ulertu bear dan Ebanjelioen isturitasuna. Bigarre-na, Joan'en Ebanjelioa oraingoz,

(1) Ecclesia n, 64'ko V'ko. 30'ean. 738-738 orrialdetan dago agiri osoa.

## EBANJELIOEN

## EGIAZ

BAZTARRIKA'TAR DANIEL

—askoz ulergaitzagoa baitda—, alde batera utziko detala.

## EBANJELIO USTARIEN KONDAIRA

Irizpidizti edo kritika, batez ere, Frantzi'ko Ilustrazioa deritzan aren aldian jaio zitzaigun. Kontu euki dezagun, bada, sorleku ta asiera au.

SPINOZA, judua, izan gendun Ebanjelioak aztertu zitun lenenetakoa. Bere iritziz sortaldeko idazkeraren eredu bat besterik ez dira: beti erlijioa toki guztietan ikusiaz eta arrigarria dan guztia miraritzat joaz. Orregatik, bada Ebanjelioko mirariak-eta ipui batzuk besterik ez dira.

Kristauen artetik, —protestantea izan zan bera—, REIMAR degu lenen Ebanjelioen kontra asi zana. Kristo gezurtitzat salatzen du “irizur ustaria”, —teoria del fraude, gazteleraz—, asmatuaz. REIMAR'en iritziz Jesukristo gezurti bat besterik etzan izan. Judai'ko errege izan nai izan zuan, baña gauzak oker atera zitzaizkion eta erail egin zuten. Gero, bidali edo apostoluak Kristo'ren gezurren jarrai zioten obeto bizitzeko asmoan, eta orregatik asmo gaiztoz Ebanjelioak idatzi.

Etzan erreza kristau onak ustari oni jarraitzea, eta orregatik Reimar'en ustaria osorik jaurtitzeko ustariaren utsuneak betetzeko, GOTTLÖB'ek Izadi ustari deritzana, —teoria naturalista, gaztei-

eraz—, bota zun mundura. GOTTLÖB'en ustez Ebanjelioko danak izadia eredu erabaki ta adierazi bear dira. Esate baterako: Jesus ur gañean ibilli zanean, ur gañean omen zebillan arkaitzetan zebillalako. Eta Petri'ri ondorentxeago eraso zionean fede gutxikoa zalako auxe bakarrik esan omen zion: “Petri, ortik ez. Arkaitzetik ni bezela, bestala ondoratuko zera len bezela berriz ere” (j?).

Ustari oei bide berri bat STRAUSS'ek egin zien. Sikolojia oñarriztat jarririk, Alegi ustari, —teoria del mito, gazteleraz—, asmatu zun. Erlijio baten asmatzalea, dio berak, iltzen danean bere jarraitlleak zeruratu egiten dute. Orixe bera gerta omen zitzaien lenengo kristauei ere. Bi oztopo aurkeztu zitzaizkion baña: Nola ziteken ain aguro alegi aukeratu? Eta nola ziteken juduen artetik sortu Jainko irukotxa, edo ta beintzat bikotea? Bere ustaria aurrera eramateko, ordea, Nizea'ko Konzilioraño atzeratzen ditu Itun Berriko idatzi batzuk eta...

Oso egunekoa zala Hegel sortu zan Tubinga'ko Ikastola. BAUR izan zun eraikitzailea. Hegel'en ustari irukotxari jarraituaz, berak ere iru zatitako aldakera bat Ebanjelioen ispillu jartzen du: Lenengo, judu joera bat izan omen zan ikasleen artean, Petri'k erakutsia. Ondoren jentill joera, Paulo buru zutela. Eta azkenean biak batu omen ziran. Lenengotarren ebanjelaria

Mateo izan zan, bere ustez. Lukas bigarren joerarena. Eta Markos'ek batu omen zitun etsai biak.

Naiz eta asko erreztu, ustari auek onelakoak diralarik, ara geiena eragin dun ustaria. Ustari onek batzen ditu, edo gutxienez beintzat, aurreko ebanjeliozaleen oztopo ajolatsuenen bilduma egiten du. Orregatik BULTMANN'en ustariako korapilloak azkatu edo ebakitzen ba'ditugu, Ebanjelioen egia, isturitasuna, argi ta garbi azalduko zaigu.

### **BULTMANN ETA ENTMYHOGISIERUNG**

BULMANN'ek batez ere Strauss'i jarraitzen dio. Orregandik dator kio bere Alegi ustaria. Eta beste puzka bat era isturiari, —historia de las formas—, zor dio.

Ustari au ondo ulertzeko iru lengai edo elementu gogoan euki bear ditugu:

a) Ustarian ertsita dagon era isturiaren azterketa.

b) Filosofi sustraiak. Batez ere adimenkeri edo razionalismoa eta dankeri edo esistenzialismoa.

d) Eta asmoa. Au da, gaurko eraz Ebanjelioa aditzea.

Alegia, berriz, onela adierazten digu berak: Alegia da "mundukoa eztana, munduko era azaltzea... Jainkoaren urrutitasuna, traszendentsia, urrutietan bai lego jartzea... Eta Jainko gurtza: gogozkoak irixteko gogozkoak eztiran egintza batzuk".

Orregatik ondo berezi bearrekoak dira asmoa, —orain dana—, eta kerigma edo irakaskintza, —esaera, gure asateko eran; alegia, Bultmann'en mintzaeran—.

Adibidez: Gizona munduari geiegi lotzeko arrixkuan bizi da, aragi munduari itsasita, Itun Berriak dionez. Baña, munduari gizona lotzen danean, gizonak nortasuna, beretasun sakonena galtzen du. Orduan, nolabait, bere burua azka bearean dago. Nola baña? Sifismentaren, fedearen, bitartez. Eta segurutasuna bakoitzaren segurtasunari uko egitea da: Jainkoaren graziari bere burua eskeintzea.

Onela, bere ustez, graziak pekatua barkatzen du, eta gizona, pekataria, azkatu, erosi. Graziak benetako izatera atera zabaltzen dio gizonari, pekatu ikusten danari eustea besterik ezpaita.

Beraz:

1.—**Kristo'k ez gindun bere Odolez erosi**, —au alegi bat besterik ezta—, Kristo'k oso osorik Bere Burua Jainko eskuetan jarri zun. Egintza oni deitzen diogu Erosketa edo Rederzioa. Onela guban ere egiztuko da Erosketa: geure buruak oso osorik Jainkoaren eskuetan jartzen ditugunean.

2.—**Kristo'ren Berpizkundera**, berriz, gure biotzetan oraindik ere Kristo bizi degula edierazten digun alegi bat besterik ezta.

3.—**Kristo nolakoa zanik benetan eztakigu.** Lenengo kristau bazkulari etzizaion ardurarik gauza au jakin ala ez. Guri ere etzaigu ajo-la bear. Naikoa degu Kristo'k zer erakutsi zigun jakitea. Orregatik siñismeneko Kristo'tik berez izan zaneko Kristo'ra eztago biderik, pasaezifieko amiltegi bat daukagu bi-tartean eta ezin genezake jakin segurki Kristo nolakoa izan zan.

4. — **Ebanjelioak siñismenaren egintzak dira.** Siñismenetik siñis-menerako, —ex fide ad fidem—, sor-tuak. Eta ez egitiak, —isturiari da-gokionez, jakifia—, ez asmoz, —si-nismena elburu baitzuten—, ezta idatziz ere. Isturia eta sinismena ezin ditezke batu, elkarren etsai amorratuak dira-ta. Siñismendunak naita ere ezin lezake isturirik egin, bere sasiustez isturia naasiko baitu-du.

5.—**Ebanjeloek ez dute egille be-rezirik.** Lenengo kristau fededu-nak danen artean asmatu, egin zi-tuzten, Kristo siñistu zuten, eta orregatik, bere siñismen utsez Kris-to beren eran eratu. Eta eratu ere ez nola nai: Lenengo kristauak Pazku zorionetik gauzak erabakiaz egin zituzten Ebanjelioak. Kristau lenengo oen bazkuna asmatzallea eta errikoia zan, bada.

## **EBANJELIOETAKO ISTURIA**

Azka bearreko korapillo gogorren eta naasiena auxe degu: Nola igaro

siñismeneko Kristo'tik isturi'ko Kristo'ra dagon amiltégia? Ontara-ko Isturi Erari ekingo diogu, “desalegiketa”, —desmitologización, gazteleraz—, baño gogai edo ideia zabalagoa baitda.

Ortarako oraingo, —ez dut esa-ten egiak diranik ala ez—, ontzat artuko ditugu xedera irizteko BULTMANN'en aterakizun auek:

a) Aurretik egiñak edo asma-tuak zeuden zatiaz egindako bildu-mak dira Ebanjelioak. Eta, jakifia, kristau bazkunean sortuak.

b) Kerigma, —irakasketak—, di-ra; ez benetako kondaira edo istu-ria. Eta idatzi ere, Pazku alaita-suna bide idatziak.

d) Eta azkenean eztitzagun Ebanjelioak benetakotzat artu. Au da: Jo dezagun Ebanjelariak etzi-rala ez Markos, ez Mateo eta ez Lukas. Liburu askotan bide onta-tik joan oi da siñispidea, baña soi-llik Ebanjelioen egitasuna probatze-ko aski eztalakoan nago. Siñispi-de orrek egintzak gertatutakoak be-zela damazki, bai, baño ez ote da gero ori kontatzeko, irakasteko bide-ren bat, Bultmann-ek-eta diotenez? Kristo berak ere sarritan alegin bi-dez irakatsi zien ikasleei, eta len aitatutako ebanjeliozaleak alegien-da bidez irakasten dutela zeru bi-dea diote, ebanjelariak.

Auek onela diralarik, iru gauza egizatzen ba'ditugu, naikoa dala elburua irixteko usten dut. Auek dira:

1.—Ebanjelioak sortu izan zira-neko kristau bazkun artakoak

- a) bene benetako ardura zuten gertaerak, gertatuta bezela jakiteko.
- b) bazkun ura etzan edozer muduz gauzak asmatu ta egiten zituna.
- d) zeukaten sifismenak, kristau sifismena dalakoxe, etzun sasitu, iruzurtu, kondaira, naiz ta pittin bat gauzak aldatu ba'zitun ere.

2.—Ebanjelioen barren azterketan arkituko dugu gauzak kontatzeko nolako ardura zuten, naiz ta idazkerari apolojetika usairen bat nabaitzen ba'diogu ere.

3.—Ebanjelioei, azkenean, beste barren azterketa bat egiten ba'diogu eta beste garai artako idaztiekin berdindu, —apokalipsis eta apokrifoekin da—, ikusiko dugu nolako isturi gogo jatorra duten Ebanjelioak.

Auek guztiak ondo arrotu ta ausnartzen ba'ditugu, orduko beste isturigilleak eta, —esate baterako Tazito ta Tuzidides'ek—, ez bezelako isturimena, indarra, dutela Ebanjelioak garbi geldituko da (2).

## 1.—KRISTAU BAZKUNAREN ISTURI GOGOA

Itun berritik kanpoan eztitugu

(2) Noizkoak eta zenbat eta diran lenengo eskuidatzia eta jakin nai dunak, artu beza gai auek darakilzkin edozein idazti.

garai artako testigurik. Itun Berrikoak, bafia, aski ditugu jomugara eltzeko.

a) Asi gaitzen Lk'en 1, 1-4'tik: Isturi asmo ta ardurak garbi asko daude: "Asi ta bertatik ikusle ta Itz ereile izanek jakifierazi digutenez... aztarranez guzia ajolatsu ikerri dudan neroni ere otu zait, aldikoa aldian, zuri, Teopil bikain orri idaztea, ikasi dituzunen egia dazaguzun". Lk'k, bada, "kolouzekós an ozén pasín" dalako, ematen digu bere Ebanjelioaren egia ta segurtasuna. Ez digu Lk'k bere Ebanjelioa aurreratzen igarketa batzuk diralata, ez, benetako gertaerak, au da, isturia dalako, baizik.

b) Ikusle beren testigotzak, berriz, auskalo nolako balioa zuten orduan: Bidai edo apostoluak ikus testigutza ori zeukaten osperik aundientzat. Judas'en ordezkoa aukeratzeko zebiltzala "egokia da, —zioten—, gure artean Jesus Jauna sartu eta irten zalarik, gurekin beti ibillitako norbait aukeratzea; Joan'en ukuzpenetik asita gure artetik Jesus artua izan zan eguneraño egona, aren berpizteaz aitorzalle gurekin dedin" (Eg. 1, 20-21) Eta zeingi edo adierazgarri au azaltzen dute apostoluak beren bidalguntzaren enparu edo garantirik onenentzat. (ikus: Eg. 2, 23; 5, 15; 10, 39-eta).

d) Ebertainrei eskutitzak, berriz, irakasketen enparutzat "Ipoton akousanton". —entzuleen aitorrez—,



sendotuta eldu izatea dakar. (Eb. 2, 2-3).

Era berean sarritan agertzen da gauzak diran bezela konta nai ori. Paulo'k garbi asko berezten ditu Kristo-ren da bere itzak. Ikus, adibidez, Korinto'koentzat lenengo eskutitzean: "nik ez, Jaunak baño..." (1 Kr. 7, 10-12) eta "nik dasaiet, ez Jaunak". Kristo'ren Piztuera, berriz, danen jakifiek gertaeratzat jartzen du beste toki batean, (1 Kr. 15-eta). Gertaeratzat gero, ez uste edo sifismentzat bakarrik. Eta eskutitz bertan Paulo'k bere bidalguntza sifispidetzen du berak ere Kristo piztuta ikusi zula esanaz (1 Kr. 9, 1).

Areago oraindik: Joan'ek berak ere bere ikus testigutza ekartzen du bere burua eskudun azaldu nai dunean (Jn. 19, 35; 1 Jn. 1, 15).

Baño batez ere Korintokoei lenengo egin zien eskutitzean, 15'garren kapituluan, dakar Paulo'k bere isturi zaletasuna: "gero bosteun senide baño geiago batean, —ikusiz zuten—, aietako geienak oraindik bizi, batzu, berriz, il dirala" (1 Kr. 15, 6). Zer esanik eztago aitapen au zuzen zunenean Bultmann'en aurka dijoala: Paulo'k Kristo benetan piztu zala esaten digu, eta aitortza au egiztatzeko bosteun da geiago testiguri ots egiten die. Garbi dago, beraz, lenengo kristau bazkunak, —Bultmann'ek ala ez uste arren—, etzula ain azkar ta ain errez Kristo'ren Pizkunde sifisten.

Orregatik eskatzen zitun sifispede ta testiguak!

Benetan, bada, lenengo kristauak edozer moduzko isturiak errez sifistu ez ezik, gertatutakoak eskatzen zituzten sifisteko. Eta ara zertaraño beartzen zituzten beren gidariak:

a) irakasteko irakasleak, Kristo beren begiz ikusi izan bear zuten (ikus lenxeago)

b) apostoluak berak, beren begiz ikusi zituztenez, konta bear zituzten gertaerak (ikus lenxeago).

d) eta lenengo kristau bazkunak, berak ere, gauzak ziranez jakin bear zitun, eta ez bere sifismentari egokiena zitzaionez bakarrik (ikus lenxeago).

Eta ardura berdifa agertzen da gero ere Askitz edo Tradizioan. Inoren aitapenik bear ote dugun nago gauza erabakitzeke. Ala ta guztiz ere, ona emen Eliz gurasó batzuen testigutzak:

ORIGENES'ek: "Ebanjelioaren indar guztia bere iturburutik dator"... Eta abar (Rouet de Journal 503).

TERTULIANO'k: "Jaunak berak eman zien apostoluei... Ebanjelioaren egille izateko eginkizuna" (R. 339) "egiagoa, lenagokoa; eta lenagokoa, asierakoa; eta asierakoa, apostoluengandik datorrelako" (R. 341).

JUSTINO'k: Berdin zamar dio, baño esaera au itsatsirik "apostoluen egintzak dauzka" (R. 143).

PAPIAS, dugu, berriz testigurik onena, apostoluen urrena da-ta.

Ajola geiago zitzaion liburuak apostoluengandik datozkigula jakitea, Ebanjelioak berak zer dioten jakitea baño (R. 94).

## 2.—KRISTAU BAZKUNA ASMATZALLE?

Gaindu bearreko bigarren oztopoa, lenengo kristau bazkunaren arduragabetasuna gertaerak ziran bezela kontatzeko, —Bultmann'ek dionez—, dugu. Ortarako Kristau bazkuna asmatzallea izan zala esateko kezkarik ez du. Baña garbi dagoela usten dut inoiz ez tula bazkuna batek bere kasa, —bazkuna denez, esan nai dut—, ezer irazan, gauza berri ezikus bat, bertan-bera asmatu ta egin. Bai bazkunako batek. Danen artean, egille berezirik gabe, ez. Psikolojiak dionez, alde-rantziz geiago edo bakarrik: Bazkunkide geiago gauza berri bat asmatu ta egin, eta ondoren bazkunak beretzat artu ta gauza berdifiak egiten asi.

Ala ta guztiz ere, eta eman genezake dana amur emanda ere, kontuan euki bear da bazkuna apostoluak eratua zala, ez eratzeke, eta apostoluen mendean zego-la bai bere bizitzan, baita bere sifismenean ere. Erakunde ta mendetasun onen sorkaria, bada, nola nai ere, apostoluen izan bear. Erakunde ta mendetasun au bazkunak onartzen zitula garbi agiri da Itun Berrian:

a) **Apostoluek bidali zituzten Petri ta Joan Samari'ra** (Eg. 8, 14)

b) **Jerusalen'go Konzilioa bilerazi zuten alkarren irakasketa ta legeak aztertu ta berdintzeko** (Eg. 15).

d) **Paulo'k bere Ebanjelioaren bakartasuna adierazi ondoren, nola Petri'kin Antioki'n jardun zuen bere ta apostoluen Ebanjelioa berdintzen, esaten du** (Gal. 11).

e) **Eta Kristau bazkun berak zuten ardurarik aundienena langintza ontan elkarrekiko, garbi goraxeago dagonez. Lan ontan lenenak apostoluak berak ziran: "Jau-nari biotzez gogor eusteko, guziak berotzen zitun"** (Eg. 11, 23; 15, 3). Apostoluak beti "Itzaren serbitzari" azaldu oi ziran.

Argi ta garbi dago, bada, sasikeririk ia etzala posible Bultmann'ek nai dun Ebanjelioen eraketa ontan. Onek ez du esan nai, gero, Ebanjelioetan isturia bakarrik dagonik, teolojirik gabe; teologia berak ere isturia dula oifiarri, baizik.

## 3.—SIFISMENA ISTURIA NAASTALLE?

Irugarren kozka, —Bultmann'ek dionez—, da sifismenak, —kristau sifismenak, noski—, isturia naasten dula.

Kristau sifismenaren gauzarik nagusienak, baña, ez titugu irakaskintzak, alde ta aldi batean izan gendun Gizon bat, baizik: Kristo. Eta Kristo Bera, ez gure Erosle denez, Berpiztua denez, baño.

Geroko asmaketak ematen duten gauza guzti oek, lenengo kristau gogaketan zeuden. Lenengo apostoluen irakaskintzak, —Bidalien Egin-tza ta Ebanjelioetan dauzkegunez—, beti gauza ta egintza bakarrak, garbiak, bereziak, konkretuak, ziran. Eta beren buruei testiguak deitzen diete. Beraz sekulakoa degu Ebanjelioen izakera: Isturia ta irakaskintzak batze au.

Korintitarren lenengo Eskutitzan daukagu Kristau irakaskintzako muñik sakonena, aberatsena, gozoena: Itun Berriko zatirik isturitsuena, gañera. Gertaera ortan jartzen du Paulo'k sifismenaren oifarría: **"Kristo berpiztu ez ba'da, uts duzute sifistea; orañio zuen ogetan baitzerate"** (1 Kr. 15, 17). Eta ain garbi ta segurki esandakoa gezurtzat edo sasikeritzat jotzen ba'dugu edo Paulo gezurti galanta zan, edo bestela ondo erotuta zegoen... (j?)

Beraz, Ebanjelioak isturiak ez ezik, irakaskintzak ere baditugu. Eztaukate, bada, isturiak eta irakaskintzak zer izanik etsai, aurkako, batueziñak. Leundu ditugu BULTMANN'en koskarik aundien da gogorrenak. Bein da berriz, benetako kristautasunak berekin irakasketak baño geiago Kristo daramalako, sifismenak bear bearrez isturiz ase ta gogortua izan bear du.

## **EBANJELIOEN BARREN AZTERKETARI BURUZ**

Orainarte Ebanjelioen erakundea, antolaketa aztertu dugu. Orain egiñak artuko ditugu, —Bultmann'en nekeak alde batera utzirik—, geure kasa len ateratako ondoren edo kontzekuentziak gogortu ta sendotu ditzagun. Beraz, literaturari baño geiago Ebanjelioetako narotasunari, bizitzari, begiratuko diogu, laburki ba'da ere:

a) Sinoptikoak 70'garren urte ingurua adierazten dute:

1.—Palestina'ko izaki izkuntza, grekoen banaketa baño lenagokoa dugu.

2.—Lutelesti edo jeografiari buruz, berriz, gaurko agerkintzak Ebanjelioetan dagona baieztan dute.

3.—Isturi ta politika egintzak, Josefo isturigilleak bere kasa esandakoen berdifiak ditugu.

4.—Gizarteari dagokionez, urte aietako giroa azaltzen da.

5.—Erljio ta oitura garai artakoxeak ditugu.

b) Baña gertaera ta egintza asko 50'garren urte baño lenagokoak ditugu:

1.—Jesus'en lagunene lege ta oiturak ez dira geroko Elizakoak.

2.—Nagusi erakundea ez da garbi azaltzen.

3.—Gero gaidutako alako berez-tasun, particularismu bat nabaitzen zaie egintza ta geraerari (Mt. 10, 5; 15, 24).

4.—Illunxamar ba'da ere, jarrai-kada edo persekuzioak aitatzen di-ra.

5.—Sifismen austerik, ez dira so-matu ere egiten.

6.—Kristolojirik ezta agiri. Eta ezta soteroloji aundirik ere.

7.—Esaera ta izenkera asko ga-rai artan aiendutakoak, antziña-tuak dira: Zeru erreñua, Giza Se-mea, eta abar.

d) Auetzaz gañera zintzotasun aundia nabaitzen dugu alde guztie-tan:

1.—Egilleak, itzalean gelditzen di-ra, ez dituzte beren bururik aupatzen.

2.—Naiz ta lenengo kristau baz-kunean izen onekoak izan aposto-luak beti eztute ondoegi ertetzen.

3.—Jesus, orduko kristauak nai ez bezelakoa agertzen da sarritan: Aita baño txikiagoa, Azken Epai eguna jakiteke, Aitak zabuztua... batez ere Markos'engan. Au oso irizpide ona dugu: lenengo bazku-naren aurkako sifismenak ba'dira bazkunak asmatutakoak ezpaidira izango.

4.—Mirariak oso soil eta apalki azaltzen dira.

Eztira, bada, Ebanjelioak edozer ausnarketa, gertaeraen kerigma baizik.

Azkenean, orainarte esana itz gutxitan esateko, sasiebanjelio edo

aprokrifoekin bardintzen ba'ditugu Ebanjelioak, ikusiko dugu nolako aldea duten. Orregatik Elizak lau besterik etzitun onartu (R. 503). Eta au dugu, berriz ere lenengo kristauen egizaletasuna egiztatze-ko sifispide edo probarik onena.

## ONDATZAK

Beraz:

1'engo: EBANJELIOAK ISTURI AGIRIAK DITUGU.

2'garren: TAZITO-TA TUZIDI-DESI-TA SINISTU BEAR BA'DIE-GU, ZENBAT GEIAGO EBANJE-LIOEI, ONELAKO SÑISPIDEAK DAUZKAGULARIK.

3'garren: ORREGATIK, BADA, EBANJELIOEN BIDEZ KRISTO NOLAKO ZAN JAKITERA EL GINDEZKE.

## EZARKIÑA

Isturitasunaren mugak auek di-tugu gutxi gora bera:

1.—Ebanjelioak eztira magneto-fonoz artutako Kristo ta apostoluen itzak: Orregatik, itzez itz eztaude Jesus'en esaerak. Areago orain-dik, ezta zaila egiztatutzea, proba-tzea, gauza bat baño geiago etzula Kristo'k esan.

2.—Ametitu genezake, eta esan dutanez, bai probatu ere, Ebanje-lariak Kristo'ren irakaskintzak pit-tin bat aldatu egin zituztela noizean bein. Ikusi, adibidez, Mt. 24 ta Lk. 21. Bietan Jerusalem'go porro-

kaketa igartzen da. Lukas'enean, baño, askosaz ere zeaztasun ugaria-goz. Zer esan nai du onek?: Lukas'ek 70 pasata idatzi zuen bere Ebanjelioa. Orregatik aitatzen ditu erromatarrak-eta, Mateo'k; lenago idatzi zulako bere Ebanjelioa, egiten eztuna.

3.—Ebanjelioak eztira biografiak. Ortarako kronoloji-ta jeografiak-eta eman bear lituzke, eta orrelakorik eztago. Orregatik, bada, Ebanjelioak Bernard Shaw'en esaera ta gertaeraen bilduma da Eibar'ko Galdos Txiki'ren ipuien antz geiago du-te edozein gizonen bizitzarena baño... Ori, bai, gertaera eta irakaskintza bakoitza bene benetakoak dirala.

4.—Apolojetika aldetik begiratzten ba diegu Ebanjelioei, jakiña, ezin dezaiekegu eman orduko beste edozein isturigille onen baño egitasun aundiagorik.

5.—Auek danak gogoan ditugula, ezin genezake erabilli aurretik emandako sifñispidea zati bakoitza egiztatzeko. Sifñispide orrek bakar bakarrik garbitzen du egiak dirala Kristo'ren egintza berezienak, —mirariak egin zitula, eraill ondoren piztu egin zala-ta—, ez egintza ta irakaskintza bakoitza. Zati bakoitza bereziki egiztatu bear da, 2'garrenean esandakoa egia ba'da.

6.—Azkenean, danen bilduma bat egitearren auxe:

“Jainkoaren pentsamentuak, Jainkoarenak diranez, Jainkozkoak, gogo utsak, mugagabeak, giza adimena-arentzat zeinge ta illunak dira. Eta alare, Idazteunean Jainkoaren pentsamentuak gizonarenak bai lirake azaltzen zaizkigu... Jainko Itza'ren gizakundean, Jainkoa ta gizona batu zitezen, gizonak ere lana egin bear izan zun. Kristo'ren gizakundean Mari Birjiña izan zan laguntzalle. Espiritu Santu'arengandik sortu zun Jainko Itza. Era beran, Idazteunean ere, igarleak, apostoluak, ebanjelariak. Espiritu Santu'arengandik artu zuten itza, Jainkoaren pentsamentua. Mariak bezelaxe, idazle auek ere, bere alde-tik, odol aragiak jarri zizkioten Jainko itzari... Orrexegatik zun, bada, Jesus'ek bere Ama'ren antza. Nazaret'eko kaletan ikusten zituztenean biak, esango zuten noski: “Ara, Ama Semeak”. Orixe bera gertatzen zaie igarle ta ebanjelariak erdi zituzten gogokumei ere. Sorkari auek, beraz, nola nai ere, Jainkoa lagun egin zituztenen antza izan bear... Jainko itza izan arren, gizon bakar auen gogokumeak diralako, nai ta naiez, egilleen antz-koak izan bear, Jesus'ek berak ere, Maria'ren antza zun bezelaxe, naiz eta Jainko Semea izateari ez laga” (G. Closen, s.i.'k).

## Automazioaren bentajak

Aurrerapenaren egalak egokiak iruditu zaizkio gaurko munduari. Teknika bideak zabaltzenago dijoaz eguntik egunera, ta orduz ordu ere baietz, esan dezakegu

Nora goaz? —galdetu dezake eskubiko bazter ondo-ko konserbadore batek.

Galdera hau, aldaketa haundi bat datorreneko, ahotik aho ibiltzen da. Batek galdera hemen, besteak harutzago ta ifiork ez du erantzunik bilduko.

Aurrerapenak gaur egun automaziora eraman gaitu. Batzun batzueri hitz hau barbantzu gordifia bezin egoskor helduko zaie estamura, baiña, ordez eman didaten "berebilketa" ez da, nik uste, automazioa ta gutxiagorik ere. Barkatu bekidate hitz horren lagunak. Ni automazioarekin noa, askotan prantzes kofia hobe baia askoz etxe-ko pattarra baiño.

Automazioa aro berri bat dala uste dute askotxok, aldi berri bat. Uste ta siñistu izan.

Beste batzuk berriz, ezetz. Makinaren osotasunaren aldi berezi bat dala: makinaren perfekzione aldi bat.

Dana dala ere, inportantzi haun-

dia irabazi digu, egundokoa. Izan ere, zein ez da jabetzen, esatebaterako, Norteamerikan makifia kontatzalle hoiek, ordu batean, gizonaren ehun orduen lekuan, konpon-tzen dituzten kuenta ta sumarrak, bentajosak dirala oso. Bentajosak bai makifiak, ta baita ere

kuentak noski. Bentaja ta ez makala alajafiena, bost gizonen hogei orduko ipur-miñaren ordez, entxufatzearekin bakarrik lortzen dana.

Baita ere Bridgeport'eko Columbia disko-fabrikaren egiten dutena: lau gizon dira langille, lehenagoko 250-en ordez.

Izan ere, aldaketa hizugarriak lortu izan ditu zenbait bazterretan. Ta beste askotan lortu zorian dago. Fisika eta Kimika ere egosi-egosian gainezka dijoaz aldi honetan.

Baiña, automozio honek, aurrerapen ta aldaketa hauek, ez ote dute gizatalde koskor bat besoak toleztatuta, lanik gabe, utziko, ta okerre-na, poltxikoak huts...? Gizonak bere kopeteko izerdiaren bidez irabazi behar du bere bizimoldea.

Alabearrez, gizona ere, beti izan da oiturei lotua. Ta zenbat eta oitura zaharrago, orduan eta gizona atxikiago, estuago lotua, lapatua. Txakurra bera ere, zahartzen danean, maite izaten du etxejaunak.

Ongi edo ankaxabal egiten danarekin berarekin konporme. Berri kontuak... hizutu egiten du gizona. Baita ere bazkaritan horixe bera gertatzen da. Otordu batean emazteak plater goxo ta berri bat jarri dizu gogorik onenarekin. Senarrak berriz, betiko babarrunak nahiago zituan ba. Gero, egunero nahiko luke gustatu zaion plater-txo berri hori, baiña aurrenetik behintzat izango da zer esana.

Leclercq idazleak honelatsu hitze-

gin zuan behin, ta ejenplu hauxe zekarkian. Beljika-n trenbidea ezarri zutenean, jenderik gehiena marmari bizian haritu omen zan: fabrika-gizon, hotelari, tabernari, zalgurdilari, ta gaifferakoak. Jendea lanik gabe geldituko zala, etzutela ez diru ta ez alimenturik izango ta hortik aurrera, holakoetan oi dan guzia. Baserritarrak ere bazituen aitzakiak. Trenaren ke ta eskarbillak belazeak eta beiak antzutuko zituala. Ardi jeneroak galduko zirala. Oilloak arrautz zikiña jarriko zutela, ta hamaikatxo hola-ko bai.

Jakiña, jende guziak etorriko diran desbentaja ta gaitzak bixtatzen ditu aguroasko, baiña inor ez da jabetzen aurrerapen horrek ekarriko dituan onbideetaz. Beljika-ko trenak ekarri zituan noski ezbehar-rak, baiña gaur egun darabilzkin ta okupatu dituan langilleak orduko zalgurdilarien aldean ugariak dira askozaz.

Errezagoa oi da geldi geldi ta patxadoso etzanda egotea noski. Neguan, sutondoan, udaran, kerizpean, paparra aidean.

Aurrerapenak ta hari izateak berrekin oi ditu zenbait eragozpen. Dabilenari, harrikoakorrak sartzen zaizkio abarketan. Eragozpena ez da alperraren laguna. Alperra pakean utziko du beti eragozpenak: dagoala zilborra guritzen.

Gerok, euskaldunok ere, askotan ta gehiegitan begiratzen degu ba gure "asaba zaharren" aldira. "Or-

duan bai, orduan... hau ta hura egiten genduan”.

Baifia, ondo begiratu ezkerro, laixter jabetuko gera, antzifia, 30 urte bakarrik bizi zala gizona. Gaur egun 70 inguruan dabil. Antzifia, ehundik larogei, txaboletan bizi ziran... Noski, txaboletan bizi diranak, askotan nahiago dute etxola zarpilla libertadearekin, etxe bateko pisu txukuna disziplinarekin baño.

Zenbat aldiz ikusi ditugu gure baserritarrak seguruetan sartu nahi ezta. Ta zeifiek komenzitu!

Ez da asko pentsatzen gutxien uste dan lekutik beti dala sortuko lana. Orain bostehun urte, etzuten asko pentsatuko gure asaba trankil haiek, gaur radio, zine edo telebixtak eramango zituang langilletan. Ezta orain 50 urte ere. Baifia, hor dago ba.

Gaifera, automazioa ez dioa koskaka ta maillaka. Ez da batere malakar. Aldapa lehun batean irixtatuz, apurka dioa aurrerantz. Itzai edo kalegarbitzalle bat ez dezu jarriko kolpetik maixutzan edo telebixtak manejatzen. Baifia zeifiek ukatu dezake itzai edo kalegarbitzallearen seme edo illoba biar edo etzi hortan hariko dala?

Automazioaz hitzegiten danean, makifia batek lau edo bost langilleekin hau ta hori egiten du, esaten da. Ez da burutik pasatzen makifia hori kostatu danik ere.

Begira, Ingalterra-n, kastatzen dan petrolioaren ia erdia refinari

batetik ateratzen da, bertan lortzen da. Baifia nola kostata dagoala makifia hori gero! 6 milla milloi peza inguru. Ta peza hoiek etziran etxe-ko baratzean landatuta atera. Hamaika gizonen izerdi ta maldizioen bidez lortutakoak izango ziran noski.

Hemen gaifera, beste puntu bat argituaz esan dezakegu, teknika aurrera dijoanean, gizartearen aurrerapena ez dala eserita egoten. Ondo ondotik jarraitzen diote alkarrari. Bata besteari lotuta dijoaz, eskua emanda.

Ta automazioak ze helburu jo nahi du?

Lan nekeza makifari ematen ba-diogu, gizonari asti gehiago tokatuko zaio espirituairen lanetarako.

Hiru lana molde dauzkagu munduan barrena:

1) Lan gogor ta nekezak: materialak lortzen. Alegia, ikatza ta metalak ateratzen dituzten mineroen lan zakarra. Baita ere basoetan zugaitzak menderatzen dabiltzanena.

2) Fabrika lana: material horiekin gizonarentzako behar diran tresna ta ixtumentuak egiten diranetakoak. Bi lana molde haue-tan makifia ari da gogotik gizonen lekua betetzen.

3) Hirugarren lan mailla: serbitzu lana da. Alkarren onari dago-kionez, txuxen txuxen lan egitea, alegia. Bata bestearentzat, eta gu-ziak danentzat bizitzea. Honela: maixutza, irakaspena banatzea, me-



dikutza, herri opizio ta abar.

Martxa hontan, zenbat eta makiña gehiago sortu, gizona libratzenago joango da. Epe ta erreztasun gehiago izango du espiritu ta personalitateaz hazi ta hezitzeko. Gizonen mailla apurka gora joango da. Bizimodu osoa goraka.

Automazioaren bidez ba, gizasmerik gehienak jakintsuak edo behintzat ikasiak izango dira.

Hontarako noski, gizonak eta dirua behar dira. Makiñak bihalduko digu gizona fabriketatik etxera. Dirua ere ugariago ta lan kaxkarra goarekin izango degu. Diru honek izango du bere eginbeharra ikastexte ta gaiñerakoak sortzen.

Ia konturatu gabe, makiñak hari ta hari dirala, gizonak libratzen dijoaz. Lan gogor hontatik aske dandean, ba ote dakite espirituaren lanari ta personalitatearen osatzeari lotzen?

Banku eta seguruetan egunetik egunera ugaritzen dijoaz langilleak; ez noski fabrika langilleak, ikasiak baizik. Paper lana ordutik ordu bait doa hazitzen.

Bestalde, lanaren partizioak ere alda bidean daude. Gaur egun, zenbait lekutan, asteko bost eguneko lana jarri nahi da. Zortzi ordu eguneko. Jakina, eguneko zortzi ordu hauek, lehenagoko hamabiak baiño gogorragoak dira maizenik. Hor genduke beste kontu bat aldatu beharrekoa. Lana, denbora gehiagoan izanda ere gizonaren eta giza-gor-

putzaren erreztasunari begira jarri behar degu.

Ta hobeto partitu noski. Bai denbora ta orduak ta baita ganantziak ere. Azkeneko honetan, esate batearako, fabrika batean, makiñak ezarri dirala-ta, hamar-hamabi langille nahikoak izan litezke atzo 250 behar ziran lekuan. Horko ganantzia ez diegu hamabi hoiari bakarrik banatuko. Ganantzi hoiak ziur gizar-tearen onerako ta hobebiderako behar dute jarri.

Ez da eroso haxe! Ba-dago ba oraindik koxka pranko saltatzeko-rik.

Aparte uzten ditugu noski, zilborrari begira lan egiten duten guztiak. Gaur egun, gure irabaziak gizarte osoa altxatzeko dirala gogoratu beharrean gaude. Alkartasuna gero ta gehiago onesten da. Jakina, ez gera asko igoko, gure irabazi guzia urkoari ematen badiogu. Gizartea altxatzekotan, gero zutitu behar degu lehenen baiña gizarteko estruktura osoaren zorua altxatzea izan behar du gure helburu. Hortikan goaz zuzen, hortikan goaz seguru.

Egintzagun konparazio, ikasketa. Gaur egun, orain dozena pare bat urte baiño gehiago ikasten dala bixtatu degu; hobeto ikasten da gaiñera dudik pe. Ta hori, norbait alegindu dalako, norbait bortxatu dalako.

Izerdiak kosta dira noski ikasketari altura hau ematen. Oraindik ez da beharbada asko lortu. Baiña,

lortubidean jartzea, egiflean pran-  
tatzea, ez da gutxi.

Zenbait tokitan gauza gutxi egin  
da. Ikastetxeak falta, maixuak gu-  
txi, dirua eskax. Ba-dago ba nun  
arrotu, nun landatu, ta nun bildu  
ere...

Gaifera, gizartearen onak, gizar-  
tearen pozak, ez al du merezi gure  
sego ta gizenak urtzea?

Hori bai, aurrerapenak mobimen-  
dua galdetzen du. Ikasketaren be-  
harraz jabetu bagera, ikasi dana-  
gatik izan da seguruasko. Ta horre-  
la beste zenbaitetan.

Automazioak esperantza haundia  
sortu du. Ontasun haundia lortu-  
ko dala? Bai noski. Baiña jendea  
gertatuta ote dago gero? Ez nuke  
baietarik emango. Ezetza errezago.  
Ta gu, euskaldunok?

Beti bezela, denetik dago gure  
artean. Ezagutzen det nik taller  
kokkor bateko nagusi bat. Berak  
dionez, haren "asaba zaharrak"  
arotz-lanean etzuan esku-zepillua  
besterik erabilli, ta ez du beste-  
rik erosi nahi. Izan dira bere ta-  
llerrean zenbait saltzaille makifa  
arifaaskoak mustratuz. Guziak ai-  
dean bihaldu izan ditu. Zer esango  
digu honi?

Ba-dira beste zenbaitzu, laranja  
euskal lurretakoa ez dala-ta, prutu  
gozo hori probatu nahi ez dutenak.  
Ta ez hori bakarrik: ez dute eda-  
ten laranja urrezko, Kas, Schuss edo  
Limonadarik. Gazteiz edo Bilbo'n  
egifia badira ere.

Gauza lotsagarriagorik! Nik gal-  
detuko nieke: Ta, korbata, estilogra-  
fika, praka, txamarra edo barrena-  
gokoak euskaldunak ote dituzu aka-  
so?

Nik uste, komeni zaigu, munduko  
gizon anaien aurrerapenez baliat-  
tzea. Ta ez gutxiago, gure Jainkoak  
munduan barrena ondo iruditu  
zaion lekuan landatu dituan gauza,  
frutu ta gaiferakoak on-hartzea.

Ba-dira noski ondo gertatuta dau-  
denak, danerako prantatuta. Hauek  
egin behar dutena, nik uste, lana  
egin ta aurrera jarrai, bazterrera  
gehiago begiratu gabe. Diskusioan  
lotzen danak, ez du integrista ho-  
rietako bat gozogoan komenzit-  
tuko.

Egin eta jarrai lanean, ejenplu  
emanez. Horrela arrastatuko ditu-  
gu, pixkeana, bakarrik gelditzen di-  
rala ikustean. Bestela berriz, hilko  
dira nohibait.

## IDAZKI EZKUTUA

ALDAPEKORI

Adiskide begiko:

Gaiak zeatz aztertzeke erabiltekoa ez intzala lendik ere jakin ezpa'nu, ire erantzunak ongi baño obeto erakutsiko zidakean, alafede!

Nik ere idazlana JAKIN'en irakurri, pixka batean ausnartu, lenbizi eskuperatu zitzaizkidan liburuetatik nere usteeri indar ematen zioten adigarri batzu paper batean zirriboratu ta idatzi nianean, enian erantzutean norekin eta Kanpion'ekin aurrez-aurre jarriko nindukeanik uste. Sakon ditzadan bada gaurko ontan nere esanak al dezadeneraño beintzat, izkuntza gaitan ik eskatzen dizkidaken (a+b)'zko argibideak ematea zailla ba'duk ere.

Dioken bezelaxe, ETA askargillea Bidaso'z emendikoa ezezik Laphurdi'koa ere ba-dala zioK Kanpion'ek, eta nik ematen nizkian adigarri guziak Bidaso'z handikoak ziran ezkerero, epaia eman baño len sartaldeko idazle zaharrek nola darabilten aztertzea bearrezko litzakela diok, zuzen baño zuzenago. Ona bada zenbait idazle giputzegandik jaso dizkiatenak; batzu, ire aitaren liburua bide dala, eta nere irakurraldietan bilduak besteak. Nolanai ere, eta auzia ETA erabilkizun ote danean dantzan ezkerero, askoren einari dagozkioneri egingo zieat jaramonik geien.

ARRUE.—...zuen emazteAZ eta aurrAZ errukitu

...zeruaren doai guziAZ apañdu

...loreak bere malkoAZ bustitzen zituan

AGUIRRE.—...Jaunaren kontra egin dituzun bekatuAZ

...egin dituan bekatu guziAZ

...damutu bear zayo ... Jaunari egin diozkan bidegabeAZ  
LARDIZABAL.—...bere anaya ta aren ondorengoAZ ardura

KARDABERAZ.—...ez akordau onen igaroko kulpAZ eta egin zituan  
kaltiaz

...iltze gogorraZ gurutzean josi

...egin ditudan pekatuAZ

...zure doayAZ aztutzen naiz, nereak ... ba'nitu bezela

MENDIBURU.—...damu artu daramatzien txarkeriEZ

...oroituko ziran Jesus'en biotzak ikusi dituen estuta-  
sunEZ ta digun amore aundiAZ

J. K. ETXEBERRIA.—...PersónAZ diferentziarik egin gabe

OTXOA ARIN.—...Jaungoikoa ofenditu deban guziAZ damu izan

...bere pekatu guziEZ oroitzea

Adigarri oietatik onetxek atera ditezkek, nere ustez:

1)—A-E aldaketa egitea huan, iñoiz, bakarraren einetik askorene-  
ratzeko era jatorra. Mendiburu'k orrela egiten dik eta batez ere,  
lekuko zaharren eta jatorren, OTXOA ARIN'ek 1713'garrenean  
"Villafranca Guipuzcoaco onetan euskeraz itz egiten dan mo-  
duan" idazten zuanean.

2)—Gipuzkoa'n era jator ori geienetan galdu egin huan, eta idazle  
geienek ezititek aldakuntzarik egiten.

3)—Batek azentua jartzen dik.

VAV EYS'ek bere "Essai de Grammaire..." dalakoan gai ontaz jar-  
dutean onela ziok: "Le pluriel fait une exception et n'est formé comme les  
**autres suffixes par ETA**; on le rend de deux manières; 1º, en changeant  
l'accent; au singulier sur la terminaison: LIBURUÁZ, de ou par le livre;  
au pluriel sur le nom: LIBURUAZ". Eta azkenean: "On préfère dans le  
guipuzcoan la première manière de s'exprimer".

Bere "Grammaire comparée..."n berriz: "La distinction du pluriel  
par la voyelle E est inconnue dans les dialectes basques espagnols". Eta:  
"Le dialecte guipuzcoan distingue le singulier du pluriel par l'accent;  
LIBURUÁZ, "par le livre"; LIBURUAZ "par les livres".

Beraz, askoren einetan E erabiltzea Gipuzkoa'n ez-eguzin dala esatean  
oker zebillek, bere garaiean bereizkuntza ori galduxe izatea ditekiana  
ba'duk ere. Alderantziz, azentuaren bidezko bereizkuntzaz itz egitean  
idazleekin eta orain bertan egiten danarekin bat zetorrek.

ETA'ri buruz "Essai de grammaire..."n ziona ikusi duk; bestean  
berriz: "Les dialectes basques français sont au fond les seuls qui dis-

tinguent régulièrement le singulier du pluriel: GIZONAZ "par l'homme"; GIZONETAZ "par les hommes".

Beraz, baten diona bestean ukatu egiten dik; bañan onatx: ETA Z'kin eztala erabiltzen esaten duanean ezetik bere esanen iturririk aipatzen, eta baietz esaten berriz, eta atzizki-gai ontaz diarduala ain zuzen ere, Larramendi ta Lardizabal itzetik ortzera zerabilzkek. Ez al diok bere uste ori aiengandik jaso duenaren itxura ematen? Ni ortan natxegok.

Beraz, eta ik galde egiten didaken bezela, ETA'ren erabil-lege ori Kanpion'en irudimenean oretutako ipui aizetsu bat ote? Ez orixe, Larramendi, Darrigol, Van Eys eta Duvoisin'en esanetan artzen baitik ofiarri. Ala ere, nere gardiz, Van Eys'en esanari Larramendi ta Lardizabal'egandik artu izanaren susmoak bere indarra auldu egiten zio, eta Duvoisin'enari ere bai Bonaparte'ren lankide izaki ta "printzeak" bere atzizki-sailletan ETA ori aipatze ezak.

Kanpion'en pentsa-ariaren mataza arilduz, azkenean auxe arkitzen diagu bere ustearen tinkagarri: Bonaparte'k, Irun-Ondarrabi'ko euskeran, gure "gizonEri" edo "gizonEi"n orde, "gizonaKi" jaso zian. Nik neuk, A-E'zko bereizkuntza galdu zanean nolabait bereizi bear eta, irun-ondarrabiarrak askargille-otsa nabari zitzaion K tartekatzen asiko hituala uste diat:

gizonEi — gizonAi — gizonaKi

Van Euys'ek, Bonaparte'k eta Kanpion'ek alderantziz uste ditek; alegia, izen mugatua eskatzen duten atzizkiekin bakarraren einekoak A'dun izenaren gañean eraikitzen diran bezelaxe, askoren einekoek AK'dunaren gañean osatu bear dutela; onelatsu:

gizon.A-I

gizon.AK-I — gizonAI — gizonEI

Damurik, eta OTXOA ARIN lekuko berriz ere, askoren einerako E'dunak A'dunak baño zaharrago ziruditek.

Bide orreri jarraituz, onela ikusten dizkik Kanpion'ek berak ematen dituan erabil-eren jatorriak:

Bakarrarenean: gizona-KAZ — gizona-GAZ — gizona-ZAZ — gizonAZ

Askorenean : gizonaK-KAZ — gizona-KAZ

gizonENZAZ gizonETAZ

gizonEZ

Bere ustearen indargarri, Bizkaierazko GAZ-KAZ bereizkuntza; "Refrañes y Sentencias"en ere orrela egiten ditek. Bañan ari ori eztuk txori-leporik gabeko; ona nik somatzen zizkioatenak:

- 1) — -GAZ eta -Z,-ZAZ iñoiz bat izan ote diran etzekiagu: beraz, -GAZ'eri buruz diona orrela ba'litz ere, GAZ-KAZ baño aruntzago luzatzea ezlikek zillegi.
- 2) — GAZ zer dala ta ZAZ biurtzen dan ezтик esaten.
- 3) — ETAZ'ko era ori zergatik sortzen ote? Kanpion'ek dionez, ETA askartzallea sartuz; bafian zer dala ta sartzen ote duk emen, gizonari, gizonaren, gizonagandik askoren eineratzean gizonETArI, gizonETAreN, gizonETAgandik egiteko sartzen ezpa'duk? Edo ta, alderantziz, ETA zergatik eztuk E izateraño laburtzen? mendiETArA — mendiEra mendiETAtik — mendiEtik atera bear liketek iñola ere.

Lengo artan finkatzen nauk bada: Beste atzizki batzuek ETA askartzallea tartekarazten duten bezelaxe, izen mugatuari datzizkonak E beste askartzalle bat (lehenagoko AI?) bear dutelako artan.

Nere aburuz, eta GIZONAKI'z esan diatena bezelatsu, antxifia baten "gizonaGAZ-gizonEgaz" izango hituan, gero AGAZ-AGAZ biurtu ta azkeanean bereizi bearrak askartsalle ots-dun K sartu araziz.

ETA'ri buruzkoak bukatzeko oar bat: Kanpion'ek ezтик E beti ETA'ren semetzat joten; Z atzizkiaz jardutean bai, ez ordea "gizonEi" eta aztertzen ditueanean.

Nakion azkenez -ZAZ atzizkiari.

Kanpion'ek, ikus dezakeanez, ezтик atzizki onekin bakarraren einean EN tartekatzerik onartzen, jokabide ori askoren einerakotzat joaz. VAN EYS'ek ere berdin. Bafian beste atzizki batzuen erabil-legeak aztertzean auxe ikusten diagu: Askoren einean EN eskatzen duten atzizkiek bakarrarenean ere berdin egiten ditekela:

gizon.A-(RE)N-TZAT — gizon.E-N-TZAT  
 gizon.A(RE)N-GANA — gizon.E-N-GANA  
 e.a.

Alderantziz, eta nere lengo eskutitzean ematen nizkian adigarrietatik darionez, ZAZ-TZAZ-TAZ atzizkiek eziteak, izen-ordekoekin erabilki, EN tartekatzerik eskatzen. Nik neuk eztiat beintzat idazle zaharretan bein bertan ere orrela arkitu ta ire aitak ere ori zioak, Larramendi'k bere atzizki-sailletan sarri eman oi duaneko "baifia"zkoa egiten ba-dik ere.

Ire aitak onela zioak: "Hemos encontrado las palabras "orotçaz" y "askozaz" en singular y "halacoetçaz" en plural; esta última **no puede ser** sino corrupción de "halacoentçaz" pues TZAZ no exige vocal alguna de ligadura. Ello confirma la opinión del P. Larramendi".

Or ageri duk nik uste, ain zuzen ere, EN-zaleen zioa: Bere aburuz TZAZ atzizkiak eztuala bitartekorik bear (eta ondorengoa nik gañerutzen diat), antzeko zaizkion TZAT eta TZAKO'k bear eztuten bezelaxe. Beraz, TZAZ-en erabil-legeak TZAT'enak berak izanen dituk, eta onek bezela EN eskatuko dik.

Bañan aurreko eskutitzean ematen nizkian adigarriek erakusten digutenez, -TZAZ eztuk ifiola ere EN-zale, ta

halako.A-TZAZ — halako.E-TZAZ

onhartu ezkerro gauzak garbi baño garbiago gelditzen dituk. Edo ez ote?

Larramendi'ren garaiean erriak ENTZAZ erabiliko ote zianeko galdera egiten duk irean. Ezezko biribillik ezingo nitek eman, bañan jokabide ori atzizki-legeekin ongi eztatorrela ta idazleek ere eztarabiltela, nik ezniek beintzat "ote"zko oñarri orren gañean etxerik eraikiko.

-TZAZ egun izenekin erabilkizun ez izateak ere eztiak ifiorak ifioiz erabilli eztuanik esan nai; ire aitak beintzat "halakoA" izen egindakoari atxikirik ematen ziguk, eta Etxahun'ek onela zioak bere olerki batean:

...leheneko eginE-TZAZ dolumenian sarthü,  
eta ori, izenordekoekin erabiltzean erakusten duanez beintzat -TZAZ-zale amorratu etzala, askotan baitzerabilzkiak "horrez, harez, hez" eta antze-rakoak.

Oiek orrela dirala, ezin diat nik Eleizalde'ren

arerio geztoA.TZAZ ni aldeztu

ifioia ere onhartu; batetik, TZAZ atzizkia izenarekin darabillelako, eta bes-  
tetik (eta au bide duk, eta ez lengoa, egozten zioaten errurik nagusiena)  
-GANDIK bear litzakenean erabiltea. "Arerio gaiztoA-GANDIK babes  
nazazu" bear likek nere aburuz, eta ez "gaiztoA-TZAZ edo "gaiztoAZ".

Orra ire eskutitzaren gunari nolabait erantzun, eta hel dezaiedan  
orain eraskiñeri.

Nere lumaren arlotekeriari gazi-goza derizkiok, pentsakera baldarra  
gogoeta mamitsu, eta izkera murrizari eleder iori. To, to, Yon!!! Lumak  
irrixt egin dik, edo adiskidetasunak ikusmena ta eder-sena lausotu. Ala  
ere, JAKIN'darrek idazlanez oso-oso urri baldin ba-zebiltzek eta nere  
arinkeriak onhartzen ba'dizkitek, ire esku uzten diat igortzea, bañan  
egizko euskal-idazleen artean lotsagarri arkitu ez nadin gaitz-izenen  
baten ostean gorde nazak, otoi; erorrek asmatu.

Nere lenbiziko eskutitza soillik eman ezkeren nere usteen oñarriak  
eztituk erabat garbi azalduko, ta biak emanda berriz ik dioken egarri  
(?) ori ase ez-ezik irakurleen egonariaren neurriak ez ote dik gafez  
egingo? Ire gain uzten diat bada zenbait euskaltzaleri aspertuaraztearren  
eta JAKIN'en irakurleak urritzearren erantzun bearra.

Oietan eta bestetan beti ire adiskide

Eraskiña: Nere aurreko eskutitzean "ik darabilken semeETAZ" esan  
bear nian, eta orixe esan nai nian ain zuzen ere. Barkatu.  
Urrena Donostia'n elkar ikus dezagunean txapelkun ikusten  
ba'haut, ire-ireak dan zeatz jakin arte eztiat "ire" txapelaz  
itz egingo.



## ZUBIARTEARI

Ire bi eskutitzak burutik oiñera sarkonki aztertu dizkiat eta eskerrik be-roenak eman bearrean natxegok be-roiek egin zidaketen argitasunagatik, gai onetan neuzkaken lausoak eta gandoak oro aienatu baitzaizkidak. Ene oiñak lur sendoan nabari dizkiat aspaldiko partez eta alaber ene urratsak sendoak izanen dituk gaurgero zingiraz kanpo ibilki.

Baiñan, ene idazlanetan, ba'zioztik, noski, beste makiñatxo bat uts eta oker, ene ezjakite eta zalatzen ume. Otoi, salatu zaizkidak kupida gabe orretarako astirik arkitzen ba'duk. Benetan eskertuko dizkiat ire laguntasuna eta ziñezko adiskidetasuna, ene oztopo eta urrats gaiztoetan nobaiten bearrean bainegok. Akit, bada, itsumutil zintzo ene euskalbideko urrats labainkorretan.

Orain erabili diagun gaiean, gure gramatikalarietan konfidantza oso bat jarri niken, batere pentsatu gabe auen esanak zimendu ustel batean oiñarririk egon zitezkeanik. Ba-zirudik, ordea, auek labaindu egin zirela euren ustetan, ik zentzuz dioken bezala, euren iritziak ezpaiditek eustarririk gure literatura zaharrean.

Zorionez, ene baitan etzegok seta gaiztorik nola edo ala ene orain arteko usteai edo iritziai eusteko. Makiñabat aldiz baztertu eta gaitzetsi dizkiat nire aburuak okerrean nengoe-

la igarririk. Egi-egarrria bekigu beti gure gidari, naiz-ta erregarri izan. Burua makurtzen eta utsak aitortzen jakiten ongarri zaiok gizonari. Beraz, gaurdanik irekin naukak autsak astinduz jardun aizen gaietan. Ots, "gizon-AZ" izaki edo gauza bakarrarekiko, "gizon-EZ" askorekiko. Orain arteko "gizon-ETAZ" "gizon-ARENTZAZ" eta "gizon-ENTZAZ" ostera, sasiko iritzirik baztertzen dizkiat.

Eskutitz au amaitu baiño len ba-zeukat zerbait bitxi esan gurarik -ETAZ'en gramatika semetasun soil- la aitortzen duena. Duvoisin'ek —eta ba-dakik Duvoisin zale aundia naitzena— bere "Biblia'n eta "Laborantzako liburua'n, oker ezpa'nauk, beti -EZ atzizkia zerabillek izaki edo gauza askorekiko (gizon-EZ, landare-EZ, ...). Eztiat uste sekula -ETAZ darabilenik (alare, etzeuzkat eskuartean bere liburuak uste au sendoes-teko) eta ala ere bere deklinazioko tabuletan, SEME-EZ ez-ezik eta beronen aurretik SEME-ETAZ onartzen dik, Ba-zirudik, ontaz, literaturarako -EZ bakarrik onesten zuela euskera bizi-bizirik jasorik eta gramatikara jotakoan, ETA'ri, askargille jator iritzirik, leku egiten zioz -Z atzizkiaz lagunduta, nunbait, forma lojiku delakoaren ustez, "seme-ETA-n", "seme-ETA-rik", "seme-ETA-ren" iru-dira.

Campion'en gramatikan ikus dite-keanez, Lecluse'k eta Duvoisin'ek ba-karrik onartzen ditek "gizon-ETAZ"

delako tankera. Ostera, Darrigo'ek, Xaho'k eta Bonaparte Printzeak -EZ bakarrik onesten ditek. Ik igarri dioken bezala, euskaldun Printze aundiak —beste ororen gaiñetik biotza euskaldunik aundienak baiño euskaldunagoa baitzuen— izan ziken ikusmenik zoliena eta sakonena gai ontan. Onek, euskalkiz-euskalki joaki tankera oetxek ematen zizkiguk.

	G	B	L
	Begi-AZ	Begi-j-EZ	Begi-
	Z	Teorikua	
EZ	Begi-EZ	Begiak-	
EZ			

Gipuzkeraz, ik jasotako adigarrietan bezala. -AZ aukeratzen dik pluralaren ezaugarritzat eta bizkaieraz, ostera -EZ. Azken au ala izan ote duk sekula?

Ire eskutitzean dativo askargillea aipatzen duken ezkerro (gizon-ERI, gizon-EI, gizon-AI), nik uste, euskal-batasunaren ametsez gabiltzanok, Gipuzkoa'ko -AI tankera baztertu egin bear genikela eta -EI onartu, aldakuntzetan edatuena delako (-ERI eta -ER senideak gogoan eukita batez ere) eta plurala adierazteko egokiena, E letra baituk, ik dioken bezala, askartasunaren ezaugarri jatorra.

Bonaparte'k dionez, "begi-AP" Gipuzkoa'ko eta Bizkaï'ko duk, baiñan, oker ez baldin ba'nauk, Bergara alde ortan eta Bizkaï guztian edo zati batean beñepein "gizon-ERI" esaten duzute. Beraz, bego nagusi laphurta-

rren "gizon-EP" eta baztertu ditzagun "gizon-AI", "gizon-ERI", "gizon-ER". Poztuko nindukek nire irizkide ba'intz aukerakizun onetan. Oso aspaldi nabillek dativo askargillearen kezka onekin —Eibar'ko zalantza-agerkizun itzaldian ahantzi egin zitzaidaken aipatzen— erabakirik ezin artu. Baiñan, bein bearko!

Eleizalde'ren zorigaiztoko itzulpenen arrazoi oso-osoa daukak -GANDIK atzikia erabilli bear zukeala -TZAZ'-en edo -Z'ren orde. Niri ere zentzuak iri bezalaxe agintzen zidaken eta une batez orrela jartzeko egon nindukan, eta gaztelerazko esaldia niri ematekotan euskerara itzultzeko, besterik elitzaidakek sortuko enebaitan. Baiñan, iruditu zitzaidaken -Z'az baliaturik ere pekatuak etzuela —larririk beintzat— eta -Z ordeko -TZAZ gaitzesten ari nintzelako, zalantza batzuek egin ondoren, -Z'az baliatu nindukan.

Gure arteko esateko guztiak esan dizkiagula uste diat. Arantzazu'ko praille on-onai bidaliko zizkiet eskutitzok, argitaragarri irizten ba'dizkituk Gabonetakoan egin dezaten eta bestela gure artean geldituko dituk eta kitto.

Agur, ba, adiskide on eta urrengo kankarrekoa noiz ematen didaken. Ene lozorrotik esnatzeko zerbaiten bearra ba'zeukat. Goraintziak etxe-ko guztiak eta iretzat besarka sendo bat.

# Amaya...

*Nere mutiko denborako gramatika ikastaldietan beti ikusi izan det nobela ixtorikoen artean Navarro Villoslada'ren "Amaya".*

*Neuk enuen iñoiz irakurri, ta neretzat eta nere ingurukoentzat ongi zegoen gure irakasleak jartzen zuten tokian.*

*Baña alako batean iritxi zan nere eskuetara, erkatu nuen "El Ducado de Vasconia"-rekin eta ezitzaidan iruditu ain ziuerra "Amaya"-ren ixtoria. Garbiago esateko, "Amayak" etzuen batere ixtoririk, zirkin batzuk ezik, eta toki askotan ixtoriarekin muturrez jotzen zuen.*

*Norbaitzakin izketan, esan didate olako gauzarik iñori ez aitatutzeko, orrenbestek esaten dutenean batedonbat egongo dala zer esaten duan dakiana-ta.*

*Etzait iruditu aolku ona. Argia egitea ona dala ta lanari ekin diot. Zor edo lor, nobelak ez du ezer galtzen orregatik; eta geuk baiño len, atzeritarren batek erbia arrapatzen ba'digu lotsagarritzko izango litzake etxe-koentzat.*

## ... Nobela ixtoriko?

Lenbizi: Zer da nobela ixtorikoa?

Nobela batek ixtoriko izateko notin eta agintza nagusienak egizkoak izan bear ditu, eta egillearenak bigarren mallako notin eta egintzak bakarrik (1).

Orain, zein da "Amaya"-ren barreneko mamia?

Abarzuza eta Amezkoa'etako jaun Garzia'k Iruña godoeri kentzen die ta errege egiten da —edo dute—, guretzat berdin.

Nor da Garzia? Konpara dezagun "Amaya" ta "El Ducado de Vasconia"ko Garzia.

(1) PADRE AMALIO, *Literatura Preceptiva*  
Vitoria, Ediciones El Carmen, 1952, p. 261.

Novela histórica.—Es la que toma los hechos y los personajes de la historia, mezclándolos con otros secundarios que son invención del autor.

## AMAYA'koa

711'an ogei urteko mutil gaztea.

Bere beso ta ezpataz godoena zan Iruña artzen du.

Eta Garzia Ximenez Naparruko lenbiziko erregea egiten da.

Dena 711'an.

Garzia Ximenez'en galerazpenik izan ezean ere, Naparruko Jaunak 711'an Iruña artu bearrik ba ote zuan ere argitu bearrean legoke, baiña utzi dezagun geroagorako.

Ikusi degu "Amaya"-ren barrenbarrenak beintzat ez duala batere ixtoririk: Alde bateko ta besteko Garzia'k ez dira bat. Izatean gizaldi osoaren ezberdina dute. Ez dira toki batekoak. Ez da era berdina Iruña jabetzara irixtea ere.

Billatu dezagun ixtoririk nobela zabalean. Oraindik esan bear det ez naizela sartutzen atzerritarren kontuetan, niri euskal ixtoriak bakarrik dit ajola.

Len esan dedan bezela gizaldi osoaren ezberdinean gabiltz. Baiña kendu dezagun akatz ori. Eta orrela: Zer du ixtoririk "Amaya"k?

Onelaxe da nobela: (2)

1.—Usua zan Aitorren etxeko nagusia. Beregan iragango zan Aitorren iragarki ura: "Aitorren etxea mutillik gabe geratzen danean len-

(2) Sail dena numeroekin zatituko degu, gero numero bakoitza aztertutzeko.

## EL DUKADO DE VASCON'koa

824'an zan.

Euskaldunak Orreagako irugarrenen guda irabazi zuten.

Konde, jaun eta buruzagi denak alkartutzen dira, ta Iruña Eneko Arista euskaldunen lenbiziko errege egin.

biziko alaba erregina izango da".

Usua zan alabarik nagusia ta etzuan anairik...

Baiña kristau izateko gogo sartzu zitzaion eta etxetik igesi egin bear izan zuan bere aizpa Amagoia'ren beldurrez.

Alan bearrez, Gorbea inguruan zijoala godo gudaburu batekin topatu zan eta Victoriaco'ra eraman zuan godoak.

Victoriaco'n kristautu zan. Eta godo gudaburu orrekin, Ranimiro bere izenez, eskondu zan.

Victoriaco'tik Iruñara kanbiatu bear izan zuten.

Iruña'n, Ranimirok Gofñ'ra joan bear bat izan zuan pake konturen batzuk euskaldunekin zuzentzeko. Eta bitartean, juditar neskame batek Usua atzipetu zuan ta Iruña'tik atera. Andik Aitormendira eramatea Amagoia'ren senarrak, Basurdek, egin zuan, au ere juditarra.

Amagoia ta Basurdek Aitorren eskutukia atera nai izan zioten, baiña geroago ikusten degunez etzuten gauza garbirik atera... Ez-

kutuki ori, urre ta pitxi pillo ika-ragarria. Eta orren tokia mayo-razkoak bakarrik zekian. Lenbiko erregiñarentzat zegoan dena gordeta.

Ranimiro, Goñitik itzuli ta emaztea ostu ziotela konturatu zanean, atera zan euskal mendietara ta ezbear mordo batzuk egin zituan. Ola zebilela Petronilakin topo egiten du ta arek agintzen dio laster jakin eraziko diola nun dan Usua.

Laster jakiten du Ranimirok nola Usua Aitormendin, orma-barruan, dagon.

Ranimirok agintzen die, Usua ta Petronilari, ura askatutzeagatik ez duala euskal odol tanta bat ixuriko.

Illargi beteko gau baten Ranimiro irixten da Aitormendira ta arkitzen du Usua ilda, alboan neskaxko jaio berriarekin.

Ranimiroren gudariak etxean nasteen dabitzala Basurdek etxeari su ematen dio. Ranimirok Juxtu-juxtuan du aztirik alabatxoarekin kanpora ateratzeko. Basurde, igesi dijoala, azkon batek atzetik jo ta iltzen du. Ta Ranimiro egun artatik Aitormendiren erreztalle izango da erriaren aoan.

2.—Ogeiren bat urte igaro dira. 711'garren urtea da.

Ranimiro, bere alabarekin, Cantabria'ko gaztelutik Iruñara dijoa.

3.—Las dos Hermanas'etan Garziak arrapatzen ditu ta Goñira eramán.

Gorin Garzia, Ranimiro ta Ama-

ya adixkide egiten dira.

4.—Egun aietan Toledo'ko errege Rodrigo euskaldunen aurka zetorren.

5.—Baña bat batean Iruña asal dutzen zaio juditarrak buru dirala, ta uria artu ta zeozer geiago egin bitartean mahomatarrak Betican' dituala jakiten du. Utzi dena bertan bera ta ara dijoa.

6.—Garziak askatasunean uzten ditu Ranimiro ta Amaya.

7.—Urrengo egunean-edo Andeka, Bizkaiko jauna ta Garzia Beticara dijoazte, moroen aurka.

An il zan Andeka, ta bere jaun-tzan Eudon I'ak, bere semeak, jarraitzen dio. Bizirik geratu ziran euskaldunen artean Garzia izan zan bat. Rodrigo gudan iltzean Teodomiro egiten da errege. Eta Teodomirok Garzia Vasconia'ko duke egiten du. Garziak ezdu aztirik galtzen bidean. Ta laster da Iruñan.

8.—Baña aldi batean, Eudon da Vasconia'ko duke, Rodrigok egíña. Eudon, bera, Aitormendi aldean da, Garzia Iruña'ra irixtean, baña bere ordezkariak burruka larria egin dio Garzia'ri uri barruan.

9.—Orduantxe asten da Iruña artzea, ipar aldeko atetik asita. Denbora gutxi bear du Garzia'k Iruña artzeko.

10.—Berak, Garziak, Goñiko Teodosio nai du erregetzat. Baña Teodosiok bere aita ta ama iltzen ditu ta Aralarrera joan bear du penitentzi egitera.

11.—Orrela Garzia Amaya'rekin, Usuaren alabarekin eskongai, Naparruko lenbiziko errege egiten da (3).

12.—Oraindik ez da 712 baño geiagorik.

13.—Laister agertzen dira arabitarrak Ebro aldean ta Garziak nainko du borroka aldi bat mahomatarrak Ebroz bera uzteko (4).

Aztertu dezagun:

Uste det 1 ta 2, argi-argi, nobela utsa dala danentzat.

3.—ere eztabalda asko gabe eman-go didate nobelatzat.

4.—Zati au, ixtori utsa da, baiña ez da nobela guztia ixtoriko dala esateko beste.

5.—Emen ba-dago zer esanik:

**Amaya'rentzat** Rodrigo Toledo-tik atera zanean Iruña berea zan. Ikusi: ...“se decretó la guerra y tropas y más tropas, y municiones y bastimentos fueron llegando a... , Ologitum y Pamplona” (5).

Beste aldera **El Ducado de Vasconia'rentzat** Iruña euskaldunena zan: “Rodrigo deseaba hacerse con Pamplona, e ignorante de todo lo que pasaba en su casa, se fue con todos sus ejércitos a poner sitio a nuestra ciudad” (6).

Azken itzak “nuestra ciudad” dira, ta ez judioena.

6.—Ez degu zer esanik. Lengo nobela saillari aria ateratzea besterik ez.

7.—Libro II'tik asita egilleak ar-dura aundi bat erakusten du: Godoak eta euskaldunak, mahomatarren aurka, alkartuta ikusi nai ditu. Ez ote da, Villoslada karlista amorratua izanik, bere tesisa nobelaren bidez indartu naia? Antzifiatik euskaldunak eta espafitarrak adixkide izan zirala, orregatik dantozako errege bat don Karlos, baiña euskaldunak euren askatasuna galdu gabe, fueroak...

Garzia lurralde aietara joan zala egilleak ere ez du ekartzen ixtoriko bezela, baiña bai Andeka joan zala.

Emen korapillo beltz bat degu. “Amaya” ta “El Ducado de Vasconia” bakoitza bide batetik dioa.

Nor zan Andeka? “Amaya”k dienez Bizkaiko jauna. “El Ducado de Vasconia”n agertu ere ez da egi ten izen ori.

Pentsa dezagun Andeka Lupo I zala. Eta oraindik ere ez legoke dena garbi.

“Amaya”k esaten du Andeka Guadalete'n il zala. Ta bere erioztzan Eudon I'k artu zuala Bizkaiko jauntza (7). Baiña Guadalete 711'an izan zan eta Eudon I'ak 710'an asi zuan bere agintza (8).

(3) NAVARRO VILLOSLADA, F., *Amaya*. Madrid, 1879, T. III, p. 473.

(4) *Ibidem* T. III, p. 472.

(5) *Ibidem* T. I, p. 6.

(6) ESTORNES LASA, B., *El Ducado de Vasconia*. Zarauz, Icharopena, 1959, p. 56.

(7) NAVARRO VILLOSLADA, F., *Amaya*. Madrid, 1879, T. II, p. 272.

(8) ESTORNES LASA, B., *El Ducado de Vasconia*. Zarauz, Icharopena, 1959, p. 60.

8.—Au ere dana nastean. Rodrigok Eudon Iruña'ra bialdu zuan ta len ikusi degu Iruña etzala be-rea. Gaiñera, Eudon onek ez du euskal arnasarik ere, juditar rabi-no baten seme baitzan.

Eta ezin diteke Eudon aundia- rekin bat egin. Eudon onen aginta- ritza egun bikoa izan zan, eta ezer- tan etzuan agindu. Eudon aundia- ren denboran, ordea, Viskonia-Aqui- tania'ko konderrria bere aintza ga- lurrenera iritxi zan.

9.—Etzegon zertan arturik.

10.—“El Ducado de Vasconia”k Teodosioren bizitza titulo onetxekin dakar: “Aralar: Leyenda de Teo- dosio de Gofñi” (9).

11.—Aitorren senide guztien bi- zitzak nobela utsez artzen ditut.

“El Ducado de Vasconia”n Ene- ko Aristak ez du Amayarekin ez- kondu bearrik errege izateko; Eus- kalerriko jaun guztien obediencia naiko du errege izatera irixteko (10).

12.—Eta “El Ducado de Vasco- nia”n 823'an gutxienez.

13.—“Amayak” Ebron bertan uz- ten ditu mahomatarrok. An bo- rrokatxo bat egin eta arabitarrok bê aldean geldituko dira bein beti- ko.

“El Ducado de Vasconia”n ordea, gorriak eta beltzak ikusi zituzten euskaldunak.

Iruña galtzen degu. Mahomata- rrak Pirineos'ak igarotzen dituzte

ta Prantzi'ko Tolosa'n jokatu bear izan genuen gogor 350.000 arabitar etzinda uzteko (11).

Esan degun guztiarekin uste det eman genezaiokela “Amaya”ri epai zuzen bat.

## TXAPELTZAT

### (Aginpidea)

“El Ducado de Vasconia”k dio- nez dukeak erregeak beste agintza zuten, bai zergak batzeko, bai gu- darozteak osatzeko, ta bai beste edozer gauzatarako (12).

“Amaya”k ordea, esaten du aldi artako aginpidea Aitormendi'koak zutela, ta iñolaz ere aginpide ori izenez bakarrik:

“La casa de Aitor ejercía una cierta soberanía en todas las siete tribus, sin distinción de cristianos ni gentiles” (13).

Eta gudarako:

“Mañana se levanta de mal hu- mor el señor de Gofñi, el de Gue- salaz, o la Berrueza porque los godos le han robado sus rebaños, o porque se le ha indigestado la cena; pues toca el cuerno de caza para congrega a sus vasallos y los arma como puede. Cuando más pide auxilio a los señores comarca- nos... descende a tierra enemiga. Tala campos, saquea granjas...

(11) *El Ducado de Vasconia* ps. 64, 65, 66, 67.

(12) NAVARRO VILLOSLADA, F., *Amaya*. Madrid, 1879. T. I, p. 69.

(13) *Ibidem* T. I, p. 246

(9) *Ibidem* p. 204.

(10) *Ibidem* p. 177.

recobra el ganado con usuras... Con esto se le aplaca la ira, se le asienta el estómago y torna a su palacio" (14).

(Uriak)

Amaya'tik artutako itzak, Iru-  
fiatzaz:

"Desde que Pompeyo erigió o fortificó la "buena ciudad (Iruña), de los imperiales romanos pasó a los bárbaros del norte sin que ni siquiera un día fuesen dueños los vascos de tan codiciado presidio" (15).

"...la inexpugnable ciudad que desde remotísimos tiempos mortificaba el orgullo de los vascos..." (16).

III T. 94 p.'an ere atzera itz egi-  
tzen du. Eta nobela guztian arkitu  
genezake beste ainbat itz berdiña  
esaten dutela.

Calahorra, Ologitum  
Victoriaco, Ondaribia:

I T. 6 p.'an eta II T. 422'an jar-  
tzen duanez ere uri auek ere godoe-  
nak ziran. Eta I T. 6 p.'an esaten  
du euskaldunak etzutela uririk:  
"...otras máquinas de batir no

eran necesarias, ...los montañeses no tenían más fortalezas que sus rocas y desfiladeros" (17).

(Mugak)

Mugetan ere ba-dago ezberdiñik:  
"Dominaban los godos por un lado de las llanuras comprendidas entre las dos cadenas de montañas que arrancando de la parte superior del Ebro y separándose en Alava tornan cast a juntarse en la Buraunda; y salvando con harto peligro tan angosto paso, llegaban los conquistadores a la cuenca de Pamplona, ciudad que constituía su principal presidio. Y por el lado opuesto, es decir, por la parte del Arga sefiáanse a las pingües riberas de este ría desde su desembocadura hasta aquella plaza, donde se unían entrambas curvas. (...) En el centro de ese círculo respiraban en libertad los sierras de Cantabria, de Urbasa y Andía, con los ricos valles que esmaltan sus laderas como vellones de un manto de armifio..." (18).

"El Ducado de Vasconia"n ez da berdin.

(14) Ibidem T. II, p. 89.

(15) Ibidem T. II, p. 74.

(16) Ibidem T. I, ps. 6, 7.

(17) ESTORNES LASA, B., *El Ducado de Vasconia*. Zarauz, Icharopena, 1959, p. 60.

(18) NAVARRO VILLOSLADA, F., *Amaya*. Madrid, 1879, T. I, p. 2.



Askok eta askok gaizki irizten dugu Lutero'ren lenengo bizitza, Elizarekiko zirti-zarta egin aurrekoa, ain zuzen. Esaten danez, beintzat, erlijioso ona, zuzena zan. Iñortxok ez daki ziurki bere gerokoaren berri, ez-ezagunak baidira Jainkoaren bideak. Pago lerdena bere adarrak bost aizetara edatuaz, bildur da aizkoraren lanak edo pipiak jango duan. Lutero'ri orrelako zer-bait gertatu zitzaion. Azken aldian zalantsu, ekurugaitz, bere gogorakizunen edo gau-beltzean sarturik zebillen. Bizitza au, geroko bere dotriñaren arnasa izango da. Bere bizitzaren zati edo atal bat.

Alde batetik au dala-ta, bestetik okamista dotriñaren giro epelak eraginda, zart egin zun teoloji katolikoarekin, eta ondorioz, zenbat dogmakin. Santo Tomas'en teoloji betikorra gibelera jaurtirik, zalantza edo kezkaldi larri batean erori

# LUTERO ta MORALA

— XABIER GARMENDIA

zan. Okamismo dotriñatik egin zun bere jarrai-bide.

Lutero'ri barruak iñarrosten zizkion auzia au izan zan: ots, gizona nola diteken zintzo Jainkoaren aurrean. Muzin egin zion okamisten "potentia ordinata"-ri, au da, gizona zintzo izan eta salbatu ditekela grazirik gabe. Baña "potentia absoluta"-ri eratxiki zitzaion: ots, gizona salbatu ditekela pekatu astunean egon arren. Pekatua ta grazia ez dira mokoz-moko dauden bi gauz.

Jardunetik. Jainkoa bere izatez guztiz da epaille zintzoa, berebat, asarrekorra. Gauza bi auek erabat uztarturik daude beragan. Lutero'k, gizonak pekatu eginda une berean, Jainkoaren legea betetzeko gai etzala gelditu zala, zion. Jainkoaren mandamentuak ezin beteak dira, baiña betetzen ez dituan gaitiera, bearrez eta adur gaiztoz Beraren asarreak atxilotuko du. Jainkoak darakusa bere legean zer bete bear dan, baiña gizonak ezin du bete, ezifaren ezifiez: "quid debet, non quid possit". "Zer egin bear dun, ez zer al dun". Legea Jainkoaren asarrearen agiri bat besterik ez da: "non implesti, nec potes et tamen debes". Etzenun bete, eta bete ere ezin dezakezute, baiña ala ta guztiz ere kunplitu egin bear duzu"...

Mandamentuak zergatik dira ezin beteak? Lizunkeria adimenari nagusitzen zaiolako, ta berau zapaltzen eta ezereztan dulako.

Gizonak pekatu egin-geroz, Jainkoa ta gizonaren artean gaindu eziñeko leize bat eraiki zan. Une artatixek Jainkoari buruz, ez "analogice", are gutxiago "univoce" ta "equivoco" predikatu ziteken. Gizonaren izan muña erauzia izan zan Jainkoaren antz-iruditik. Itz batean eta garbi esateko, etzaio ez antzeko ta ez irudiko.

Ara nola dakusgun gizona bere barruko espetxean sarturik, bere baitan galdurik. Era ontan gizonari beti pekatuan egotea dagokio. Alperrik ekingo dio bere indar eta ekifialetan mandamentuak betetzeari, amets guri bat besterik ez baiditzake. Bañan Lutero'k, zorionez, bere dotriñaren ostu artetik argi izpi bat sartzen uzten du. Jainkoaren asarrea baretzeko ta aizatzeko, ain zuzen, sentimendu bat ipini zigun: "bildurra". Gizona pekatuan dago egon. Lutero'ren aburuz, gizona Jainkoaren aurrean zintzo izan ditekela uste izatea izango litzake pekatuak aundiena, makurrena. Arro utsa litzake. Egin onez zerurañoko zurubilloa erakitzea ausartzen danari, Jesus'ek Berri-Onean dion bezela, obe litzaike kontuak atera lenbizi, ezperen etxeari tella ezin emanik arkitzen dalarik, parra ta ixeka ez dagioten.

Beraz, egin onez zuzen izan ditekela uste izatea ta, gañera, norbait bere buruz zuzena dala sinistea, bi auek izango lirake pekatuak nardagarrienak. Baiña aundienak izan

arren, alik errezen guregandik kanporatu ditzazkegu. Nola? Jainkoaren legea ezin beteak gure ezerezen kakoa adirazten digu, ta onela gureganako uste ona kendurik, gure animaren barruan larrimüña dalako sentimendu gaizto bat jaitzen da, gure animak ezertxore ez dezakela oartzean. Eta ondorez, ezin diteke salbatu, salbatua izan baiño.

Iñork iñoi ez du bete izan Jainkoaren legea, baizik eta Kristo'k bakarrik. Beronexek bakarrik osokiro. Jesukristo ta gure arteko bereiztasun onek, gizonari bere barruko eragin guziak loratzea ta bide onean jartzea eragozten dio. Jesukristo guztiz zintzo, altsua; gu oster, indargabe, aul, ñaño. Kristo imitatu nai izatea, orra or beste pekatuak aundienetakoa.

Era ontan, egiazko kristauari bere bereganako itzultze —accusatio sui— garratz ontatik areago joaterik ez dagokio, baizik eta bere bearren gorria somatu, larrimüñaren eta ezerezen etsipena artu, Jainkoaren aurrean bildur ikaretan makurtu ta Kristo'gan itxaropena eukitzea baño.

Lutero'k bi bide ipintzen ditu Jainkoaganaruntz: "**Justitia passiva**" dalakoa ta **sinismena**. Lenen goa, guregan baiño gurerik gabe egiten dan barruko mugin bat da. Orregatik deritzaio passiva edo datorrena. Mugin ori guri gertatzen zaigu, baño gure bitartekotasunik

gabe. Anima egonean dago ta, bear bada, Jainkoa bere anima ortan ezarriko da. Alare, egonean datza.

Bibarren bidea: **sinismena**. Katolikoenetik bereizten da. Auena Jainkoaren maitasunean tinkaturik dago. Aiena, berriz, utsaren utsean ofiarrituta, ots, sinismena maitasunik gabe. Au da, zintzoak izan gaitzekela Jainkoaren aurrean, sinismenaren bidez, uste izatea da sinismen ori. Lutero'k ez du esaten sinismen au Jainkoak emanik edo gizonak berak sorturik dun. Baiño kontentu dago "egin onetan lenengo ta goienekoa" dala esatearekin. Gizonari sinismen au aski zaio Jainkoaren lenengo mandamentua betetzeko. Ara nun ikusten dugun Lutero ao batean bi mingaferi eragiten. Arestixen esana dugu gizonak ezin dula ezer egin zintzo izateko; eta sinismena ez al da, ausaz, egin goresgarri oietako bat?

Ikusi danez, Lutero morala baliorik gabeko gauza bat zala esatea iritxi zan. Gizonak pekatu egin zun une artatik, bera ta Jainkoaren artean leize bat sortu zan; Jesukristo'k bere Nekaldiarekin eta are gutxiago bere buruz inolaz bete ezinezkoa. Ta Jesukristo'ren Nekaldiko grazi guztiak zertarako

izan ziran orduan? Beraz, gu, grazi auen artu-ontziak besterik ez gera. Ez onera, ez txarrera ez gaituzte eragiten. Gizona nai ta nai ez pekatari da. Orain, Lutero, sartzen da pekatuaren barna ikertzaille bat bezela, ta bere sakontasunean arakatuz, aterako da "pekatuaren aunditasuna" esanez. "Pecca fortiter sed crede fortius" izango da Lutero'ren fraserik arruntena. "Egin pekatua gogotik, baiña sinistu gogotikago". Baiña, ez ditugu ulertu bear itz oyek axalezko esan naiez edo gisa. Gizonak pekatu egiteari ezin dio amor egin. Ondorez, komeni zaio bere izatearen egoera negargarria ikustea, ta gogomanik bere zoritxarraren egi nardagarria Jainkoagan itxaropena ipintzea leiatzen da. Pekatua izanik gizonaren pirrika, alperik ekingo dio zintzo edo zuzena izateari.

Lutero'k naiago du gizon bat bere pekatuan, apal, otzan ikustea; arrokeriz ta alperrik onbideak beraganatzen diardun gizon bat ikustea baiño. Beraz, "pecca fortiter sed crede fortius" esaerak ez du bat pekatu egitera eramaten, baidarik eta sinismena-bidez bakarrik zintzoak gaitzkeala, ots, pekatari ezin itzuliak gerala gogomatea baiño.

# PEKATUA

Graham Greene-n

## IDAZ-LANETAN

JOXE MARI AGIRRE.

Santu batekin itz-alditxo bat egin ahal izateko bidea emango balitzai-gu, santu pekatari bat aukeratuko gendukelakoan nago. San Agustiniengana San Luis Gonzaga'rengana baño lenago joko genduke geientxuok; San Luis Ganzagari ezer kentzeke, noski. San Agustín bera ere pekatari izan baizan eta gu bezela pekatari izandako santu batek asko erakutsi lezaiguke. Santutasuren ez bada ere, alkarren antz aundia baldugu pekatuan.

Nere ustez, bide berdinetik dijoa Graham Greene ere eta guk san Agustini elduko genioken bezela, Graham Greenek Scobie, Sarah, eta Maurice ditu bere gogoko. Interes berdiniak garamazte aukera ortara.

Von Hildebrand'en iritzi; "Greenen nobelak pekatu eta pekatari kezka gelegiz beteta daude; batez ere, pekatari ori protagonista edo

heroe danean. Gizon zuzenari, berri-iz, bestela egiten dio: pariseotar, arro, ez otz eta ez bero eta maitasunik gabea agertzen digu au".

Mary McCarthy urrutirago dijoa. Begira zer dion: "Greenek beste guztien gafetik pekataria jartzen du eta zuzenak ez ezik Zuzentasuna Bera ere ardo usaiez eta izara zikifiaz inguratzen du".

Zorrotzak orratio bi iritzi abek, zitalegiak nere iritzi. Bai Von Hildebrand eta bai Mary McCarthy urrutiratxo joan dira, neurri guziet eraginda dabilte eta ez da orrenbesteraño.

Dana dala, Greenek garrantzi aundia ematen dio pekatuari eta bere liburuetan beti azaltzen du burua pekatuak. Inportantzirik aundien-aundiena pekatuak eta pekatarien burrukaldiak dute bere idaz-lanetan.

Bikote au miatu nai du, gaitzeantze-koak aitzaki bat dira.

Pekatariak pariseotar batek edo azal utsezko zuzen batek baño geiago maitatzen duala diño. Gaham Greenentzat lege soilla betetzea baño lenagokoa da maitatzea. Gafiera ez dirudi maitasuna eta legea uzta-rrian lotzeko asmoan dabillenenik, al-kartu ez baño geroz ta geiago al-debanatzen ditu.

Pekataria edo maitalaria protago-nista biurtzen du, zuzen itxurakoa edo lege betetzallea antagonista edo aurkalarari bezela.

Gizonaren barrena gutxik bezela ezagutzen du Greenek eta askok eta askok deus ez dakusten lekuan ere pitxi ez ezagunak arkitzen diz-kigu. Ontan iaioa degu benetan. Prolema guztien iturria billatzen, aparta. Eta prolema latz denen iturria, pekatuaren misterioa da.

Greeneri "connaisseur de conflic-tos" (konflito ezagutzaille) deitzen diote. Konflitoa alkar ezin ikusi duten gauza bik sortzen dute.

Greenek pekatariaren eta zuzen-itxurakoaren artean, arrazoiaren eta sinismenaren artean, Naturaleza eta Naturaleza-gaindikoaren artean, eta giza-utskeri eta Jaungoi-ko graziaren artean billatzen dituan konflitoak aztertu nai genituzke. Konflito oieri Teologi aldetik iku-si-lege bat eman nai genieke.

Pekatuaren ezaugarriak edo arrastoak iru auek dira: Autokon-denatzaille, ausi ezifia eta beste ifo-ri adierazi ezifia izatea. Iru puntu

auek goitik beheraño azaltzen diz-kigute Greenen personajeak.

Ez Scobie'k, ez Sarah'k, ez Aita Callifer'ek eta ez Maurice'k ez dute autokondenazio ori lurperatzen, bein betiko izkutatzen. Berekin da-ramate eguzki itzala bezela. Ala ere noizik beinka eta autokonde-natze edo autogorroto orren tar-tean, maitasun izpiren bat azaldu oi da, ostartean eguzkia lez.

Paradoja au onela konpreni dite-ke: Jaungoikoa zenbat eta guregan-dit urrutiago teolojiz, sikolojiz or-duan eta erosoago ta gurekiñago degula. Onek zer esan nai duen orain agertuko degu:

Bekatuak grazi-santutzallea ken-tzen digu eta bekatuan ilko bagifia, inpernura ginjoazke. Jaungoikoare-kin zuan adiskidetasuna galduta gelditzen da pekataria, Berarekiko batasuna ausi baidu. Sikoloji espa-rruan, ordea, orduan da berekiñago eta gertuago dauka Jaungoikoa bekatariak.

Greenen pekatarietan ez ote da orrelako zerbait gertatzen? Autogo-rrotoaren eta Jaungoiko maita naia-ren paradoja ez ote da orrela es-plikatzeko? Adibidez, Callifer bera ere paradoja orrek darabilki, Zen-bat eta geiago Jaungoikoa gorrota, orduan da gertuago zeukan. Ez bai-dago akulluari ostiko ematerik.

Maritainek dionez Ateismo berri bat sortu zaigu. Agiriz Jaungoikoa bazterreratu ta urrutiratzen duana. baño barrenez eta sikologi espe-

rientziz Jaungoikoaren gertutasuna nabaitzen duana.

Orain Greenen nobeletan azaltzen dan beste puntu bati elduko diogu. Gauza jakina da Teologoaren artean, pekatuaren mende iltzen danak betiko kaltea eta zentzuen zigorra gafean dituela eta Jaungoikorik gabeko leizean amiltzen dala.

Puntu au Aita Leen'en arrimuan ofiarrituko degu. Grazi santutzalea zeru bizitzaren atari dala dio onek. Grazi santutzalea zeruraño dijoan iturri baida. Baño berak trinkatu nai duen ideia orain dator. Jaungoikoaren grazian dagon katoliko bat bearko pozik eta alai bizi; Zeruan eramango duen bizitza berbera baidaramaki.

Aita Leen'ek grazi santutzailleaz egiten dabena pekatuarekin egin nai degu guk. Pekatuan dagona ez ote da ari inpernuko oñaze aiek bere psikologi egonaroan esperimintatzen? Dotriña onekin ez ote ginduzke Scobie'ren, Maurice'n eta Sarah'n esperientzi garratzak obeki konpreni eta Teologian sartuko? Ez dakit danok bat ote gatozen iritzi ontaz baño Greenen liburuetan ba-da orrelako zerbait.

Goazen aurrera, beste kokka baten billa. Oraingo au "Visita a Morin" liburutik jasotzen degu. Dunlop sal-erosketan ibiltzen diran gizon oietako bat da, eta Morin

ikustera joaten da Gabon gabez. Dunlop ori sinisgabea da, baño ala ere apaiz katoliko batek eman dizkion liburuak bi irakurri ditu; "Liburu oietako bat, Kristau ikasbide edo Dotriña zan, galderaz eta erantzunez josita, noski. Il da gero orratzez jositako txinbirrita bezelaxe, ildako misterioa zekarkian liburu orrek. Izan ere ainbeste galdera eta erantzun "asurduak" bizia kentzen bai zioten".

Alkar-izketa lijertu danean, onela mintzatzen zaio Morin Dunlopi: "Jaungoikoagan eta Jaungoikoari dagozkionetan sinistea ez da ain zalla, Eskolastikuen utskeri eta goraberatan sartzen ez bazera. Irutasun Donea edonork aitortu lezake baña beren probantzak... Jaungoikoa ba-dala probatzeko ba ote da Eskolastikoen argumentuak baño traketsagorik? Askok idatzi didate nere liburuei eskerrak sinismena arkitu dutela esanaz. Neronek sinismena galdu ta gero ere, askok sinistu omen dute nere liburuen bidez, sano dagonak batendik bestee-na gaitza daraman bezelaxe".

Nere ustez, bi gauza garrantzikoak agertzen zaizkigu itz auetan: sinismena edo Fedea (Teologi onbidea, Jaungoikoagandik datorrena) eta jakite soilla (Adimenak berez eta probantza bidez iritxi lezakena).

Gizon batek sinismen osoa eta itxua eduki arren, Apologetikako

probantza batzuek kolokan ikusi ditzazkela eta bere barruan zerbaiten zalantzan gorde dezakela esan nai ote digu Graham Greenek? Edo ta probantza guztiak arrazoi soillez argi ta garbi ikusi arren, oraindik ere sinismen gabe egon liteke-la?

Bi postura edo egonaro auek eman ditezke eta guk uste baño ugariago dirade. Ba-dira argumetu oro ontzat ematen dituztenak eta jakintza aldetik ziur dagozenak, baño alaz ta guztiz ere sinismena palta dutenak; sinismen teolojiko edo Naturaleza-gaindikoa, noski. Baita ere ba-dira, ziur sinisten dutenak, sinismen sakona daukatenak baño probantza denen baliorik ez-dakustenak.

Ba-dakigu adimen utsa edo arrazoi bide soilla bakarrik ere, Jaungoikoa ezagutzeko gauza dala (kapaz dala), baño ez da premizko argumentu bakoitzaren mamia ekus-tea.

Graham Greene bide ortatik di-joala derizkiogu eta bere "The Potting Shed"-en ere oni eusten dio. Ortodoxiaren erdiz erdi dabillela ziurki baleztu genezake.

Auxen da bada, Greenen liburue-tako pekatuaren prolema ta misterioa.

Oar bat: lan au eratzeko, LUMEN (Mayo-Agosto, 1960 n. 3) erabilli det.

# FISIKAZ ETA...

Fisikako gaiak euskeraz erabiltean, egungo jakintzari ta teknikari dagozkien itzak nola eman erabaki bearrean arkitzen dut, alabearrez, nere burua. Izan ere, gai auetaz jardutean eztaukagu beste batzuek diardugunean bezela oiturari ta idazle zaharreri begiratzerik, alperrik billatuko baitugu oiengan ofiarri ta argipide.

Idea berriak eman bear ditzadanean zalantzik ez: SPIN, ELEKTRON, FOTON eta abar lasai erabil ditezke nere ustez, munduko izkera guzietan erabilli oi diran arauera.

Beste batzuetan, alderantziz, ez-tugu ulerterrez eta euskaldun fin-katzeko iflora jo bearrik izango. PLUVIOMETRO, esate baterako, zatirik-zati euskeratu ta EURI-NEURKIN edo esango genuke, "eu-ria" ta "neurketa" ideak besterik ezpaita bearrezko itzaren esanai osoa adierazteko. Onelatsu, erderazko INERTE IGIKAITZ dugu, ta fi-

sikaz ari gerala INERCIA emateko eztugu IGIKAITZASUN esan baño.

Besterik ta ordea erderazko itza, bere esanai zabalagotu edo mugatu egin dala ta jatorriz zegokione-tik urruti xamar dabillenetan. MA-SA, adibidez.

Jatorriz, itz orrek gure ORE adierazten zuen bafia, arrezkero, bere esanaia zabalagotu, ta gauzen gaia edo; MUKULUKI (ots, muku-luaren gai) ematen zidan bein nor-baitek ori adierazteko, MUKULU "Bulto, volumen de un cuerpo" da-larik.

Arrezkeroago erderak, itzaren esanaia izen-lagun batzuen bidez mugatu, ta MASA INERTE, MASA PESANTE, MASA MAGNETICA ta orrelakoak erabilten ditu. Oietarako ORE ta MUKULU ezin erabil ditezkelara argi dago. Zer esapide aukera bada bidekurutze ontan?

Oso-osorik erderatik artu ta MA-SA INERTEA, MASA PESANTEA e. a. esateari ezterizkiot egoki, ez-



pailitzake ez euskaldun eta ez ulerterrez. MASA itza dagoen ortan erderatik artu ta euskerazko izenlaguntzallea erantsiaz MASA IGI-KAITZA, MASA AZTUNA (edo IGIKAIZTASUN-MASA, AZTUNTASUN-MASA) ematea berriz onargarri ba-ditekela deritzait.

Beste era bat ere erabilgarri ditekete, nere ustez, MASA itzak fisikan daukan esanaia euskeratuaz; onelatsu: IGIKAIZTASUN-GAI, AZTUNTASUN-GAI, IMANTASUN-GAI, ta abar.

Orrelakoetan, nere aburuz, itza-aren esanaia euskeraz osorik, zeatz eta errez eman ditekeneetan azkenengo bide au genuke egokien; zenbait eta oiek zallago, ta beste izkuntzen zordunago izan bear.

Gai onek eztu orain, zoritxarrez, gaurkotasun aundirik. Noizbait izango al du, Lizardi-rena egia egifik:

Baña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa...

Egungo fisikak erakusten digunez, bizi-toki dugun mundu au berez lau neurri dituan mundu baten iru neurrizko (luze-zabal-sakonezko) ebakera bat dugu, guk nabaitu ezteza-kegun laugarren neurri bat ere badagoala. Zineko erakus-zapian agertzen diranak bizidun ba'lira berak ezagutuko lituzketen luze-zabalez gañera guk ikusten dugun eta aierri ez-ezagun litzaieken sakona bezelatsu, alegia.

Gaur auxe azaldu nai nuke: Aldizko ta aldezko neurketen erakortasunari buruzkoetan bezela, fisika-

ren beste gai batzueri buruzkoetan ere laugarren neurri ori dugula ulerpide bakar. Indar-lekuneeri buruzkoetan, adibidez.

Zerbait lurretik jaso ta jare utzi ezkeru gertatzen dana guziok dakigu: Erori egiten dala, alabearrez. Ludiaren erakar-indarrak daragio orretarako ta, gertatu dan ori adierazteko, zer ori ludiaren erakar-indar-lekunean zegoala esan oi dugu. Auxe dugu bada indar-lekune bat: Indar orren eragipena nabari dan zabaldiaren (1) zatia.

Luditikan oso urruti, bañan ala ere ludiaren erakar-indar-lekunean dagoan azentsore bat ba-dala pentsa dezagun. Onako baten, soka eten eta ludiaren erakar-indarrak eraginda ba-dator berantz. Etorri datorrela aur bat bertan jaiotaki, ta fisika ikasteari ekingo ba'lio, elitzake bein ere ludiaren erakar-indarrak oartuko, bere "mundu" ortan zerbait aidean utz ba'leza berantz egiteke berak utzitako tokian bertan geldi bai-legoke.

Ortan ikus ditekenez, indar-lekuneak ere ezтира orotariko, erakor baño ta, Fisikak erakusten digunez, indar-lekuneak oro deusezkarri dira izan, bakoitzari dagokion igilegea bear bezela autatu ezkeru.

Bestalde, indar lekuneak zer-nola ditezken aztertzen asi ezkeru gauza ulerkaitzik arkituko dugu. Arri bat aidean jare itzi ezkeru erakar-indarrak eror-arazi egiten dio, ba-

(1) ESPACIO adierazteko erabilten dut. Lizardi'k "zabala" erabili zuen.

fian zer ote du indar orrek luditikan arriaganaño hedatu ahal izateko tinka-leku ta igaropide? Utsa ote? Zentzuak ezin ori onartu, soka eten batekin zerbait karriatu nai izatea bezela bai-litzake.

Kinka ortan, erakar-indarrak luditikan arriarengana eltzeko bien artean utsa ez, bañan tinkapideren bat bearrezko zaiola zentzuzko dan ezkerro, fisikalariek, bitartean zerbait ba-dala aitortu, ta "eter" izena jarri zioten. "Eter" orren tasunak auek bear zuketen: Gauza batzuetarako mehe, ta beste batzuetarako tringu; baterako oretsu ta besterako beriz aritsu; aztun, eta bidebatez aztage. Ezin ditezkenak beraz; izen utsa genuen "eter" dakala ori, noski baño noskiago.

Bañan, "eter" onartu ezik lengo artan diraugu ordea: Indarrak bere lekuneak barne hedatzeko zertan tinka ditezkenaren ezjakinean. Jo dezagun orain ere, ulerpideketa, zinema-zapikoek biziko ba'lira pentsatuko luketena aztertzeraz.

Zine-makinatik zapira bidean otzak edo aizea tringotu ta lente baten atzera argi-izpiak bil-arazten dituan une bat ba-dala pentsa dezagun. Toki ortatik igaroten diran argi-izpiak bildu ta zapiaren zati berean gerta ba'litez, zapiko biztanleek auxe ikusiko lukete: Bere "munduko" zati orrek gauzak erakarri egiten dituala, alegia. Berak eztakite ordea bere mundutikan at gartatzen danaren berri, ta bere munduan (ots, zapian) billatuko lu-

kete gertakari orren argipidea. Toki ori erakar-indar baten sorburutzat joko luke eskierki... ta orra indar-lekune bat asmatu.

Alegiago: Aiek ere, guk gure munduan bezelatsu, ez lukete bere bi neurrizko munduan indar orrek, urrutira hedatzeko, zertan tinka ote zezaken arkituko.

Guk berriz, gure irugarren neurritikan begiratzen ditugula, auxe ikusiko genuke: Zapiaren zati orrek eztuala ifiolako erakar-indarrik, eta zapikoek ezagutzen eztuten irugarren neurri ortan datzan ezberdintasun bat, makurgune bat litzakela izan uste utsezko indarlekune aren sorkun.

Onelatsu, iru neurrizko munduan bizi geranortzat ere, laugarren neurrian dautzan makurguneek ditugu indar-lekune itxuran agertzen zaizkigun gertakizunen zio ta jatorri.

\* \* \*

Bitariko zerak bereizten zituzten gure mundu ontan orain arteko fisikalariek: Ekaia (2); aztun, igikaitz eta indar-lekuneek daragiote-na (arri bat, burni zati bat). Eta energia berriz aztage, igikor eta indar-lekuneek eragiten eztiotena (beroa, argia, ta abar).

Bereizkuntza ori bidezko ote dan aztertzeke, eman dezagun orain ere azeztore bat, bañan erori bearrean

(2) MATERIA.

igoten ari dan bat, oraingo ontan. Azentsore orren alde baten txulo bat ba'lego, ta bertatik argi izpi bat sartu, bertako fisikalariek argi-izpi orrek beste aldera orduko bere munduaren be-aldera zertxobait egiten duala ikusiko lukete, ta bere mundu ortan argiari bera eragiten dion zerbait ba-dala uste izango: Indarlekune baten itxurakoren bat, ain zuzen ere.

Ekaiarekiko indar-lekunez geniarduanean ikusi dugunez, indar-lekuneak igi-arau baten bidez deusezkarri dira. Orain berriz, igitzeak indar-lekune bat edo ager-arazten du, bañan oraingo ontan enerjiarekikoa. Indar lekuneek, ekaiari ez-ezik, enerjiari ere eragingo ote diote beraz?

Bai noski. Fisikalariek eguzkiaren illun-aldiez baliaturik egiztatu ahal izan dutenez, izarretatik dator-kigun argia eguzkiagandik urbil igarotean makurtu egiten da; ots: Eguzkiaren erakar-indarrak argiari (enerji utsezko zer bateri beraz) eragin egiten dio.

Ona bada ekaiaren eta enerjiaren arteko bereizpidea galdu, ta biak gauza bakarra dirala aitortu bear. Einstein'ek eman zuen baten bestearekiko eina jakiteko bidea:

$$E = m \times a^2,$$

"m" zerbaiten aztuntasun-gaia ta "a" argiaren arintza dirala, E zer orren enerjia dalarik.

Askotara egiztatu du geroak Einstein'en ori. Atomikazko ler-egitean ekaia austen danean, zertxobait

enerji uts biurtzen da, galtzen dan ekai-puska ta sortzen dan enerjia idazlabur orrek dion einean daudela.

Alderantziz, foton batek (argi-kiza batek, enerji utsezkoak beraz) elektron-positron bikote bat sortarazi dezake (3).

\* \* \*

Oker ezpa'nago (ta kosmolojilari-iek izango dute, agian, ontaz zer esan), kosmolojilari katoliko geienek, gauzen izateaz jardutean, auxe esan oi dute: Arri bat, zugaitz bat, mai bat, gauzak dira. Bakoi-tzak ba-ditu arri, zugaitz eta mai izan-arazten dioten tasun bereziak bañan baita ere, tasun oien euskarri, guzieri "gauza" izatea ematen dien zerbait, ekaia alegia.

Beraz, bi zer bereiz omen ditezke gauza guzietan: Lehenbizi ekaia, izatearen gun eta guzientzat berdin eta, bigarrenez, ekai ori mugatuz "arri", "zugaitz" edo "mai" izatea ematen dieten tasunak, itxura (4): Neurria, usaia, kolorea, eletrikotasun-gaia, t. a.

Ezteritzait ori diotenek gaurko fisikalariekin bat etorri ditezkenik. Izan ere, ikusi dugunez, ekaia ta enerjia bereiz-ezifeko ditugu, ta zerbaiteri usaia, kolorea, eletrikota-

(3) Elektrona ekaia da; positrona berriz, batzuen iritziz, ekaiaren aitzikoa (antimateria), elektronak sortzean utziko luken txuloa edo, bañan nolana ere az-tun eta igikaitz.

(4) "Materia prima y forma substancial", esan oi dute erderaz.

sun-gaia ta gañontzeko bere beste tasunak kendu ezkerreko geldituko litzakenaz jardutea alperriko litzake... utsa geldituko bai-litzaiguke.

Nere ustez, egungo filosofi-zale askori bere aurrekoek zeuzkaten

idaziari buruzko ustez birraztertzea bear-bearrezko zaie. Bergson bat edo Zubiri bat ditezke eredu beste jakintza-sailez jabetu ta goren-mallako pentsakeraz aurrera ta gora egite ortan.

---

Eskertzen diegu ain garbi beren iritzia eman diguten guztiei. Pozik jaso ditugu JAKIN gure aldizkaria edertu ta biziagotu guraz idatzi dizkiguten denen kartak. Izan ere, gurea dugu, eta gurea denez eder ikusteko deretxoa denok daukagu.

# DOMINIKO THEOTOKOPULI GREKOA

*Gizonak gizona nekez ezagutu oi du, dio esaera batek. Bai, norbaiten ezagueran sakontzeko alperrikakoa da atean irautea, atetik azalaren azala bakarrik azaltzen baida. Sartu gaitzen ba, al dugun aurreraño, ikusten duana ikasi dezan gure buruak. Grekoa, gaur gure gizona. Bere barrenak argiago ikusi ditzagun maite dezagun antzelaria. Ni bera maitatzen asi nintzanean argitzen asi zitzaidan adimena. Berak bultzatzen zidan oraiñ duten maitasunera ta maitasunetik joan naiz ulertzen nola bere animaren su ta indarrak margo lanak boiltzen zizutzen. Ze ikuskai lilluragarria aurrean, antzelariarekin bat egin da gero. Zailla zana erreztu, errezteke. Gogorra bigundu, biguntzeke. Emen nere ordu ederrak itz urrietan.*

Dominiko'ri jaiotzean, Cretako gizarateak, sortalde ta sartaldearen mugan, toki egin zion. Gizarte ederra, zeru garbi baten jabe, iru endaz uritua gerkar, mairuetar eta erbetarrez. Gurasoak gerkarrak izan arren, sortaldeko erri auen atz sakona du bere izaeran. Ume zalarik, an, margo-ertiko enen urratsak eman, Grezi zarraren jakinduria ta sortaldeko kristauen Teologia ikasi bizantzitar prailleen begi-

rapean egin zitun. Leku bakartien ixiltasuna maite zuan. An Sitnaiko mendi gallurrean Yhabereren indarrak odei zakar tartean Moiseren soifia nola bereganatu zuan ikustera, idazteunaren lerroak lagun zitularik bere burua joango zitzaion. Ogei urte inguruan urontzitik aberriari azken biotz agurra ta...

Venezia'n gure gizona arkitzea ez da arrigarri; Cretako eskua zuan eta margozkari bikafiak baizeuden bertan. Venezia'n izan zituan ibilleren berririk ez dugu. Bakar bakarririk Tizianoren (ordurako oso zarrak) ikasle dabillega; arek erakutsitakoak sakon ez artu arren, olioazko margoen erabiltza ikasiko zuen beintzat. Tintoretoren atza geiago bereizten da, baita Corregiorena ere, margoren oztasunean.

1570'ko urtean, Rafael eta Mikel Anjelaren itzala uri nagusian jabe dala, Dominiko agertzen da. Baño Erromako uria etzaio egoki. Bere barrengo sua, gizon aundien sua, ango egurrak ezin dute ase. Egu-rasti lizunzale aiek berak barnean duen gogakitasunaren aurka baiddoaz. Gure antzelaria antzelari utsa ez dalako, antzelari utsak oartzten dun eder eta sakon margotzen duana da. Mota ontan geien igo dana Velázquez dugu. Ordurako Erroman geienak mota ontakoak ziran, Mikel Anjel, Rafael, Salbiati, Pomeranzio eta abar. Gureak osterabarrengo kezka gogorra agertu nai du, ori bai, al dun eder eta egoki, baiña beti barrengo kezka azaldu

naiean. Eta bere izaeraren ezaugarri bezela: Sixtina kapillako Mikel Anjelen "Azken Epaiaren" aurka, arek baño eratsuago eta margotzan gutxitzeke berriro egingo dula mintzatzen da. Ez uste gure gizona ospedun etzala ordurako, izan ere bai bazitun ikasleak, baño Erromako margolariak bere maisu ospatsuenaz mintzo ura aditzean begi txarrez begiratu zuten. Laister irten-go da Erromatik. Egia esateko irteraren zergatiak ez dakizkigu. Erromako lagun espafiarrak, Felipe-ren eskaera, igesi agian, emen irteraren azalpenak. Ziur dakiguna au da: bein Madriden urte oso bat igaro ondoren 1577'ko urtean Toledon dagola. Cretatik Venezia-ra joan zan bidazte gaztea, Italikoko bidetakoa, Mediterraneoan itxas lapurren artean ibilli ondoren, azkenik Toledori, ain lilluragarri, so egifik, bertan geratzen da. Bertan burgaitzki, bizi izandu zan, ura illobitzat nai izan zun eta an dira bere ezurrak aldiari nasturik.

Jaio zanetik biotzean eraman maitasunak bere tokia arkitu du. Semeak ezagutu ez duan aitaren ganako maitasuna gordetzen eta aurkitzen duan bezela ta gero aurkitzean zearo beregana itzultzen duan bezela, orrela egiten du Grekok Toledorekin. Ez du antzelari Toledok egin, ez. Grekoa berez da antzelari, baiña atekoak osatzen dute bereztiko au. Eta Toledo da Grekoren ertia sartzeko uztarririk onena. Bere egunerokoan Toledo-

ren biziera azalduko du. Bertakoak goiko atsa indartuko dute bere gizon antzetan, gizonenetan ta aingeroenetan. Ba-du ba Toledok ere Grekoren erti ospean zer ikusia. Ospe aundiko margolaria genuke Erroman edo Italiko urietan bere egunak egin balitu. Baiña ez gaur ezagutzen deguna. Etziran arkituko munduan ain indar kementsuz eta sortaldeko mistikaz jantzitako margoak. Grekok bereiztasuna Toledori zor dio. Zer aopeko azaldu ote dio Toledok?

Orduko zaldunak (oso arroak gaztelerrian izan oi diranez) eta eliz gizonak Toledoko goiko mallak betetzen zituzten. Aitzinean berri sortaldarrak, auek dira Toledori bereiztasun bat ematen diotenak. Onela dio oraingo prantsez bidazti batek: "Toledo-n sortaldeko erriaren arnasak bete zidan. Kallean gora bera eberrak eta arabitarrak gaztelera jantziak zebiltzen". Toledo gaztelerraren mendean jartzean bertan geratu baiziran. Mairutarren buru Toledo zala ta ordu ezker sortaldearen begia sartaldera begira egon dala ez dugu aaztu bear. Marañonek dionez notifiak bakarrik ez, lurraldea ere Palestinen antz osokoa da ta lurreko atzak igarleen oifa utzitakoak dirudite.

Toledon bi ozte mota auek bi izenekin bereizten ziran: Kristau zarrak eta berriak. Zarrak godoen semeak bezela ospatzen ziranak eta berriak judumaomarren ondo-

rengoak. Baiña sortalerrikoak bein kristau eran sartu ezker aien billobak kristau zarrengandik eziran bereizten. Kristautasuna bizitzeko eran zegoan aldia. Zarrak aszetika utsaren bidea jarraitzen zutenak zirala esan diteke eta gaifera gurterakoan zeru-izakiak emengo gizonen antzera jazten zituzten, miñez beteak ta odola, ixurtzen zutela. Felipe II'gnak. (kristau zar auen eredu) Grekori agindutako lan bat ukatu zion, bere margoan Grekoak nunbait ez omen zuan odol tantorik banatu ta martiri aiek Erregeari ez omen zioten otoi egiteko gogorik ematen. Mistikaz beteak baidaude Grekoren margo-lanak. Ez odollik, ezta miñaren azalpenik, auek ez baidira eriotzaren menpean geratzen, alai gaintzen baizik. Grekoa kristau berrien jarraitzalle dugu, biotza mistikaz bete Teresa ta Gurutzeko Ionen antzera. Kristau zarrak ez dute sortaldeko mistika ondo ikusten. Mistiko batek baiña geiago inkisizioaren eskuetan bizia utziko du, Gurutzeko Iones ere inkisizioaren menpean egona da, eta Inkisizioaren maisu baten irudi itxus eta parregarri bat Grekoren margozketatik irtetzea ez da arritzekoa. Toledo sortalerrri egiten duten indarrei Grekoak bere burua makurtuko die. Auen eragipen guziak batuaz ezagutu dun eleskia bakunduz ta gogortuz ikusiaziko digu. Muñio musken eta bertako seme goibelen tartean Venezia ta Erromako mar-

go beroak otzak eta margulak biur-  
tzen dira. Margo gorri eta urre  
ordekoak utziaz urdin eta gorri  
garbien motak beretzakotzen ditu.  
Zail batzen diran margoak ondoan  
jartzen ditu aurka-gogor bat egi-  
fiaz. Margoz are aundiak zabaltzen  
ditu, biziak gordintasuneraiña. Bes-  
tetan uts aundiak ardin-erautsuz  
beteaz. Emen ba gizona uztarri-  
pean, anima minberaren margolari  
izateko preste.

Tome donearen eliza, berez Alari  
eskeñitakoa, buztiferrezko dorre go-  
rria aidean dirudi Tajoko uren pa-  
rerik, arambel mudejarrez abe la-  
banduekin ornitua. Toledoko arri-  
bieten moiruar anima ertitsua an  
dagola gogorazitzen dit. Eta ezin  
aurkitu txoko ederragorik Greko-  
ren miesarentzat, bi izakeren neu-  
rri ta azaldupen, margoekin idatzi  
zuen garaienarentzako. Au illun-  
pean dago ta ondoan izkuntza bat  
"El entierro del Conde de Orgaz".

Bere naia azaldu naiez, miesa au  
autetsitzea iruditu zait onena. Au  
baida egingo dituan margotzen bil-  
tzalle. Toledoko bizitzaren asiera  
izan arren ez du ala ere ezer gal-  
tzen, asiera bikaiña baida. Bere  
lan guzia leio batetik ikusi geneza-  
ke ta leio au Tome doneko illun-  
pekoa besterik ez da. Bere margo-  
tzari dagokion muga eta bere izate  
osoa bertan arkitzen dira. Muga  
jartzeak eta lana biltzea gero da-  
toztela egia da, bafia gure gizonek  
asieratik bere bidea autesten du ta  
bein bidea ikusi ezkeru bidea zu-

zen zuzen jarraitzen du al dun on-  
doen sakon eta ederkiaña.

Irudiaren leloa Toledoko istori  
bakun bat da. Toledoko zaldunak  
Orgaz lagunaren illetan egite mi-  
ragarri bat ikusten dute: Agustin  
eta Esteban doneak illaren gorpu-  
tza eskuetan artuaz illobian jar-  
tzera doaz, bitartean aingeru batek  
illaren anima zeruko izaki ta doa-  
tsuen aurrean jartzen du. Greko-  
ren margazki gogakiak bi eratan  
azaltzen dute beren esan naia, eta  
era auek illeta ontan bereizten di-  
ra. Bide bat, amets zoroen irudiak  
ematen duana, doatsuen zeruan le-  
rratzen da; ta bestea, egizko ta  
benetakoan irudiak, zaldun eta eliz-  
gizonen illari eltzen dioten bi san-  
tueri, ikuskan. Ala ba, margoan  
dagon aurrak deitzen digunez Gre-  
koren ertiari margazki ontan be-  
giratu bat eman dezaiogun.

Azpiko aialetik asita ikus deza-  
gun margolarien jakintza illetaren  
agerketan. An azaltzen diran ar-  
pegiak. Aiek dira Toledoko seme  
zaldun benetakoan arpegiak, a-  
rroak, goibeltsuak... Gogoratu zai-  
tezke beste bularren eskua dun zal-  
dunaren margoan bere begiratze  
gotillunean eta lasaitasun gogaki-  
tsuan. Arpegi auek bezin gogaki-  
tsurik ez dut topatu. Baretasunean  
mirariaz arritzeke, ongetzen, dira.  
Or daude eliz-gizonak, bat bakarrik  
arrituta, gora begira dago, ezkerre-  
an mirariaren berri praille batek  
besteari eguneroko edozein gauza  
bat ematen dio. Orduko kristauera



ondo ikusi zuan margozki onen egilleak. Praille autetik jaioko dira geroko Prantzisko deun ta beste deunak, ori bai, luzegoak, bere barrenak gora irten naiean, goia gerutu duela, goraka doaztela, auen begiak aunditasunean bertan egon bailitezke, eta aurrera pausorik ezin eman bezela.

Illetan dauden ezkerreko praille tartean esku zuri bat agertzen da ta nere begia so geratzean lilluragarritu du, uso txuria aidean dirudi, bere biziaren jabe balitz bezela. Grekoaren esku pifiak, ainbat pitxitu zitun eskuak. Unamuno jauna Toledora joaten zan bakoitzean ezin ziteken itzuli Grekoaren eskuak ikusteke.

Eta guztia erti-lan arrigarri batez jantzia bai margoen neurrian bai oien banatze zuzenean, margoen mallak aberastasuna nabartzen dute, erdiko gizon saillean urrezkoak eta janzkorriak praillearen jantzi urdin eta apaizaren ator zuriaren tartean, gotzai donearen margoa biziko jantziak indar ematen diola. Gizonen jantzi beltz eta idun txuriren gairanean diran buru margul eta zurpill illerapean kandelen lasto-argiaren aurka.

Altxa begiak. Aingeruaren eskuetan Orgaz jaunaren anima biluzik betiko epaia jasotzera... Ikuskai onek bekoarekin zer ikusi aundirik ez du. Oso beste baidira. Gogaki ta galkiaren aldia dute. Bealdekoa ain gure neurrikoa ta goikoa gure neurritik irtena, egille

bat eukitzea ez ote da arritzekoa? Ez, agian jartzeke. Eskuetan dabilkigun margazkia Mikel Anjelearen "Azken epaiarekin" neurtzen baldin badugu, Grekoren margazkian beko gizonak goiko izakiekin duten aldia askoz txikiagoa dala ikusiko dugu, "Azken epaiaren" izakien ondoan Grekoren Toledoko zaldunak gogo utsak baidira. Grekoren zaldunak antz benetakoa dutela esaten dute, nik uste dut Grekoren arnas gogakik zaldunen arpegiak betetzen ditula. Ori bai zeruko izakietan geiago, ez al daude ba zeruko izakiak naiz gogo utsak naiz doatsuen animak gorputzetik urrutiago? Grekori bereiztasuna gizon antzetan nabartzen baldin bazaio geiago bere buruak sortzen ditunetan. Azken auetan sortaldea bereizten da batez ere. Bere odei indartsuak eta gogorak, illun eta goibelak batean Sinaiko mendia- ren odeien atza. Toledoko neskati sortaldarren irudiak bere aingeruetan, bere Ion donetan, gurutzeko Kristuetan eta abar. Emen bi aingeru aundietan eta Ama Birjiaren arpegian atz onez ikutuak. Lañoak aulki dituztela doatsu sail bikaiña, aragi gutxiko gorputzak baño erraldoiak, lankoari so, Beregan goi otoitzean murgilduak, kristau berrien eran, Teresa ta Gurutzeko Ionnen antz. Gorputzetik aztuaz geroz ta gero bere neurriak ukatuko dizkie gogakitsuago azal ditezen. Gorputzen goraka onek egin aziko dio geroz ta gero gorputzari jara-

mon gutxiago ematea. Gorputzak margo-ero bakunez beteko ditu ez baida gorputza bearrenezkoa anima gora daukarentzat. Anima azaldu naiean gogorra egingo da bere margazkia ta bere gorago joan naian zoro ta ameslari izenak emango dizkiote. Grekok merezi duan ospea ta ertimaisuen onespena artze-ko, bearrezkoa izan da oraingo ertiare azalpena Delacroitarretik Zezannetarrarte, Monet eta Van Goghen ertia igarotzea. Baña Grekoren margazkia ikusten ikasi danean ez da bera jatxi bere ertia gorago geratu baizik.

Gizon onen izakera aundia, bere kezka, bere lillura mamitsua ta ameslaria, lizunkerigabekoa, mar-

goen bakuna mistikoen gogakitasunarekin, dana da sortaldarra. Ori dana Cretan edoskita onera ekarri zuen eta emen gazteleko sartalde-rrian osatu. Bere erti ikaragarria-ekin bizkor aurkezten digu gorputzaren egokera bakarrik ez baita ere animaren izkutuak ordurarte ezagutzen etzan indarrarekin. Grekok margo izkuntza aberastu zigun margazkiaren gutxigoraberak neurri garaitsura jasoaz. Egitan bere izakera gizonen gafietik dago, mistikoa, Goethek dion eran, berarentzat lurrekoa alegia baida, eta bere eskuetatik zifetsi ezifekoa ere egi ta bizi egin baitzan. Artu ene irakurle lantxo bat eta begira bere ertia, au antzelaria ezagutzeko egokiena baida.

*"Baiña euskara ta euskararen mintzatzeko eta eski-  
ribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik: zeren hek azala  
ta lorea bezala baitira: har ezazu liburutto hunen fruitua,  
barreneko mamia: haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu,  
irakurtzen duzula, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuia-  
tzeko kontuan ere".*

(Axular. Gero. Villasante. 56 or.)

## *Autokritika* \*

---

Jose A. Otaegi: **Gazteriak salatzen du.**—3

Ain zuzen, ona emen izkiribatzaileak berak eskatzen duen ideologu ta minoriatar bat. Lana arras ederra du, ta sakona ta oso serioa. Gaiñera, dakigunez, orijinaltasun aundikoa. Emen ematen zaizkigun argudio ta frogantzak serioki elkartrabatuak direla esan bearko. Lana, bere osoan ta orijinal izateko, benetan errespetagarria da, ez baidire

egunero ikusten olako analisi egia-  
tiak ta are gutxiago euskeraz. Azur-  
mendi Otaegi idazle onek eman de-  
zaioke ezer onik gure aldizkiriari  
ta euskerari.

Lanaren lehenen orrietan ba dire  
zenbait esakune apur bat nahasiak  
naiz luzeak. Onegatik eta pentsa-  
mentuak duen giar berriagatik ez  
da beti aise jarraitzen, baina frase

\* Itz eman genizuen, eta bete dugu, 16-garren zenbakiari dagokiona da.

batzuetan duen gaiztasuna idazlearen biurrikerietatik sortua da ta gorde bearrekoa. Antitezi-sinteziarako esan-modu labur eta funtsezkoak ditu: "Asko defenditzerik ez eduki arren. Eta jakinda". Onelaxe, esakune ertsi bat erantsiaz.

Lanak duen ideien ta arrazoi-bideen orijinaltasuna, amaika gauza ta gertakizun elkartuaz, eskuartearen darabilkien zera argitzean dago. Kascopean ba du pentsatzaille bat Azurmendi Otaegi-k, ez da dadarik. Idazletzarako bearrekoen eta zai-

llena ta —euskalzaleon artean— urriena duguna ba dauka.

Euskera —ta gureztat bigarren mailla-izakia da— barra-barra darabilki: erilleak eskuetan azia bezela, alearen nundinorakoari geiegi begiratu gabe. Ez da sobera alegindu pitxiekin lana apaintzen. Onegatik ez daude frase denak zeatz boroilduak. Galdekizun-arauarena bere erara eraman du: Ipar-aldeari ta emengoari berdintsu begiratuaz ta eskuratu zaiona andik eta emendik jasorik.

#### **Iñaki Iturriotz: Atomuaren etxe-barnea.—11**

Beti izan da JAKIN-en asmoa gai guztiak erabiltzea. Alare gai asko espezialistentzat izan ditezke baka-rik, asko moduzko xehetasunak erabiltzen direnean. Ona emen artikulo bat gai trakets askotz edozein irakurlearentzako moldatua. Atomuaren egitura ta indarra azaltzen dizkigu Iñaki Iturriotz-ek, batere irakurleari buruko miñik eman gabe. Errez, airoso. Maillaz mailla darama irakurlea, Sokrate-ren metodoa deritzana jarraiaz. Au da kultura erriratzeko bidea. Onelako gaiaz idatzi hai dutenentzat (filosofia, teologia etabar, berdintsu) eredu bezela jarri genezake lan au. Artikuloa arin entenitzeko lana

idazleak aru bear du, ez irakurleari bizkarreratu.

Artikulu au elkarrizketa moduzko estilo asegiñean tajutua dator-kigu. Eskutik darama irakurlea, atomuaren zirrikuetan barna. Alde onetatik galdera geiegiak (13 galdera 5 orrialdetan, ta galdera denak berdin xamarrak) pobretu ta pixutu egiten dute idazketa. Artikuloa gozatzeko ba du, alare, Iturriotz-ek gatza ta ironia. Euskera errezean egin digu biurrikeria nahasi baten azalpen erreza. Azkenik, Iturriotz-ek h-ak erruz erabilli ditu euskeraren batasunerako bidea auxe delakoan.

#### **Oiarzabal-dar Alejandro: Liturjia berria ta euskera.—16**

As gaitezen, beti ekin bear genuken bezela. Lan onek zerbait esaten

du, zerbait mamitsu ta baliozkorik. Ori edonork ikus dezake. Onegatik

ia-ia lehenen txalo-ekifaldi onekin gel gaitzke. Lana serioa da, funtsezko: Liturgia-Doktor baten ikusia duena ageri da. Gaia, argi eramaten du ta irakurleak ez duela ezer galduko esan genezake. Nundiknorakoa ba dakigu. Esaten direnak entzungarriak dire, ta egin-garriak ere.

Euskerara gatozela, esan dezagun neiko eldua duela; ez da luma erdoitua. Ta diogun au, ondorengo "baifia" denak estali ta geiagorako laudorioa da. Alare, zenbait oarpen egin ditezke. **-ek** atzizkia transiti-buko zenbait egilleri ematen bakarrik: "gizonek dute"... Eta ez: "gurasoek dire; Sakramentuak ematerakoan" bai, eta ez: Sakramentuak ematerakoan" (aipatzen dugun esakunean).

Bearbada, obe litzake "direla" ta "direlarik" nahasian erabiltzea, ainbestetan "direlarik, dugularik" berri-ritu gabe. "Erri bertako" ez-baifia "erri bereko" bear litzake.

Deklinazio indeterminaduari begirune gelago bear genioke denok: ez "euskalzaleen batzuek", "alkarteen bat" ta "batzorde berezien bat" zera baifio: "Euskalzaleren batzuek", "al-

karteren bat" ta "batzorde bereziren bat".

"Zerbait obekiagorik" ez da euskeraz "zerbait obeagorik" baifio, ez baida, emen, "obekiagorik" ori adberbiua adjetibua baizik. "Bereziki" itza ez dugu iztegieta idoro, "especialmente" bereziki" esan bear litzake. "Eritzi" aditzarekin ez gabiltz euskaltzaleok bear litzaken eran: "me parece" iru modutan eman liteke: deritzat, deritzaiot, derizkiot =yo le llamo—me parece; baifia ifioiz ez "deritzait".

Izkiribatzaillarean sen onak zentzuz erabil dezake noski erderatiko itz bat; baifia lehendik euskeratua denean egin beza usuarioaren menpean: "proba naiz frogantza", ta ez "prueba", euskerak ez baidu itz au orrela beretu.

Baifia angula-mangula ibilli gabe esan dezagun: ideietan, jakingarri ta ausarta; argudioetan, ongi eramana. Ta onekin esan bearrekoena adierazi dugu; euskalzaleentzat boroilduaz: euskera buruauste aundirik gabe darabilki, ta guk, gere aldetik, oartxo oriek zuzendu dizkiogu (gelegi luzatu gabe). Zuzendu bearreko utsa da, ta iritxi dena asko: esankizun bat eta idazle-trinkotasuna. Zorionak!

Joxe Mari Regillaga: **Gidariak sortzeko metodo komunistak**.—23

Ta zer esan lan oni buruz? Ideiak ez dire berriak eta egillea ez da noski orren billa joan; baifia bai baliosak, argi ta labor emanak. Be-

raz, ori dena guziari eman zaion interesarekin baturik, artikulo ona dugu.

Izkera erreza, zuzena, txairoa.

Edonor jabetu diteke irakurriaz. Alaz ere deklinazioan zerak esan genitzake: "gubernutzaz, dotrifiatzaz..." zuzenak ote ditugu? Idazle berak darabilzki beste aukerak: "guziez, guziaz, leialtasunaz..." Auek dire artu bearrekoak ta aiek San Joan-su bikain baterako. "Eritzi" aditzaren euskal-kalbarioak! Ia denok darabilkigu erderazko "parecer" buruan dugula. Ez, ez da orrela. Egin dezagun betiko, "llamarle" esanaia duela: me parece = yo le

llamo = "deritzat, deritzaiot, derizkiot", baiña ifioiz ez "deritzait". Ta zer esan "bidegabekerien bat" irakurtzean ta "bidegabekeriren" bat" dela bestetan idazleak berak ba dakiela ikusita; izan ere "euskuaderen batean" esaten baidu. Ta ez ote litzake "opostoen dialektika" baiño egokixeago "kontrarioen d."? Bai, uskerak ditugu guziok aipatuak diren bikaintasunen parean; baiña euskeraren tximu deabrua barnean dugunok...

Zabala ta Bengoetxea-tar P. M.: **Pernando dala ta.**—29

Ain euskera xuabea ematen digun lan au beste baten ataria denez,

laga dezagun gure ganibeta ordurako.

Pedro Anjel Garcia Chasco: **Sozial-enziklikak zertarako?**—32

Poztutzekoa da benetan ainbeste euskal apelliduen artean onelako bat arkitzea: Garcia Chasco, onelaxe idatzia. Eta bai, erdalduna da izatez. Baiña euskeraz ba daki, eta emen azaldu digu gaur bere ikasketaren frutu bat. Zorionak, Garcia!

Gaia interesduna da izan eta egilleak argitasunez eta zeatz-meatz erabilli du. Ideiak-eta ederki bereziak eman dizkigu. Alare —akats txikia— gauza bat edo beste eza-

gunak bezela utzi ditu; ta ez. "Mariaren zerura-jasotzearen definizioan egindakoa", esate baterako (34). Kontu artu bear zuen noski JAKIN ez dutela eleiz-gizonak bakarrik letzen. Baiña esan dezagun artikuluaaren balioen aurrean akats onek ez duela inportik.

Idazkerari bagagozkio, fraseak berdin-xamar tajutuak dire eta alde ortatik moteltasun-kutsua uzten diote artikuluari azkenerako.

Intxausti-tar Joseba: **Hiroshima, mon amour!!!**—37

Artikulu atsegiña. Titulutik asita azkeneraifio irakurria izateko idatzia. Ironia, umorea agiri ditu baz-

tar guztietan. Umore beltzik ere etzaio falta.

Gai au, segun eta nola erabilli

izan zitekean deabruak berak irakurtzeko ere txarra. Intxausti-ri eskerrak irakurgarria dugu, ta Iturriotz-enaren parean jartzen dugu alde onetatik. Idazkeraren aldetik, ura baiño lortuagoa da. Iturriotz-

Jose Azurmendi: **Asi gaitzen komunismuarekin alkar izketan.**—43

Giarra ta berotasunekin eraman du Azurmendi-k gaia azkeneraño. Berez da gaia interesduna eta egilleak ez dio zor zaion ezer kendu.

Edozeñentzako lana ez da noski. Filosofian serioki oñarritua dago ta orregatik da, izan ere, sakona ta pentsatzaille batena dela ematen duena. Bai, pixua artzen du filosofi aldetik artikulua eta bestalde ba da olako bizitasun berezi baten jabe ere, indarrak eta zorrotasunak emanda. Salto-saltoka ta sorpresaz sorpresa garamazkiala azkeneraño esango nuke. Batek ez daki, batzue-

Joan Mari Torrealdy: **Katolikoaren egintza politikan.**—55

Gure errian gora ta behera dabilzan milla galdekizunei erantzutera datorren gai egunekoa ta polita auxe. Katolikoaren arteko auzia den ezkerre —emen darabilen moduan— egilleak Aita Santuen irakatsietan oñarri eman nai izan dio lanari. Orrek artikuluari pixua ematen dio noski, irakurtzea zailagotzen duen neurri berean sarkotasuna ere emanaz.

Artikuluaren akats bezela artu genitzake, bearbada, moteltasuna

enean elkarrizketa estilo zena —elkarrizketarrian gabe— emen egiazko elkarrizketa biurtu da. Ipui idazkera abillean eman digu bonba atomikuaren berri.

tan, zer ager lezaken iru-lau lerro geroxeago. Pontu geiegi ikutzen ditu bearbada; ta au artikulua laborpena ematean konturatu ditekenez gauza da.

Erdera itzak erruz erabili ditu. Pixka bat kontu geixeago eska genezaioke, baiña ezer gutxi. Frase luzeegiak ere ba ditu, ta endrebe-satuak, errez ulertzearen kaltegarri dudarik gabe. Dena baltsan arturik esan bear dugu, azkenik, artikulua oso ona dela ta eskuartearen darabiltzan problema sentitzen duela egilleak. Zorionak, Jose!

(agiri ikus ditek idazleak ez duela oraindik estilo arñik, eskuan ezpata bezela erabiltzeko prest). Ta esararen batzuek. Onela esate baterako, “eboluzio laister” (azkar)—56—, “afirmazioen bat” (afirmazioen)—57— eta sintaxiaren aldetik erderara makurtzen diren frase bat edo beste. Galdera larregiak ere “handicap” nekagarriaz betetzen digute irakurraldia zita ugariekin batera; ta alde onetatik arñagotzea merezi luke.

Ideia ren batzuek ere, an-emen, illun xamar gelditzen dire. Adibidez, 58 orrialdean, politika itzarekin zer adierazten digun argitu nai diguneko erantzuna.

Artikuluak jarraipena eskatzen

duela esan diteke, katolikoak egin-tzara bultzatzeko egina. Gaurko artikulu onek, onerako naiz txarrerako (txarrerako geiago, agian) duen apolojetika kutsua kendu bearko dio Torrealday-koak, orretarako. Ia noiz ematen digun.

**Jose Azurmendi: Neskatzak ez dute euskeraz itzegin nai...  
eta arrazoiak daukate.—62**

Titulutik asita irakurgarria da lana. Neiko sakon jardun da orain ere Azurmendi. Artikuluaren "barrereneko mami" aldetik oso ondo. Ideiak segurasko Marañon-i zor izango dizkio (ba dakit Marañon-en liburua irakurria duela. "Ensayos liberales" alegia). Baiña berenak egin ditu izkiribatzaileak, ederki asimilatu, ta orretara eman ahal izan digu lana oso bat, borobildua.

Egia esan bear da, kulpa asko ta geiegi bizkarreratu zaiela neskatzai euskera salbazio kontuan. Ez dute-la itzegin nai euskeraz-eta. Artikuluaren egilleak dio oiek ematen dituzten arrazoiak sasi-arrazoiak direla, azaletikoak, ta berak sakonago ikusi nai duela auzia. Ta orixe egi-ten du, sustriaiak lurpetik atera, sentimenduak alde batera utzirik,

ideiei lotuta. Arrazoiaren arrazoi atzetik dabil. Ezin genezake uka giza-sikolojia ren analisi bizi ta zorrutz bat egin duela, keifua dela merio. Konklusioak zuzenak dire-lakoan nago. Azurmendi-k gaurko ta gure problema bizi bati eldu dio ta azterketak guzior aurrean jarri, bakoitzak ta denok batean soluzioa eman dezaiozun. Ez da gutxi. Soluzioa emateko lehendabizi jakitea baida, satorra arrapatzeko nun da-goan jakitea dan bezelaxe. Nundik abiatu bear den soluzio ori ere era-kutsi digu, gaifera. Ezer geiagorik eska al dezaiokegu artikulu bati?

Sintaxi-aldeetik erderara makuru-ta dela maiz esan bear da, premifia-rik gabe batzuetan. Baiña, ba da-kigu, benetako balioa ikusi ondoren, ezer gutxi kontatzen du akats onek.

**Pello M. Zabaleta: Elorri (egillearekin izketan).—69**

Komeni litzaizkigu onelako lan batzuek. Esan nai dut "interview" tankera oietakoak, bizitasun apartekoa ezartzen baidiote beti lanari

—ondo eginda direnean, jakifia; au bezela—. Artikulu klase oiek pozik artuko lituzte JAKIN-ek.



Franko dira JAKIN ale onetan artikulu ederrak, baiña au bezin pitxirik bai ote? Ez da arrazoitik landa ibilli berari buruz zera jaulki duena: "Ori da idatzi gauzak esateko eta ez idatzi idatzi aldera". Ta bat baiño geiago poztu da, noski, oraindik euskera xamurrean gauzak esan ditezkeela konturatzean.

Baiña, kritikaren sarean galbaitzerakoan, beste balore sendorik ere arkitzen dugu Olaberria-ren lan txalagarrian. Batez ere, idazkera: bizia, motxa, argia, errexa... Ez-pairik gabe, idazlari trebe baten doaien jabe dugu egillea, estiloak salatzen baidu. Gaifera, egillea etzaigu ari denpora pasan, jolasean, idazterakoan. Interesduna da benetan darabilkian gaia: "...eta apaiz baten fedea". Artikulua, bere goxotasunean, ondo xehetua ematen zaigu: analisi estuan pasatua, alegia. Ta ementxe dago lan onen gai-

lurra, gure iritziz, gai serio bat edonorentzat ulerterrexa egiten dela, bere joskera aparta dela merio. Ta ez uste Olaberria-k bide xamurretik jo duela, errezkeriz-edo, au baiño artikulu zaillagoak ba direla kontuan artu bear badugu ere, gai aldetik. Eta kulturaren begiekin begiratuki, benetan da txalagarria lantxo. Onelamoduzkoak maizago bear genituzke JAKIN-eko orrietan.

Akatsik? Ez da gure gustokoa, onelako lan jatorrean erru billa astea. Baiña, kritikan ari geran ezkerro, txiki bat adieraziko dugu, utsa izan arren. Egia da JAKIN-ek euskerari dagokion baiño garrantzi geiagorik ez diola eman nai; ala-ta guztiz ere, zentzudunezko euskera batuaren alde zertxo egin nai genuke. Preokupazio au ez da azaltzen Ildefontxo-ren artikuluan. Intxurre-Txindokipeko kutsua dario darabilkian euskera xarmentari.

Alejandro Zuanetakoa: **Gizonari dagokion edukazioa.**—82

Teoria zaleak atsegin izango dute artikulu au, ta aiei ere zor zaie, noski, une bat. Gaia, edozeini belarriak tentetu erazten dizkion gaia, gizonari dagokion edukazioarena. Beraz, materia banatzeko ta eramateko beste modu bat itxarongo zuen irakurleak. Beste giarra bat, beste odol bat. Baiña artikulua bare bare doa, larririk batere gabe. Otz... Eta ain otz gero! Eskuartearen zeka-

rren problemak idazlea etzuela geiegi berotzen agiri da. Oso goi goietako filosofietatik dabil-ta. Auxe dugu JAKIN guztiaren okerra: atzamar falta. Errealidade mingarrieneri ere, atzamarrekin eta ortze-kin eldu bearrean, sedazko goanteekin elduko diegula.

Beltzuneran batzuek gora-behera idazleak estilo eginxea dauka. Alako "bizikiak", "obekiagorik", adber-

bioen moduan tajututako soifnekoz adjetibuak aldrebes jantzirik ikus-tean oso arrotz biurtzen zaizkigu; ain arrotz, ez baigera ongi-etorria ematen ere ausartu. Artikulu legorra ta apur bat makala izan

arren, altura politekoa da ta erreza eramana. Seriotasunagatik, gaigatik, idazkera, lan ta lanaketagatik, artikulu bikaiña izango genuen au, egilleak bizkortasun geixean erantsi balio.

#### Zabala-tar Pello Mari: Europa'ren batasuna 1700'ean.—89

Parre-giroa da bene-benetan artikulu onetxena, ta gaitza da konprenitzea zergatik. Aurkezten zaigun liburuaren egillea erabat idealista utsetakoa dugulako, bearbada. Dana dala, gauza zuzenik ez pentsatzeko usmo txarra eman lezaioke norbaiti, azkenean, ez baida oso ziur gelditzen bat, dalako liburuak bi mende ta erdi gerora gogoraturik mezezi ote duen ala ez.

Zabala-tar Pellok, Baiona-ko bilkerari aurrea arturik, bere ortografian **h** letrari sartuera librea utzi dio. Au, alare, etzaio beti bear bezela sartu. Aurki dezaizkiokegu, ba, legez kanpo dabilzkion zenbait: hixtori, hetxe, horduan, hinor, heuren, lahurden, humore... **Oinharri**, ta hamahiru esaten duenak ere ba dirudi hego-haize esan bearke lukeala, ez egoaize. Beste orrenbeste, ez leudeke gaizki **h** ezagugarriarekin, **ari**, **azi**, ta gabe dabilzan beste baten batzuek. "Joiankara" (94), "Dudikpe" (95), "egoaldi" (egu-

raldi), "ehantsi" (erantsi), "prohatu" (probatu) ta olakoak orobat, euskal literaturaren testorako desegoki xamar prantatuak datozelakoan gaude.

Zabala-ren azterketak Europa-ren batasuna billatzeko bidetik eman diren pauso zahar baten berri eman nai digute. Interesgarria lana, benetan, gaur egun arrazoi bategatik ala bestegatik etorkizun onetxekin denok dugun ezkererikuzirentzat. Europa-ren batasunak urrun ditueenez sustraiak, asierako urruntasunaren gorabeheretan maixeatzea komeni zaigu.

Gai ain interesgarriko ta irakurtzeko ain erreza duen lan onen biurkeririk biurriena, ordea, asma bera dugu. Gogorra baida liburu bat artikulu bakarrean biltzea. Orregatik, liburu osoaren laburpen bat ematea baino obe izango zuen apika idazleak zeatz baten adarretik (minorien kontua, esate baterako) artuta presentatu baligu liburu osoa.